BAPATEAN 2020

Grabaketak: Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Bertsozale Elkarteetako sail desberdinei zein borondatezko grabatzaileei esker jasotakoak.

Hautaketa eta transkribaketa: Felix Irazustabarrena

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Felix Irazustabarrena, Bertso Doinutegian oinarrituz.

Zuzenketak eta azken orrazketa: Martin Aramendi.

Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Maketazioa: LANKU Bertso Zerbitzuak, S.L.

Argitaratzaileak:

BERTSOZALE ELKARTEA

Nagusia, 70

20.150 Villabona

I.S.B.N.:

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....4

Argibideak eta irizpideak.....6

Bat-bateko bertso hautatuak.....9

Bat-bateko sariketak..... 121

Bertso saioen mugimendua.....121

Tauletako kontzeptuen azalpena..... 127

Txapelketa eta sariketak..... 135

Saioen aurkibidea..... 139

Bertsoaldi hautatuak..... 146

Bertsolarien aurkibidea..... 154

Izen eta izengoitien deskribapena..... 157

Hitzaurrea

JOSKURAK BISTAN

Hogei urte zituen hogeita batgarren zikloak, negu hondarrean bertsolariok mutu gelditu ginenean. Irakurri eta entzun izan ditugu bertsolariek isilik egon behar izan zuteneko garaiak; eta guri ere tokatu.

Herriz herriko ibilian gaude gu ohituta, autoan hara eta hona ibiltzen; jende artean egoten eta jende artean sortzen. Kanpoari lotutako bizimodua da barrura begira egiten duguna. Eta hau kolpez eteteak, noraez handian utzi gintuen. Inoiz baino gordinago erakutsi zigun, bere ederrean, bertsolari figuraren zaurgarritasuna eta prekarietatea.

Agendako saioak ezabatzen hasi ginen pixkanaka. BB (bertan behera). Eta izate puska bat galtzea iruditzen zitzaigun aldiro. Irakurtzen, idazten edo dena delakoan saiatu zen bakoitza bere bertsolari izateko hautuari zentzua ematen. San Isidrotarako hasiko gaitun/k martxan esaten genion elkarri telefono dei desesperatuetan. Baina San Joan suek erre zituzten gure esperantzak. Areago, kultura premiazko gauzen zerrendan lekurik gabe gelditu zela frogatzean.

Eta hasi ginen halako batean berriz ere taularatzen, baina ez guk ezagutu izan dugun plazan. Majo kosta zitzaigun egokitzen, oholtzan bertsolari adina mikrofono ikusten eta ahorik gabeko zaleei kantatzen. Guk ahoa bai, baina bertsoaren gainean behar besteko arretarik ezin jarrita ibili ginen luzaroan, eta esango nuke hala gabiltzala oraindik. Artistikoki ere urte zaila izan da oso.

Eta faltan sumatu ditugu, gogotik, libreko saio eta bertso otorduak. Bazkariak on dagizuela, arratsalde on denori.

Bertso plaza. Zer hintzenan eta non hago! Ongi bistan gelditu zaizkin joskurak. Ez dakit noiz, nola eta zenbat etorriko den lehengotik; baina ekarriko ahal digu sare trinkoago bat dauzkagun gabeziak bistaratu eta hauei buruz hausnartzeko izandako denborak.

Julio Soto Ezkurdia

Argibide eta irizpideak

ARGIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkarteak urtero argitaratzen duen bertso bilduma da *Bapatean*.

2.- *Bapatean 2020*an, 54 bertso saioetatik hartuta, 84 bertsoalditako 598 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin.

3.- *Bapatean* antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik.

4.- Badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. 2020an 221 saio grabatu dira entzuteko euskarrian.

5.- 2020. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertsopaperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

6.- *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* (2) (Bertsozale Elkartea, 2004) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako *Bertso Doinutegiaren* (3) arabera izendatu dira. Bestalde, Bertsozale Elkarteak onartutako *Bertso estrofak izendatzeko irizpideak* (4) lanaren arabera izendatu dira neurriak liburu honetan.

7.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan (XDZ) jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

8.- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak elkarlan hitzarmenak ditu Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Laboral Kutxarekin. *Bapatean* proiektua gauzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol departamentuko Oreka diru laguntza jaso du.

9.- Jende askoren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamaika grabatu eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.

Aurrerantzean ere, eta guztioi esker, ahozko ondare hau biltzen, antolatzen eta hedatzen ariko gara hau bezalako argitalpenen bidez.

Bertsozale Elkartea

(1) https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/bilaketa

(2) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3400-bat-bateko-bertsoak-idatziz-emateko-irizpideak

(3) http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/bilaketa

(4) https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3418-bertso-estrofak-izendatzeko-irizpideak

Bat-
bateko
bertso
hautatuak

Arantza. Nafarroa, 2020/8/16. TTipi-Ttapa aldizkaria

OIARTZUN

(2020-01-05)

Bertsolariak
M. Artetxe, A. Egaña, On. Enbeita, B. Gaztelumendi, A. Laburu, M. Lujanbio, J. Martin eta J. Soto
Gai emailea
Amaia Agirre

Euskal preso politikoen aldeko elkartasun jaialdia Oiartzunen. Elorsoro kiroldegia bete zen beste urte batez.

J. Soto

Gaia: Gabonak egun zailak izaten dira familia askorentzat. Eserleku hutsek eragiten duten samina eta hutsunea areagotu egiten da ospakizun garaiotan eta familian elkartzeko aitzakia diren egunotan. Preso daudelako izan daiteke, baina baita hilda daudelako ere. Eta zuk ere badakizu zerbait horri buruz. Edo zerbait baino gehiago segur aski.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

J. Soto
Dolu bidea den desertua
gurutzatzen dabilenak
bere gogoan pentsamenduak
erabat dira hilenak
baina nahiz eta egutegiai
begiratzen ari denak
antzeko xamar nabarituko
ditun egunik gehienak
egon badaude egun batzuek
bereziago direnak. (bis)

Izan daitezke herriko festak
izan leike Olentzaro
Aste Santuko Pazko bazkari
edo bere urte aro
egun horiek bi alde dutela
ni’re probatuta nago
nahiz eta mina izaten zaizun
sekula baino minago
falta den hori sentitzen duzu
inoiz baino hurbilago. (bis)

Oroitzapenik naiz bapatean
ezin den bilakatu ke
minari eutsi nahi zenioke
baina bizi behar zuk’e
egunerokoak irensten zaitu
behin pasaz hiru-lau urte.
Hargatik data berezi hauek
txarrak direnik ez uste:
orbain txiki bat daramazula
akordarazten dizute. (bis)

ARAMAIO

(2020-01-18)

Bertsolariak
Bertso ibilbide gidatuan:
A. Iturriotz, A. Egaña, A. Zuazubiskar, I. Majuelo, J. Uranga, M. Abarrategi, O. Iguaran, S. Colina eta X. Igoa
Gai emailea
Marta Ugarte

Bertsolariak bazkarietan:
Ehiztari txokoan N. Elustondo eta U. Iturriaga
Izarra elkartean E. Lazkoz eta M. Artetxe
Uribarriko elkartean On. Enbeita eta S. Lizaso
Zabolako elkartean A. Labaka eta I. Viñaspre
Eskolako jangelan J. Uria eta B. Gaztelumendi

Aramaioko Udalarekin eta Aramaioko bertso eskolarekin elkarlanean antolatuta egin zen 51. Bertso Eguna. Eguerdian bertso ibilbide gidatua izan zen herrian barrena Amillena Aramaioko turismo elkartearen laguntzarekin, eta ondoren bost bertso bazkari aukeran. Iparra-Hegoa arduratu zen bazkarien prestaketaz. Elkarte batzuetara joateko, autobus zerbitzua jarri zuten.

O. Iguaran - A. Zuazubiskar - A. Egaña

Gaia: Zuek hirurok koinatuak zarete. Eta gaur lehenengo aldiz Aramaiora etorri zarete, bainuetxera, eta hortxe zaudete baineraren aurrean. Andoni, bainujantzi estu-estu batekin, slip horietako bat; Oihana, zu, neoprenoarekin etorri zara, eta zu, Ane biluzik.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

O. Iguaran
Balneariorantza
hasita ausartzen
horren txikia zenik
ez ginan ohartzen
biluztasuna berez
nahiz degun onartzen
zure slip asuntoa
ez det ondo hartzen
ta uste det hirurok
ez gerala sartzen. (bis)

A. Egaña
Ze koinata majak ta
ze koinata pare
bainera bilakatu
zait ia altare
egin det aitaren ta
hiru miserere
pittin bat tapatzeko
egizu mesede
ni ja ez naiz kabitzen
nire baitan ere. (bis)

A. Zuazubiskar
Nahiz ta mundura jaio
haragi igualez
neopreno, slipez
eta ni azalez
Aramaio bete da
ur beroen zalez
asko sinesten dut nik
izarrez, seinalez
bat ikusi nahi nuke
bestea igual ez. (bis)

O. Iguaran
Hiru estilootan
a ze panorama!
Bizente Goikoetxea
zutituta dana
pentsa ze bainuetxe
herriak daukana
aterki, iturri ta
guztiak ai ama!
Ta urezkoa al da
hango tobogana? (bis)

A. Egaña
Hori alperrik dala
nago sinetsita
aitaren baten igo
ta ezin jetsi ta
horrelaxe nabil ni
erabat etsita
hobe det aurpegia
eskuaz itxita
baina behatz tartean
tarte bat utzita. (bis)

A. Zuazubiskar
Zirrikitua utziz
auskalo norako
ados gogotsu nago
ni txirristarako
baina herri honetan
jaten denez bapo
plana utzi dezagun
bazkal osterako
hortzak behar ditugu
bazkaritarako. (bis)

O. Iguaran
Ur sulfurosoena
egin zuten promes
oso onak omen dira
edatean onez
ta probatu edo ez
behin hemen gaudenez
hau ezin kabituta
lehendikan dagonez
probatu ikusteko
guk edan edo ez. (bis)

A. Egaña
Balnearioan gero
zer nolako festa!
Ekarri omen dute
kristoren orkestra
ta ura probatzeak
sortzen didan kezka!
Ezezkoa emanda
banoa iheska
sulfuroso edo ez
ur onikan ez da. (bis)

A. Zuazubiskar
Ez dugu ba edango
egin dezan kalte
plan ederra zen eta
hartu dugu parte
baina hemen ze aterki
hemen ze ur parke
zuek biok utzita
baineran aparte
pizteko zain gelditu
nahi dut uda arte. (bis)

A. Labaka - I. Viñaspre

Gaia: GAI LIBREAN

Neurria: Kopla handia
Doinua: *Hor goian goian goldia*

A. Labaka
Hontan zenbat oroitzapen
esanda halako baten
batzutan hala iruditu arren
ez zait burua joaten. (bis)

I. Viñaspre
Zure ideiekin lepo
gero aldatzen duzu seko
ez dakit doinu hau hobea den
regetoia dantzatzeko. (bis)

A. Labaka
Belarrientzat ukendu
ezin meriturik kendu
ba zuk basea eginez gero
regetoia ematen du. (bis)

I. Viñaspre
Retoa retoaren truk
ta hemen badaude batzuk.
Zuek dantzatzen hasi ezkero
nik basea egingo dut. (bis)

A. Labaka
Poz-pozik daude gainera
erantzun dute galdera
baina dantzatzen hasi ezkero
igo mahaiaren gainera. (bis)

I. Viñaspre
Ez, ez, hori da kaltean
ta pentsatu beharrean
hobe izaten da burua airean
baina bi oinak lurrean. (bis)

A. Labaka
Ez da kuadrilla ergela
iruditzen zait itzela
ta onena da entzundakoan
zalantza egin dutela. (bis)

I. Viñaspre
Ba orduan gauza ziurra
eskua altxatuz laburra
zeinek nahiago du mahai gainean
ta zeinek nahiago lurra? (bis)

A. Labaka
Airean daude hormonak
apurtu behar kanonak
juxtu oraintxe eskua altxa du
mahai punta hortako gizonak. (bis)

I. Viñaspre
Baina gaur horren aurrean
nago pixkat beldurrean
nire ustez dantza in nahi du mahaian
eta ostean lurrean. (bis)

A. Labaka
Lurrean hainbeste putzu
ta dena zuretzat muxu
barran atzean dauden lau horiek
dantzan jartzen badituzu. (bis)

I. Viñaspre
Has zaitezte ez dut duda
gainditu dezagun muga
ta elkarteak hartu dezala
Bar Coyoteren itxura. (bis)

A. Labaka
Ze laukote konpletoa
perspektiba perfektoa
kuadro klasiko bat ematen du
dula mende batekoa.(bis)

I. Viñaspre
Kuadroa nahikoa ezagun
ta asmatzera demagun
ea dakizun orain bakoitzak
edateko gaur hor zer dun? (bis)

A. Labaka
Edan dute itsasoa
ta hasi da erasoa
baina hemendik hutsa ikusten da
behintzat Jonpiren basoa. (bis)

I. Viñaspre
Jonpi ez zaizu ondo irten
beti horren astakirten
eskatzera joan baina ondokoek
ez diote kasu egiten. (bis)

A. Labaka
Horiek dira lagunak
Jonpi zuretzat txukunak
seguru ura edan duela
kuadrozko alkandora dunak. (bis)

I. Viñaspre
Nik tragotxo bat nahi nuke
Peru errazago, nik uste
edozer gauza egiten baitu
propinatxo baten truke. (bis)

A. Labaka
Propina nahi du guztira
Peru ta Txemaren jira
gaur edaria ez da bukatu
basoak bukatu dira. (bis)

I. Viñaspre
Baina ez dugu kaltera
entzun honen bukaera
basoak berez amaitu, baina
ordun botilak atera. (bis)

A. Labaka
Aurrea eta atzea
komeni da dantzatzea
ordua da ta zer iruditzen
agur batzuk botatzea. (bis)

TOLOSA

(2020-01-18)

Bertsolariak
M. Lujanbio, A. Egaña, A. Arzallus, O. Iguaran, J. Soto eta A. Martin
Gai emailea
Amaia Agirre

Hamar euro ordainduta, 850 entzulek bete zuten Leidor zinema Tolosaldeko Ataria hedabide multimediaren aldeko saioan

A. Egaña

Gaia: (Amaia Agirrek Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria aurkeztu, hau oholtzara igo eta gaia jarri dio Egañari).
Urtez urte biztanleria galtzen joan den herri txiki bateko biztanlea haiz hi. Gaur goizean konturatu haiz denak alde egin eta bakarrik gelditu haizela.

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

A. Egaña
Batzuk linea autobusean
aberatsenak taxian
hiri usainaz, herri hontako
biztanle denak joan zian
bakar-bakarrik geratu naiz ni
herri bidetik utzian.
Hala ere, ez naiz hasiko hemen
negarrez ta denuntzian
nahiko gustora bizi naiz hemen
nere estrabagantzian
barreñu baten itotik hotsa
huntza hemen, bi untxi han
kanpandorreko errelojura
beiratuz modu etsian
hori aspaldi gelditu baitzen
hamarrak hamar gutxian.

Behin Amenabar hurreratu zen
eta Moyua segidan
ta bailarako bi politiko
hara putreak zer diran.
Etxe huts hauen tartean hemen
jardun zuten ikusmiran
ehunka txalet ta hiru-lau parke
ta han umeak dilindan
plano batzuek zabaldu eta
han egon ginan mahai-jiran
eta gainera, momentu baten
agurrean, despedidan
batek txaleta eta piszina
ere eskeini zizkidan
baina txakurra askatu nien
ta denak ihes joan ziran.

Bakardadean nik nobela bat
idatzi nahi nuen *klaro!*
Leiho ertzetik zelatatuaz
ditugun hainbat urtaro
deskribatuaz txorien kantu
ta soro-zelaien margo
idatzitako milaka orriak
dira orain hosto hango.
Gaur behe-lainoa zekarren goizak
pixkana eta beherago
eguzki printzik egun osoan
nola ez dedan itxaro
ja itzalik´e ez det egiten
duda sartu zait, akabo!
Igual hil nintzen eta neu ere
enteratu gabe nago.

Kopla barik. Bizkaiko txapeldunen saioa. Getxo. Bizkaia. 2020/12/20. XDZ

GETARIA

(2020-01-19)

Bertsolariak
O. Barroso, B. Gaztelumendi, L. Goenaga, N. Ibarzabal, A. Labaka eta A. Martin
Gai emailea
Uxune Areizaga

Beste behin San Antonetako bertso saioa antolatu zuen udalak Cristobal Balenziaga museoan.

O. Barroso - B. Gaztelumendi - L. Goenaga - N. Ibarzabal - A. Labaka - A. Martin

Gaia: Gaur eguneko presakako bizimodu honetan, alde batetik bestera korrika gabiltzan honetan askotan nekatuta egon ohi gara. Zuek, kontaiguzue, oharkabean zein lekutan edo non hartu duzuen lo noizbait?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

B. Gaztelumendi
Nekearekin egoten gera
sarri loaren atean
nik ere gauza batzuk gordeak
badauzkat nere artean.
Hamar urtekin lo hartu nuen
gaztea nintzen artean
Sebastianen ta Andoniren
bertso-afari batean.

N. Ibarzabal
Gazte garaian Bilbon bizitzen
ta ezer ez zenez traba
ostegunetan mila taberna
zeuden bertatik bertara.
Ta behin klasean lo hartu nuen
begiei erortzen laga
ta ikasi nuen ostiraletan
ez joaten klaseetara.

A. Labaka
Poz-pozik igo naiz lehen oholtzara
ez nau inorrek behartu
atzo parranda egin nuen ta
orain logurea sartu
honek zuekin lotura dauka
ta beharko det onartu
lehen begiak itxiak neuzkan
baina ez zerate ohartu.

L. Goenaga
Errusiako mendia nola
oso gustuko ez dudan
eta Ametsek esan bezela
zerbeza ona da udan.
Bai lo hartu nun banku batean
bakarrik Port Aventuran
eta txanpon bat bota zidaten
biharamunan fakturan.

O. Barroso
Parranda luze batetik bueltan
gauzak nola disimula?
Etxeko atean ezin aurkitu
giltza sartzeko formula.
Beraz hor bertan lo hartu nuen
ez dut ahantziko sekula.
Bueno gutxinez konta nezake
etxean lo hartu nula.

A. Martin
Narkolepsia dudala esaten
atrebitu izan da zenbait
sarri hartu dut lo nahiko sakon
autobus baten ta ez *ligth*.
Baina ez pentsa ni lokartzen nau
gertatu litekeen zernahik
ez naiz alperra inondik baina
amestea gustatzen zait.

B. Gaztelumendi
Behin Santelmotan aritu ginen
gogoz Zumaia astintzen
zero-zerorik ez zuten saltzen
eta gaua goiz egin zen
tiketa hartu topoan sartu
eta hau zaila da berdintzen
Añorgan jetxi nahi nuen baina
Hendaian esnatu nintzen.

N. Ibarzabal
Klase batera joatean edo
gero liburutegira
edo trenean edo busean
hegazkinean berdin da
leku denetan har dezaket lo
ta ohean sartzean tira
hiru-lau ordu egon naiteke
nire sabaiai begira.

A. Labaka
Ai Gabonetan hitzordu batzuk
izaten dira astunak
elkarrizketan hasitakoan
gaiak estutan, estunak.
Altxa ditzala gora eskuak
behatzak ta eraztunak
familiako bazkari baten
inoiz lo hartu ez dunak.

L. Goenaga
Nahiz ta gustora ibiltzen naizen
nahiko anbiente hezean
oso gustora egon naiteke
ohean eta etxean.
Nahiz ta fidatu egin behar den
nik emandako hitzean
nik lo hartzen det mendira plana
eiten degun bakoitzean.

O. Barroso
Ta abenduko gau izoztuan
nere Volkswagen goxoan
lo hartu nuen ta bertan egon
lo seko ni goiz osoan
gero ertzainak esnatu nindun
ai modu deserosoan!
Pentsatu nuen hobe egongo
nintzela kalabozoan.

A. Martin
Lo hartu izan dut *tren txu-txu* baten
traktorean ta txalupan
lo hartu izan dut bainera azpian
eta mendi baten puntan
ta amonaren aldemenean
bazkarien mahai burutan.
Nere ametsa da lokartzea
logopedaren kontsultan.

BARAKALDO

(2020-01-24)

Bertsolariak
J. Maia – J. Uria

Kilika Barakaldoko bertso eskolak eta San Bizenteko Jai Batzordeak antolatuta, Sanbiko (San Bizenteko) jaietako afaria. Librean egin zuten bertako garagardotegian.

Gaia: GAI LIBREAN

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Naparruatik ardo karraio A*

J. Maia – J. Uria

J. Maia
Bereiztu behar ditugu gure
bertso aro eta garai
hogeita hamar bat urte plazetan
igaro ditut eta ai!
Lopategikin kantatzen nuen
Lazkao Txikikin ere bai
ta asko maite nituen baina
ez nun beraiek izan nahi.

J. Uria
Beraiek beraz izatekotan
ez zenuen aski interes
eta oroitu naiz Lopategiz
hizketaz hasi zarenez
Bizkaia osoan fama izan du
eskola lanean berez
Algortaraino ailegatu zen
baina ezker aldera ez.

J. Maia
Beraien euskera itxiakin
egiten zidaten solas
nik nere euskera plastikozkoan
berriz banun nahiko jolas
referentziak haundiak ziren
eta ez txarrak inolaz
baina nik referente nituen
Evaristo ta El Drogas.

J. Uria
Erreferente desberdinekin
aurrerantza hiru pausu
baina lehenago esandakoari
ere egin diot kasu
ustez plastikozko euskararekin
nonbait ibili zara zu
ez zaitezela negarrez hasi:
euskalkia badaukazu.

J. Maia
Baina ez nuen hori etxean
egunero berriketa
eta gainera hain desberdina
nuen nire silueta
bertsotara joateko etxean
egiten nuen koleta
baina ondoren utzi ohi nuen
niki azpian gordeta.

J. Uria
Egia esan ez dut ikusten
gaurko eskaparatean
baina garaia ez duzu izango
memorian, apartean
beraz koleta ezkutatua
lotsatan zure kaltean
ez zaitut ondo imajinatzen
sagardotegi batean.

J. Maia
Sagardotegia *ghetto* bat zen
han ezin ezer itxaron
igual saioa jartzen ziguten
mendi auzoan, edonon
koletarekin disimuloan
igual hara joaten zen Jon
baina gero afari horretan
neska bat ere ez zegon.

J. Uria
Neskarik ere ez zegoela
pentsatuta *mekaguenla!*
Egia esan ez zen izango
panorama bat itzela
zuen koleta, belarritako
eta kantatuz bestela
egia esan eskerrak dena
aldatuko zenutela.

J. Maia
Sukaldean ikusiko zendun
orduan neska bakarra
publikoa dena zen rurala
ta dena baserritarra.
"Belarritako dun mutil hori
martzianoa ta makarra".
Bueno ta ja ez dizut esan nahi
neska eta bizkaitarra.

J. Uria
Garia horretan ez Twiter, Facebook
ez Internet eta ez *like*
dena izango zen a grosso modo
ezer ez zen egiten *light*
neska bizkaitar bat ezinezko
deskribatu duzu nonbait
egia esan bertsolaritza
uzteko gogoa sartu zait.

J. Maia
Patxarana eta Farias ziren
bertsotarako lizentzi
hori kontsumitzen ez bazendun
ene zenbat diferentzi!
Gero bi orduz konbertsazio
alimalizkoei eutsi
nik ere uztea pentsatu nun
baina ez nuen inoiz utzi.

(tabernako musika entzuten da)

J. Uria
Ez zenuela utzi eta ordutik
pasa da urte ilara
sagardotegi batean behintzat
musika ez zen han traba
baina guzia kontatu ondoren
hemen bertatik bertara
lehenago ez nuen pentsatu baina
superviviente bat zara.

LATASA

(2020-01-25)

Bertsolariak
M. Lujanbio eta J. Soto
Gai emailea
Xabier Iturriotz *Zapa*

Plazaola geltokiko ostatuan egin zuten bertso afaria. Librean eta gaiekin aritu ziren bi bertsolariak.

M. Lujanbio - J. Soto

Gaia: Pisukideak zarete. Zu, Julio, gauean lo hartu ezinik zabiltza eta egongelara abiatu zara. Maialen sofan dago, eta hankatartetik eskua ziztu bizian ateratzen topatu duzu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

J. Soto
Batzutan lo hartzea
zail dela jakinda
desesperatuta altxa naiz
hankei eraginda
ta sofan topatu det
pastelaren ginda.
Zer, zu ere al zaude
lo egin ezinda?

M. Lujanbio
Beti leku eman behar
insomnioari
zuk lo egin ezinda
besteeri adi
ba hemen neuzkan ba nik
sentipen ugari
zu hankei eragiten
ta ni eskuari.

J. Soto
Ta bi gauzak uztartzen
ez dago erreza
ni insomnioarekin
badudan laineza
baina zuk zer daukazu
nere interesa
lo egin ezina edo
lo egin nahi eza?

M. Lujanbio
Gehiegi jakin nahia
txar izaten da maiz.
Horrenbeste galderak
neri egiten dit gaitz
berotzen ari nintzen
nere hatzaren gaiz
baina zu ikusita
izoztu egin naiz.

J. Soto
Ohatzean bueltaka
nengoen etsita
ordu biak zirela ta
ezin sinetsita
eta izoztu zaitut
hona iritsita
zu lasai, egongo naiz
begiak itxita.

M. Lujanbio
Begiak isterikan
ezin det kalkula
badakit non bukatzen den
gaurko pelikula
bero nengon ta bajau
egin zait brujula
pentsa logura ere
sartu didazula.

J. Soto
Ni kuartoan nengoen
estu eta larri
ta zuk berriz behatza
zure gozagarri
mundua atzekoz aurrera
ipintzen da sarri.
zuri logalea sartu
eta ni itzarri.

M. Lujanbio
Ni logurak nagona
ta zu berriz piztu
ohean tragatuta
horrenbeste listu
ezin zenuen lo egin
eta zeunden istu
hau bururatu ez zaizunik
ezin dut sinistu.

J. Soto
Ba ez zait bururatu
egidazu kasu
ni iniziatibatik
nabil nahiko baxu
gorputza relajatzen
abila zara zu
eta funtzionatzen badu
erakuts idazu.

M. Lujanbio
Hau da bakarkako lan
fina ta petoa
norberaren plazera
berdingabekoa
beste bati erakusten
ez da hastekoa
ze beste zera bat da
biren artekoa.

J. Soto
Baina biren artekoan
puzten da puxika
ta nik konfidantza hartzen dut
gutxika-gutxika
zuk segi ezazu sofan
zera igurtzika
ta ni erlajatuko naiz
zu zeu ikusita.

M. Lujanbio
Gizonak izan ditut
lehen ere gertuko
zenbait ataskatuak
gaur zure moduko
neri begira jarrita
egiten det uko.
Hiru edo lau gauetan
ez du lo hartuko.

M. Lujanbio

Gaia: Duela urte pare bat alargun gelditu zinen eta oso bolada txarra pasatu ondoren, bizitza behin bizitzen dela eta ahalik eta gehien aprobetxatu nahi zenuela erabaki zenuen. Eta bidaiatzen hasi zinen. Benidorm, Argentina, Erroma... Ahalik eta toki gehienetan egon nahi duzu. Gaur auzokide batekin topo egin duzu eta bera gaiaz hizketan hasi eta zera bota dizu: "Ederki bizi zara azkenaldian".

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena I*

M. Lujanbio

Alarguntzea bada
nahikoa lubizi
nahikoa desgrazia
eta barne krisi
baina beira munduko
horrenbeste gauzi
ta erabaki beharra
daukazu lehenbizi
minean bizi ala
minarekin bizi.

Ta minarekin bizi
hautatu nuen bai
ondo egoten saiatu
nahiz beti ez den jai
bidaiatu, ikusi
ta gozatu nonahi
lortu dut nik barru hau
eukitzea lasai
bera ahaztu dudanik
ez du horrek esan nahi.

Bilakatu naiz neure
denboraren jabe
helburu pasatzea
mundua goi ta behe
pozik nago nahiz izan
nahikoa edade
ta zoriontsu nago
alargunduta're.
Zu triste bizi zera
alargundu gabe.

PASAIA

(2020-02-01)

Bertsolariak
A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Martin, A. Labaka, O. Iguaran eta On. Enbeita
Gai emailea
Amaia Agirre

Bixi-Bixi Elkarteak antolatuta, Juanba Berasategi auditorioan.

On. Enbeita– A. Martin

Gaia: Askotan hitz egin dugu oholtza gainean, ahots bat, jarrera bat, egoteko modu bat eta gorputz bat ere bagarela. Zuek nola uste duzue entzuten eta ikusten zaituztetela entzuleek? Zer da jasotzen duena, zer da ikusten duena? Eta zein uste egiaztatu eta zein iritzi gezurtatu nahi dituzue?

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

On. Enbeita
Ze *garbo* eta ze *kaña*
Onintza beti barreka.
Pazientzia handikoa
lasaitasuna kolpeka.
Neska alaia, neska zabala
alaitasunez beteta.
Ez dakizue zenbat beneno
dudan barruan gordeta.

A. Martin
Pozoina senda liteke
antzemanez gero garaiz.
Ni berriz harro bezela
ere hartu ohi naute maiz
neure lekuan ta horren tinko
horren izotz, horren harkaitz.
Baina egia aitortzekotan
flan deskonstruitu bat naiz.

On. Enbeita
"Beti dabil besteei
sentipenak eragiten.
Honek horrenbeste gizon
baietz izan irakiten
aukeran hartu, aukeran bota
larru-aldi ta bizipen".
Baina ederto ikasi dut ja
bakarrik ere egiten.

A. Martin
Zertarako pintatzen da?
Ta beti ezpainak karminez
ta beti konbinatuta
ta begiekin urdinez
ta beti ziur eta *txaposa*
artikulutan mitinez.
Ni egunero nago seguru
baina gauza desberdinez.

On. Enbeita
Takoiak ta koloreak
nun dago bada problema?
Ile kolorea *fuera!*
Zein ote zuen azkena?
Itxura baten ikusi leike
konplexurik ez duena.
Ikusezina ez izateko
estrategia da dena.

A. Martin
Ze iritzi, ze jarrera
ze aldarte politikaz?
Hitz eginda pertsonalki
alde gogor zein politaz.
Baina aspaldi nazkatu nintzen
epaiaz eta kritikaz
ta aspaldi ez zait asko inporta
ze esango duzuen nitaz.

On. Enbeita
Inori kasu ez egin
ta bizi leike hobeto
baina begi asko daude
denei ihes egiteko
nik Alaiari esaten diot
ahal dudanero "Ederto!"
Nik horrelaxe maite dudala
ta inoiz ez aldatzeko.

A. Martin
Ta Onintza ze energia
mikroan zenbat botere!
Nahi duena defendatzen
beti sendo, beti trebe.
Eskerrik asko Onintza badut
zuregan behar beste fede
eta ondoan izango nauzu
aldatzen bazara ere.

A. Arzallus

Gaia: Amets, duela dozena bat urte, Hitzetik Hortzeran lanean ari nintzenean, emakume bertsolarien inguruko programa monografiko bat egin genuen. Dozena bat emakume elkarrizketatu nituen eta tartean hiru gizonezko. Gure adin kide samarra den bertsolari batek hala esan zidan momentu batean: "Nik ez dakit asteburuero karteleko gizon bakarra izango banintz nola eramango nukeen. Ez dakit nola biziko nukeen egoera…" Amets, gaur zuri egokitu zaizu gisa horretako egoera bat. Zer gertatzen da proportzioak aldatzen direnean? Desberdin ikusten dira gauzak?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

A. Arzallus
Nik ez dakit nork esango zizun
nahiago ez gogoratu
nahiz ez dudan nahi neure bururik
debaldetan ohoratu
ez eta gauza ustekabeko
malizi bat ahoratu
baina egia esango dizut
gaur bakarra neu tokatu
eta zuk esan didazun arte
ia ez naiz konturatu. (bis)

Sinpleegia litzake baina
hola uztea anitzetan
kartelak sarri kolpa gaitzake
bere kalba bortitzetan
eta gaur ile luze gehienak
nahiz neu ez egon luzetan.
Baina gizon ta emakumea
aldatzen da baldintzetan
nik ez nuke nahi aldatzerikan
neure bertso ta hitzetan. (bis)

Maialenekin mila alditan
kantatu eta ondu
Onintzak bere naturaltasun
indar hortan nau sakondu
Anerekin ta Oihanarekin
beti ongi naiz konpondu
Alaia ere lagun hurbil dut
eta kantukide modu
ta Amets ere ez da mutil soil
bientzako balio du. (bis)

Bakarkako bat jartzen diate
ta abiatzen naiz airean
jakinik gero lur hartu behar
dudala toki librean.
Gai honek badu bere mamia
gaur nere adibidean
erantzun diot inprobisatuz
ta aski modu singlean
gero bi buelta emango'izkiot
nere etxera bidean. (bis)

BILBO

(2020-02-02)
Bertsolariak

A. Iturriotz, O. Bartra, J. Illarregi eta A. Labaka
Gai emailea
Uxue Elgorriaga

Zazpi Katu Gaztetxearen urteurrenean egindako jaialdia.

A. Labaka – A. Iturriotz

Gaia: Greba Orokorrean zaudete. Zu Ane piketean zaude goizean eta kaleak pasatzen ari zarela ikusten duzu egunero gosaltzen duzun taberna irekita dagoela. Urteak daramatzazu taberna horretan gosaltzen eta harreman sakon bat sortu duzu bertako langilea den Amaiarekin.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ludi bizitza abesti gogoz*

A. Labaka
Orain artean hausnartu degu
nagusiez eta elitez
elkarrizketa sakonak ziren
ia ia elkar maitez
orain buruan dauden zalantzak
Amaia argitu bitez
aurrekoetan itxi zenuen
oraingoan zergatik ez?

A. Iturriotz
Zuk badakizu egin izan dut
mila greba eta piku
nekatu ere egiten da bat
eta ez zait iruditu.
Grebari buruz atzo gosaltzen
gu luze ginen aritu
saiatu zinen azaltzen baina
ez ninduzun konbentzitu.

A. Labaka
Azkenaldian prekarietatez
irauli gaitu galernak.
Nik sinisten det, alda daitezke
gizarte honen eskemak.
Zuk egin dezu gauza normal bat
aurrera darrai sistemak
baina pertsiana itxita dauka
zure ondoko tabernak.

A. Iturriotz
Nerea ez da negozio hau
ta bazenekien jada.
Kate bateko kafetegi da
nahiko famatua, hara!
Greba egiten ez naiz ausartu
barruan daukat ikara
kaleratzean arrisku hori
kontrol mekanismoa da.

A. Labaka
Mekanismoak ugari dira
ta hori badaki nornahik
baina nik behintzat izan nahi nuke
gaur koherentea, norbait.
Lehen Eskirolak! oihukatu det
hitz hori botaz nolabait
baina zugana hurbildutakoan
eztarrian trabatu zait.

A. Iturriotz
Hemen gustora egoten zara
ta zu kruasana jaten
oihu egidazu ta egin lasai
neri egiak esaten
nere jarrerak nahiz eta ahul
planta eduki dezakeen
ideologia batzutan zail da
praktikara eramaten.

J. Illarregi – O. Bartra - A. Labaka – A. Iturriotz

Gaia: Basamortu baten oporretan zaudete Amaia, Joanes eta Ane. Bat-batean lanpara bat topatu duzue, igurtzi eta Oihana jeinua atera da. Beraz, Oihanari desio bat eskatu behar diozue bakoitzak.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

J. Illarregi
Lanparatxo bat aurkitu dugu
itxuraz zegoen hutsa
baina igurtzi ta jenio bat
hemen eskaintzen laguntza.
Hala zait iruditu
betiko hemen gelditu
hemen ongi dut gorputza
zeren honera ez da iritsiko
inoiz Koronabirusa. (bis)

O. Bartra
Hona oporretan etorri zara
eta ez derrigortua
horrexegaitik ipini duzu
espazioan fokua
lasai etorri hona
ta ipini korona
eta geratu lotua
azken batean antzeko dira
Leitza ta basamortua. (bis)

A. Labaka
Azkenaldian aldagaitza da
Euskal Herriko eskema
diskurtsoetan ez dira onak
nahiz prest daukaten eszena.
Boterean orube
beti hor PNV
eskatzen hasita dena
nik lehendakari bat nahiko nuke
rimatzen zaila ez dena. (bis)

O. Bartra
Basamortura egin dituzu
zuk gustura hainbat txango
baina ez duzu maite Urkullu
robotak eta Durango.
Ta beste lehendakari
bat duzula nabari
rimatzen erreza, ondo!
Baina orduan Oihana Bartra
ez da sekula izango. (bis)

A. Iturriotz
Oporretara etorriak gu
basamortu gordinean
Instagrameko originalak
izate ahaleginean
bero egiten du ta
ni nago nazkatuta
egunak joan heinean
etxera eraman al nazakezu
alfonbra baten gainean? (bis)

O. Bartra
Desertuakin euki zenuen
horrelako engantxea
baina oin bero omen zarela
eta zelako *batxea!*
Orain nirekin zorra
ta nahi duzu alfonbra
a ze nolako trantzea!
Gero etxean baietz eskatu
berriz hona bueltatzea. (bis)

BILBO

(2020-02-08)
Bertsolariak
M. Lujanbio, M. Artetxe eta U. Iturriaga
Gai emailea
Maite Sarasola

Deustun duela hiru urte sortutako dinamikari jarraiki, irailetik otsailera bitartean hainbat bertso saio antolatuko zituzten Elorri Bertso Eskolak eta Herriko Tabernak elkarlanean. Honako hau bertso bazkaria izan zen Aferak ekimenaren barruan.

M. Lujanbio - M. Artetxe

Gaia: Hiru etiketa eta galdera bat: emakumea, euskalduna eta feminista. Hiru aldiz errebelde, hiru aldiz zorioneko edo hiru aldiz zapalduak?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

M. Lujanbio
Emakumea jaiotzea nahiz
izan litekeen kaltera
zorioneko sentitzen naiz ni
ta txarrik ezin atera
ta feminista eta euskaldun
ez dauzkat ez apartera
zoritxarreko, zorioneko
ta guztiak bat batera.

M. Artetxe
Feministaz gain euskaldun ere
egin gaitu gure lurrak
muturrekoak jasota ere
gogortzen dira muturrak
ta zoriona ezkutatzen du
atzekaldean beldurrak.
Hirurak dira egiak eta
hirurak dira gezurrak.

M. Lujanbio
Zorioneko izan zaitezke
edota patu beltzeko
pribilegioak faltan eduki
edo aukeran kentzeko.
Gauza askotan auzoko zara
beste batzutan etxeko
zentzu batzutan ardatzeko ta
beste askotan ertzeko.

M. Artetxe
Ta ertzekoa zail da gorpuzten
hori badakizu zuk'e
eskubideak aldarrikatzen
kaleetan zenbat urte
ta ze mespretxu jaso litekeen
gure izendapenen truke
baina berriro jaio ezkero
berriz halaxe nahi nuke.

M. Lujanbio
Andre bezela, euskaldun gisa
ezin zara sofan etzan
beti borroka egin behar duzu
eskubideen defentsan.
Eta borroka suerte bat da
hala ulertzea hobe zan
bizitza hontan sufriu detenik
ere ez nezake esan.

M. Artetxe
Azal zuria daukazulako
nahiz ta izan beltzarana
ez zarelako zure herritik
atzerritara joana.
Pribilegiatu ere bagara
gugan ez baita ertz dana
baina hurbildu egiten gaitu
ertzekoagoengana.

M. Lujanbio
Ertzeko hoien artean zuri
hona pasteleko ginda
ze gu ez gara periferiko
periferikoik baldin ba
azken boladan debate bat dut
Miren irentsi ezinda
euskaldun eta pribilegiatu
lerro berean ezin da.

M. Artetxe
Bai holakoak entzuten dira
hemen azken boladetan
kolonialista ere izan ginen
azken jardunaldietan
ni ere nahiko aspertua naiz
kontu horrekin benetan
euskaldun bai ta pribilegiatu
bi lerro ezberdinetan.

M. Artetxe

Gaia: Gaur gauen ez duzu lorik egin. Asko jota ordubete. Zer pasatu da? Zure ondoan bizi direnak zarataka ibili direla. Gau osoan geratu barik. Ezin izan duzu lorik egin.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

M. Artetxe
Ja neka-neka eginda nengon
eta oherantza zuzen
baina zaratak aditu eta
ai zer pasatzen da hemen?
"A, a" ta "o, o" entzuten nuen
pareta ertzetik ozen
eta eskuak belarritara
eraman nituen ezen
berez ez ziren borroka oihuak
zoritxarrez plazerra zen. (bis)

Hormaren kontra kanka ta kanka
gauerditan zenbat saio!
Jo, hauek zenbat irauten duten
ordu erdi, ze arraio!
Berez nik ere izan nahi nuke
larrutan halaxe iaio
baina banoa tapoiak jantzi
almohada hartu ta aio.
Baina hau ez da insomnioa
inbiria esaten zaio. (bis)

Ordubete bat ia joan da
ze luzea den denbora!
nere odola ere hanketatik
pixkanaka doa gora
aldameneko bizilaguna
gaur egongo da gustora
baina zuek lasai bihar edo etzi
norbait ekarri ondora
ta mendekua hotza ez ezik
beroa ere izango da. (bis)

Bertsoa sutan, sukaldaritza bertsoen bidez. Hernani. Gipuzkoa. 2020/10/17. XDZ

LASARTE-ORIA

(2020-02-08)

Bertsolariak
U. Alberdi, A. Labaka eta M. Lujanbio
Gai emailea
Iñigo Astiz

Urteroko ohitura bihurtu da bertso saio literarioa egitea Lasarteko Xirimiri Elkartean. Iñigo Astiz idazle iruñearrak gidatu zuen aurtengoa.

A. Labaka – U. Alberdi

Gaia: (Poema batetik abiatutako gaia) Duela 13.660 urteko bi ultzamar zarete. Egun aspergarri samarra pasa duzue ez ehiza, ez arrantza, ez jan, ez ezer. Egun prehistoriko motel-motel bat. Eta zerbait egitearren, hor hasi zarete lurrean topatutako harri batean marratxo batzuk egiten. Kasik konturatu gabe, asperdura hutsez, hor non sortu duzuen Europa mendebaldeko maparik modernoena. Sasoiko azken teknologia. Eta zuen arteko eztabaida ez da mapa norentzat egin duzuen eta zertarako egin duzuen, baizik eta ea bietako nork egin duen. Hau da, norena den copyrighta.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

A. Labaka
Ondo markatu ditut
maparen izkinak
dena argi izateko
jende ezjakinak
ta copyrighta nahi du
Uxue sorginak
azpimarratu ditu
nik aurrez eginak. (bis)

U. Alberdi
Zurea edo nirea
a ze sesioa!
"Gurea" ez zazu esan
eutsi presioa
ez da Txakur Gorrien
inspirazioa
ez da horraino iritsi
eboluzioa. (bis)

A. Labaka
Zenbat sor dezakete
bi harri harrituk
hau aipatuko dute
hainbeste adituk
nahiz ta guztia bota
oraintxe irri truk
ospetsu naizenean
aipatuko zaitut. (bis)

U. Alberdi
Baina Harri Aro hau
horren da zabala
biontzako lekurik
balego oxala!
Berdin bat kopiatu dut
lehengoa bezala
ta orain zein da kopia
ta orijinala? (bis)

A. Labaka
Orijinala nahiz ta
berez hala nintzen
dena azaldu arren
zail da entenditzen.
Jabetza nerea da
nahikoa argi zen
hemen ahizpatasunik
ez da existitzen. (bis)

U. Alberdi
Hau da hil ala bizi
biok xehe-xehe
bakoitzaren talentu
bakoitzan botere
baina arazo bat dugu
ta ez da mesede
izenik ez dugula
sinatzeko ere. (bis)

SENPERE

(2020-02-09)

Bertsolariak
U. Agirre, A. Arzallus, S. Colina, I. Elortza, B. Gaztelumendi, M. Lujanbio, A. Mendiluze eta A. Sarriegi
Gai emailea
Aritz Bidegain

BECtso saioa Txapelketa Nagusiko finalistekin egiten hasi zen Seaskaren alde Baionan. Azken bi urtetan Senperera ekarri dute, Larreko aretora.

B. Gaztelumendi - A. Mendiluze

Gaia: Hamar urteko futbolari ttipia zara Beñat. Larunbatero joaten zara jokatzeko esperantzarekin. Baina ez zara biziki trebea futbolean, ez zara biharko Messi, eta ez duzu sekula minutu bat bera ere jokatzen. Aldi honetan, erabaki duzu Aitor zure trebatzailearengana joatea horren aipatzeko.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

B. Gaztelumendi
Metro ta hogeita hamabost
eta zenbat hesi!
Jostaketan ninduten
gurasoek hezi
ikusi dizkidazu
nahiko ahulezi
nahiz ez naizen Cristiano
nahiz ez naizen Messi
saiatzeak ez al du
saririk merezi? (bis)

A. Mendiluze
Zerbait merezi dezu
saiatzeagatik
ta jokatu nahi dezu
badakit, badakit.
Baina ez zaitut jartzen
ta hara zergatik
lezio bat ikasi
dezazun hontatik
itxoiten jakitea
taldearengatik. (bis)

B. Gaztelumendi
Taldearen barruan
ze ekaitz, ze laino
nahiz besteen aldean
naizen nahiko ñaño
taldearen barruan
heldu naiz honaino
minutu bat ere ez
hori latza da ño!
Traumatik gehiago du
leziotik baino. (bis)

A. Mendiluze
Nik ez daukat asmorik
inor zapuzteko
baina bai gauza asko
zuri erakusteko
pazientzia behar da
behin markak hausteko
horregatik nahiz kapaz
zu hemen uzteko
benetan zenbat gogo
dezun ikusteko. (bis)

B. Gaztelumendi
Irailean horixe
esaten zenidan
hogei entrenamendu
joan dira segidan
eta ni beti hortxe
aulkiaren jiran
azkenak goaz kopan
ta azkenak ligan.
Ni ez naiz Messi, baina
zu`re ez zera Zidane. (bis)

A. Mendiluze
Ni ez naizela Zidane
dakartzu ahora
baina badakidala
hona hemen froga
zuk jarraitu etortzen
besteen ondora
neketik etortzen da
noizbaiten mejora
ta noizbait norbait ere
lesionatuko da. (bis)

B. Gaztelumendi
Ez dut nahi lesiorik
inork eranstea
bakarrik galtza motzak
astero janztea.
Nik larunbataren zain
eman dut astea
baina erabaki dut
behingoan ahaztea
futbola utzi eta
bertsotan hastea.

A. Mendiluze
Beraz, aldatu egin
nahi dezu papera
ta bertsotan hastea
da zure aukera.
Igual ez da onena
esate batera
han ere aulkian egon
normala ote da?
Denbora guztian zai
ia noiz atera. (bis)

Bertso-barnetegia Gautegiz Arteaga. Bizkaia. 2020/2/14. XDZ

IRUÑEA

(2020-02-15)

Bertsolariak
J. Soto eta S. Colina
Gai emailea
Mikel Beaumont

Errotxapean, Ipar Gorri elkartean, bertso afaria.

J. Soto – S. Colina

Gaia: Igande goiza da, eguraldi bikaina eta Julio Takonera parkera joan da paseatzera bere emazte eta haurrekin. Bertan, duela hogeita bost urte ikusten ez zuen Sustrai, garai bateko gelakidea topatu du. Sustrai beste lau gizonekin mugikor aplikazio batekin Pokemonak harrapatzen dabil.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

J. Soto
Igande goiza eta
zeruertza garden
andre ta umeekin
gu etorriak lehen
ta hara ze sorpresa
hor Sustrai dena den
nahiz ta azken alditik
pasa mende laurden
ez nago ziur nitaz
akordatzen zaren. (bis)

S. Colina
Zara lehen lerroan
eseri ohi zena
aprobatzen zuena
notarekin dena
irakasle guztien
kuttun kuttunena
gaur berriz familiko
aitatxo gorena
bihurtu zara zutaz
espero nuena. (bis)

J. Soto
Bai bigarren txikia
jaio da oraintsu
gauez bare-bare ta
hurrena ai ze su!
Zu ere gelan zinen
azterketen maisu
sozializatzen zinen
guztiekin aizu!
Ta orain Pokemonekin
zer gertatu zaizu? (bis)

S. Colina
Zuk familiarekin
ohitura kunplitu
ta umeei jaten eman ta
oreinez kupitu
nik mugikorra piztu
ta pista segitu
hor nabil Pokemonak
ezin errenditu
hemen bakoitzak bere
desgraziak ditu. (bis)

J. Soto
Nahiz eguzkia izan
denon zutabea
munduan zenbat mundu
dagon goi ta behea
zuk Pokemon bakarra
nik ume parea
nahiz batetik bestera
badagon aldea
hemen bakoitzak bere
realidadea. (bis)

S. Colina
Pokemonekin nabil
nerbioso xamarrik
ez didate egiten
ez onik ez txarrik
nahiz ta berez ez dudan
nik euren beharrik
ta zuk ez dezun falta
ez andre ez haurrik
Julio ikusten zaitut
ni bezain bakarrik. (bis)

J. Soto
Sarritan badakizu
pixkat urrunago
mundua ikusteko
errezago dago
lehenago ezagutu
baininduzun frango
nola sentitzen naizen
bihotz eta zango
ez, ez nago bakarrik
edo igual nago? (bis)

S. Colina
Hara nere eskaintza
ta proposamena
aldatzeko eskema
aldatzeko dena
emaztea ta haurrak
utzita aurrena
etor zaitez nerekin
parkean barrena
behingoz egizu zutaz
espero ez dena. (bis)

Arabako Bertso Kuadrila Artekoa. Aramaio. Araba. 2020/1/24. XDZ

ARRASATE

(2020-02-26)

Bertsolariak
O. Iguaran, N. Ibarzabal eta U. Alberdi
Gai emailea
Danele Sarriugarte

Emakume Txokoak *Kontrako Eztarritik* liburua ardatz hartuta bertso saio literarioa antolatu zuen Arrasateko Kulturate gunean. Saioaren ostean solasaldia egon zen.

O. Iguaran – N. Ibarzabal – U. Alberdi

Gaia: Liburuan atalak daude, eta ataletako bat da itxuragatik epaituak izateak mugatzen duela bertsolarien jarduna. Eta askotan aipatzen dute bat baino gehiagok. Horregatik ez dut ekarri pasarte zehatzik nola asko pentsatzen duten zer jantziko ote duten edo zer itxurarekin joango diren saioetara. Orduan, Uxue, zuk bihar bertso saio bat daukazu, oso garrantzitsua dena zuretzat. Eta ez dakizu zer jantzi eta ispiluaren aurrean zaude daukazun guztia probatzen. Ondoan, albo banatan aholkulari dituzu "askatasuna" Oihana eta "beldurra" Nerea.

Neurria: Lauko txikia
Doinua: *Hona bildots eztia*

O. Iguaran
Hobe kentzen badezu
ileko gantxoa.
U. Alberdi
Baina egina daukat
puntetan lantxoa.

N. Ibarzabal
Gona hori ez al da
pixka't laburregi?
U. Alberdi
Ja nere edadean
hau ez da gehiegi.

O. Iguaran
Egin zazu kresta bat
puntak luzitzeko.
U. Alberdi
Señorita antzean
ez al nago hobeto?

N. Ibarzabal
Zuzendu behar zenuke
gorputzan postura.
U. Alberdi
Ez al zaizu gustatzen
ba daukadan hura?

O. Iguaran
Gona moztuko nuke
ta mediak kendu
U. Alberdi
baina negu partean
hotza egiten du.

N. Ibarzabal
Hemendik bigotea
nabaritzen zaizu.
U. Alberdi
Ostra ba bista galtzen
hasia naiz, aizu!

O. Iguaran
Hankak ez depilatu
ta akabo hotza
U. Alberdi
orduan ikusiko
didate kokotxa.

N. Ibarzabal
Lehendik asko da zutaz
esaten dutena.
U. Alberdi
Ba hortan pentsatzea
ez al da txarrena?

O. Iguaran
Berdin esango dute
egin nahi dezuna.
U. Alberdi
Ez dakit nor den etsai
eta nor laguna.

N. Ibarzabal
Hasierako agurra
pentsatu al duzu?
U. Alberdi
Beti hori pentsatuta
joaten da Uxu.

O. Iguaran
Hobe txutxumutxuei
motiboak eman
U. Alberdi
Horrela sortzen baita
hamaika harreman.

N. Ibarzabal
Ta belarritakorik
ez al duzu jartzen?
U. Alberdi
Zuloa itxi zitzaidan
ta ez dut behartzen.

O. Iguaran
Beharrezkoa al da
sujetadorea?
U. Alberdi
Bolumena egiteko
niretzat hobea.

N. Ibarzabal
Ezingo zara joan
ba pezoiak bistan
U. Alberdi
bestela begiradak
horrantza irristan.

O. Iguaran
Oso beltza zoaz ta
margotu ezpainak
U. Alberdi
begiratu egingo dit
Andoni Egañak.

N. Ibarzabal
Begiak ere gehitxo
pintatu dituzu
U. Alberdi
politak dauzkat eta
egiten dut usu.

O. Iguaran
Eskuineko ahots hori
tatxatu ezazu.
U. Alberdi
Batzutan eiten diot
nere kalten kasu.

N. Ibarzabal
Ez zaitezela fio
alboko horrekin
U. Alberdi
gaur eraman behar dut
saiora nirekin.

O. Iguaran
Ba Egañak hau dana
ez zun pentsatuko
U. Alberdi
hark txamarra bat jantzi
irten eta punto!

N. Ibarzabal
Baina zu ez zarenez
Andoni Egaña
U. Alberdi
bertsotan egin beharko
degu berak aina.

O. Iguaran
Zauden bezela ere
oso ondo zaude
U. Alberdi
beraz hobe nengoen
galdera egin gabe.

O. Iguaran – N. Ibarzabal

Gaia: Zuek biak bertsolariak zarete, bertsokideak. Nerea, zu, neska zara, eta Oihana mutila. Betidanik ezagutzen duzue elkar eta elkarrekin joan zarete bertso eskolara, gero Eskolarteko Txapelketan ibili zarete, eta zuen bertsotarako errutina guztia elkarrekin egin duzue. Azkenaldian egia da ez zaretela sarritan topatzen, baina zuk Oihana interes handiarekin irakurri duzu zer kontatu duen Nereak *Kontrako eztarritik* liburuan. Eta ezagutzen duzu gainera zure burua bera kontatu ditudan gauza batzuetan. Hori dela eta, berarengana jo duzu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Seme ezarri bainauk*

O. Iguaran
Liburua hartu nun
letzeko promesan
baina irakurtzean
ikusi naiz kexan
zu minez bete-bete
nola zaudenez han
nola kontatu dezu
irakurri nezan
eta aurretik nolaz
ez zenidan esan? (bis)

N. Ibarzabal
Irakurri al duzu
dena xehe-xehe
bertan zeure burua
aurkitzea xede
ta antza denez ez du
honek ein mesede
zentzu hortan zalantza
egiten dut nere
ulertuko zenukeen
esan banu ere (bis)

O. Iguaran
Baina irakurrita
ez denez berdina
ulertuko nun nere
lagun ez bazina
ez nuen esperoko
neukan eragina
eta zuk kontatuta
eman dezu zina
ta mingarri egin zait
sortu nizun mina. (bis)

N. Ibarzabal
Hainbeste urte batera
batekoz besteko
bertso eskolan, plazetan
kantuan hezteko
muga batzuk geneuzkan
batera hazteko
liburua hartu dut
nire hitzak jazteko
hau zen nire modua
kontatzen hasteko (bis)

O. Iguaran
Ta abiatu zara
ahal zenuen eran
liburutik zabaldu
da guztia hegan.
Lagungarri bazaizu
nigatik primeran
orain zuk kontatzea
nahi nuke aukeran
ta batez ere nola
lagun dezakedan (bis)

N. Ibarzabal
Aukera asko daude
hortan banan bana
gardentzen hasi dadin
gure harremana
batzuk liseritzeko
hartu dute lana
ta eskertzekoa da
benetan Oihana
gutxienez galdera
zeuk egin izana. (bis)

O. Iguaran
Igual nahiko berandu
heldu naiz hala're
baina izan nahi det nere
arduraren jabe
ta jarrera aldatu
xuabe-xuabe
ondoko kide izan
eta ez zutabe
lehen erantzuten nizun
zuk galdetu gabe. (bis)

N. Ibarzabal
Oin erantzungo dizut
beraz gogo doblez
maskararen atzean
ezkutatu ordez
zuk jantzi dezakezu
plaza bat kolorez
zeure arduratzat hartuz
gai den hau adorez
ardura gabe plazan
ni egon edo ez. (bis)

N. Ibarzabal

Gaia: Onintza Enbeitaren testigantza: "Neskazahar alegera bat eraiki dut gorputz ez desiratu gisa irakurria izatearen minari aurre egiteko. Neskazahar alegera bat eraiki dut, hortik neure buruari barre egiteko ez dudalako biktimista edo haserre edo ahul azaldu nahi, ez digutelako uzten biktimista haserre edo ahul azaltzen". Nerea, zuri galdetu nahi nizun jendaurrean aritzeko ea zer maskara eraiki dituzun eta noiz diren muga, noiz izan diren lagungarri.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Arratsalde on eta muxu bat*

N. Ibarzabal
Sarri koraza bat eskatzen du
bertso-munduan oihanak
ez daitezela asko ikusi
zauriak eta orbanak.
Oholtza gainean izan ditzaket
ume alai baten famak
sarri horrela definitu nau
kideekiko harremanak.
Baina berez ni hain perfekzio
bilaketan nire lanak
entzun behar dira neure buruai
esaten dizkiodanak. (bis)

Nola atera oholtza batera
ta paparra nola bete?
Sarri maskaren aukeraketa
ez da ateratzen merke
eman dezaket norbait sakona
ta ileak jarri tente
ze azkenean gure kideak
bezain epaile zarete.
Sarri nahi nuke antzezten dudan
dena kendu derrepente
baina biluzik agertzen banaiz
zaurgarri izan naiteke. (bis)

Ta biluzteko modu posible
bat badenez liburua
hor agertzen da nitaz zertxobait
ta nire barne gudua
lurrikaratsu dira lur hauek
ezer ez da segurua
soka gainean eraikitzen da
bertsolarien mundua
nik nahi nukeena da ahalik gertuen
sentitzea ingurua
ta inoiz ere ez engainatu
ez zuek ez nire burua. (bis)

LEGAZPI

(2020-02-28)

Bertsolariak
A. Mendiluze eta N. Elustondo
Gai emailea
Jone Narbaiza

Bertso-Olariak, Legazpiko bertso eskolak, beste behin antolatu zuen lagunarteko bertso afaria. Laubide jatetxean.

A. Mendiluze - N. Elustondo

Gaia: Erakutsi denei dauzkazuen giltzak eta giltzei kantatu beharko diezue.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

A. Mendiluze
Patrikan giltza bakarra daukat
ta kotxearena, aizu!
Baina halere bide polita
akaso jarri didazu.
Gaur behera, bihar gora
saiotikan saiora
aspaldi nabil jo ta su
ta aspaldian kotxea baino
kasik etxea zera zu. (bis)

N. Elustondo
Nahiz eta nire giltzei begira
dagon aurreko jendea
nahiz eta giltzek ematen duten
nonbait, noizbait, boterea.
Donostik ze glamourra
urre prezioan lurra
ta han bizi da Nerea.
Giltzak nereak izanagatik
etxea ez da nerea. (bis)

A. Mendiluze
Ba nere giltza zuk nahi badezu
zurearekin konpara
nere hau ere zertarako den
ondo asko errepara:
depositoa bete
ta gero joan liteke
agian hemendik hara
kotxea ordaintzen badezu ere
kreditu garestia da. (bis)

N. Elustondo
Beraz kotxean kontuarekin
sarri zabiltza trantzeko
aitortuko det asmorik ez det
nik giltza hori hartzeko
hala're karreteran
fitipaldien eran
nabil esklabu antzeko
ta giltza horrek balio al du
gasolina ordaintzeko? (bis)

A. Mendiluze
Depositoa zabaltzeko bai
ta beti hutsik aurkitu
zer sartzen dedan ez dakit baina
patrikan bai nabaritu
ez neukake gastua
ta poltsa eskastua
nere modua aditu
zure erara hiru herritan
etxeak baldin banitu. (bis)

N. Elustondo
Egia esan bizi naizena
ez da hain etxe berria
eta garbitzen nahiz eta sarri
utzi ohi dedan gerria
gaurko gazteen drama
errepikatzen dana
ezin ulertu urria.
Birena oso garbi daukat nik
zein da hirugarren herria? (bis)

A. Mendiluze
Hanka sartzea espero eta
zalantzatan betirako
baina ze ikusi dexente jarri
dezu nere begirako
horregatik giltzena
horren ez den zuzena
Nerea ez nizun tirako
baina poltsa hortan bazeuden giltzak
Euskal Herri erdirako. (bis)

N. Elustondo
Beraz poltsa hori ikusi dezu
gaurko hontan parez pare
ta esan dezu: "Hau izango da
jabetza askoren jabe"
ezer ez dago baina
pentsatu alajaina!
Gauzak horrelaxe daude
hor dagoenaz egin daiteke
zorion pixka'ten jabe. (bis)

A. Mendiluze
Honetaz ere egin daiteke
zer espero zenuen ba
kapitaleko zuen etxeaz
aritu gaitezen *benga!*
Hiru leiho baditu
ta haietan aritu
balkoira ezin irtenda
baina ganbaran zulo batetik
itsasoa usaintzen da. (bis)

N. Elustondo
Aipatu ditu balkoi ta leiho
nik ez dakit zenbat gela
ta gero berriz, ganbara're bai
normala balitz bezela
berrogei bat metrotan
edo inguru hortan
gu bizi gera horrela.
Aizu, pentsatzen ote dezu ni
Zarzuelan jaio nintzela? (bis)

A. Mendiluze
Lepoko zaina puztu egin zaizu
esan eta berehala
uste al dezu ikusi gabe
utzi egingo dedala?
Berrogei metro juxtu
ta hartan estu-estu
bizi omen zera hala
ta dena denei esatearren
Donostin bizi zerala (bis)

N. Elustondo
Hemen batek dun zulo mordoa
ezin liteke ezkuta
alboko honek puntu debilak
denak hartu ohi ditu ta
baina ni berez pobre
sortua bainaiz hor'e
ta nahiz jardun harrotuta
begira hemengo kremailera're
jada daukat puskatuta. (bis)

A. Mendiluze
Ta hori ere hola irripar batez
lasai botatzen diezu
Nerea holako azal gogorra
nola izan dezakezu?
Eskutan hartu eta
egin dezu bi buelta
ta kremailerakin kexu.
Normala zure txaletan giltza
zintzilik uzten badezu. (bis)

N. Elustondo
Hemen badago nahiko problema
norgehiagokaren ligan
nik ditut kulpak sartzeagatik
gisa hontako aintziran.
Kartera hau hartuta
zuloak azalduta
ibili naiz hemen jiran
ea norbaitek errukitu ta
berria ematen didan. (bis)

A. Mendiluze
Barka gogorra izaten banaiz
mezuetan ta formetan
baina bada zer kritikatua
Donostiako hormetan
dena baita haundia
itxuraz alegia
kapital txiki honetan
gero kartera gastatu zaizu
beti itxaropenetan. (bis)

N. Elustondo
Itxaropena gauza ziurra
delako gure kulturan
gaurkoan ere horixe daukat
juxtu neronek jomugan
Donostia da? Bueno
hortan utziko det *no?*
Baina guztian joskuran
beti hutsik daukat eta ez dakit
nola izorratu dudan. (bis)

A. Mendiluze
Begiratu det eta ez daude
ez hiru txanpon eta ez lau
hutsik erosi zenuen nunbait
eta bere hortan dirau
"Nola hautsi ote da?"
Egin dezun galdera
horrek harritu egin nau.
Lodi ikusi nahi ta tiraka
hola izorratu da hau. (bis)

N. Elustondo
Ba bai kartera zulatua det
ta antzeratsu jertsea
lehen esan baitet beti borborka
ez dala egoten eltzea
herritarren aurrean
ta modu baldarrean
nahiko nuke eskatzea:
biak hartuko ditut gustora
kartera eta etxea. (bis)

A. Mendiluze
Esaera da eskatze ez duna
ez dela esnetara heltzen
gu miseriak kontatzen hemen
ia aski ez ote zen.
Har zagun atsedena
hau da komeni dena
eta esertzera goazen
eska dezagun beste kafe bat
norbait sentitu gaitezen. (bis)

N. Elustondo
Inportanteak sentitu nahia
daukagulako gurekin
orain kafe bat eskatzeari
beharko diogu ekin.
Hortxe daukagu Joxe
eta ez egon hor luze
orain behar dezu jakin.
Inportantego izan nadin ni
Baileys txorrota batekin. (bis)

ANDOAIN

(2020-03-01)

Bertsolariak
N. Elustondo, N. Ibarzabal, O. Iguaran, A. Laburu, A. Mendiluze eta U. Muñoa
Gai emailea
Unai Ormaetxea

Azken urteotako moduan, igande eguerdian burutu zuten Bastero kulturgunean
Sahararen aldeko bertso saioa. Saharako bandera baten azpian kantatu zieten aretoa bete zuten entzuleei.

N. Elustondo - U. Muñoa

Gaia: Zenbaitetan uste dugu agian aktualitateko gaiak helduon ahotan soilik ibiltzen direla, baina hori ez da horrela. Zuek biok sei urteko bi haur zarete eta etxean koronabirusa gora eta koronabirusa behera besterik ez duzue entzuten. Gaur eskolako patioan elkartu zarete eta hortxe hasi zarete zuen ustez nondik datorren, zergatik datorren, zer egiten duen, guztiguztia sei urteko haur baten begiradatik.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

U. Muñoa
Hor koronabirusa
batetik bestera
telebistan badabil
ta bortitz gainera.
Nik ama ikusten dut
kezkatu antzera
noizko ez dakite baino
denok hilko gera. (bis)

N. Elustondo
Ni ere beldurtuta
naukazu benetan
osasunakin gabiltz
ta erdi zorretan
ba bai, gu hil gaitezke
igual bihar bertan
birusa saltzen omen
dute txinoetan. (bis)

U. Muñoa
Txinoetan saldua
ez da egokia
baina birusak bela
hartzen du tokia
ez zait inporta hiltzea
ez da aitzakia
nik jada egin baitut
nahi nuen guztia. (bis)

N. Elustondo
Orduan zure hori
a ze karanbola!
Premio gutxigokoa
da nere tonbola
nahiz beste herrietan
egin dute hola
zeatik ez dute itxi
ba gure eskola? (bis)

U. Muñoa
Eskola irekita
zergatik daukate?
Guretzat beti pronto
zigor eta kate
maestra aritzen da
oihuka jo ta ke
torturatuko gaitu
azken eguna arte. (bis)

N. Elustondo
Eskolan ze giro den
ezin leike jakin
nahiz ta aldaketari
maiz gogotsu ekin
nahiko problema degu
gure maestrakin
mehatxatuko dugu
esku zikinekin. (bis)

U. Muñoa
Gu ja handiak gara
ditugu sei urte
ta gure gurasoek
adina bertute
bueno dena ez dut egin
nahiz hori nun uste
ta zure musutxo bat
probatuko nuke. (bis)

N. Elustondo
Biok patio hontan
esperantzaren zai
ta eskaera egin
berri didazu bai
gogoakin geratu
behar dezu Unai
ez baitizut birusa
zuri kutsatu nahi. (bis)

N. Elustondo

Gaia: Hezkuntza publikoan lan egiten duzun irakaslea zara. Kurtsoa joan eta kurtsoak etorri, gero eta haur etorkin gehiago datoz zuen eskolara eta era berean baita zure gelara ere. Nahiko erreta zabiltza, Nerea. Ez da gauza erraza klasearen erritmoa eraman nahi izatea eta era berean ikasle berrien irakaspenak egunean eramatea, arazo linguistikoa dela edota emozionalak direla tarteko. Gaur klaustroko bilera izan duzue eta koordinatzaileak Halil izeneko mutiko sahararra datorrela esan du zuen eskolara eta gelaren bat behar duela. Isiltasuna. Eta nahiz eta erreta egon, bat-batean "nik neuk hartuko dut" esan duzu Nerea.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Santa Barbara zure bizitza B*

N. Elustondo
Eskola hauetan errepikatu
ohi da hamaika eszena
eta multzora gehitu ohi digute
beti norbait datorrena.
Ez da ikusten euren motxilan
dakarten poza zein pena
ez nago ados, baina etor bedi
hau gure gelan barrena
sistemarena baita problema
ta noski ez Halilena. (bis)

Egia esan nahiz gehiengoak
ez daukan batere garbi
gehiengoantzat nahiz egoera
geratzen den nahiko handi
hiru-lau ordu euskal refortzu
goikoentzat da ugari
baina aldaketak behar ditugu
ez al da bistan nabari?
Inklusioa deitzen diogu
guztiak pilatzeari. (bis)

Iruditzen zait datorrenantzat
dela egoera krudela
gelakoek'e hartzen dituzte
bitxo raroak direla
pentsatuz edo ez dutelako
beraiek duten nibela
ba guztiontzat irekiko det
nik neronen ikasgela
ta ahal dedana egin beharko det
orain artean bezela. (bis)

PASAIA

(2020-03-07)

Bertsolariak
M. Amuriza eta N. Ibarzabal

Gai emailea
Donibane Azkarate

Bertso bazkaria Pasai Donibanen Bixi-Bixi Elkartea antolatuta elkartean bertan. Musikariekin batera aritu ziren kantuan.

M. Amuriza – N. Ibarzabal

Gaia: Duela hilabete eta erdi gutxi gorabehera, Xuak, hiru urte pasatu ondoren bere amarekin, kartzelatik atera behar izan zuen, legeak hala aginduta. Nerea, zu, izango zara Olatz, Xuaren ama, eta Miren beste preso politiko ohi bat egoera beretik pasatuta dagoena.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Geldirik ezin naizela egon*

M. Amuriza
Egun on Olatz bisita baten
lehenengoz elkartzen gara
bi preso gara eta bi ama
hemen bertatik bertara.
Haurra etxera bidali dute
ta zu bueltan kartzelara
galdera erraz bezain zail bat dut:
zer moduz sentitzen zara?

N. Ibarzabal
Eskertzen dizut galdera hori
ta galdetzeko ahalmena
ederki dakit zu ere hemendik
pasatakoa zarena
ta nahiz ta jakin hau haur batentzat
leku egokia ez dena
iruditzen zait infinitura
luzatu dela kondena.

M. Amuriza
Neuk be esaten izango ote naiz
guzti hau gainditzeko gai?
Esaten nuen: "Ez dut bakarrik
bizirauteko aina dohai".
Kondena aipatu duzu ta egia
da aldatzen dela zernahi
zure zigorra luzatu arren
bere askatasuna ere bai.

N. Ibarzabal
Beraz zigorra izan dadila
bere askatasunan ordain
itxaropentsu geratu behar
hurrengo bixitaren zain
ta galdera bat oin zuretzako
hartu nahi nuke neure gain:
zu zelan zeuden oin urte batzuk
eta zelan zaude orain?

M. Amuriza
Itogarriak egiten zaizkit
nire zeldan lau pareta
hauek, ta egia esan etsita
ere egon naiz tarteka
eiten duguna eiten dugula
kritikauko gaituzte ta
ez iozu utzi inori jartzen
ama txarran etiketa.

N. Ibarzabal
Ze etiketa joan zaizkigun
azal gainean marrazten
ama bikain bat zer eta nola
izan behar den zehazten.
Pentsamendu bat bakarra daukat
egoera hau errazten
herri zati bat badagoela
ez dena honetaz ahazten.

Bertsoaroa. Gazteen bertso-saioa. Iruñea. Nafarroa. 2020/11/11. XDZ

M. Amuriza
Gure umeak joango dira
lasai parkean barrena
badutelako nahikoa babes
gure familiarena
nik umeari esaten nion
"Norena zara, amarena?"
ta aitortzen dut neu naiz umea
gehiago behar dabena.

N. Ibarzabal
Oso lotuta sortu zelako
esparru txikien mende
baina badago kanpoaldean
bera zaintzen hainbat jende
guk geure indarra eutsi behar orain
geure barruko botere
ta bixita bat jarri behar dugu
hurrengo hilean ere.

IRUN

(2020-03-07)

Bertsolariak
A. Egaña, A. Martin eta J. Soto
Gai emailea
Zuhaitz Olazabal

Landetxako auzo elkartearen egoitzan bosgarren bertso bazkaria antolatu zuen Irunabarrek Irungo Bertsoaren Bilguneak.

A. Martin – A. Egaña

Gaia: Andoni, Zaldibarko zabortegian luizia igaro zenetik, protesta berezi bat hasi zenuen. Gauero-gauero egunean zehar, etxean batutako zaborra hartu eta zure herriko arduradun politikoen etxe atarira joan eta han hustutzen hasi zara, argi duzulako beraien alderdiak direla halako zabortegiak baimentzen eta ahalbidetzen dituztenak. Gaur gauean ere eguneko zaborra bildu, joan zara zure herriko arduradun politiko baten etxera eta hustutzen ari zinela, bat-batean atea ireki eta hamar urteko neskatoa, Alaia, agertu da.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

A. Martin
Amesgaizto bat izan dut
eta esnatu egin nau
gero mamuez pentsatzen
loz egin beharra barau.
Ze ordu dira bisitarako?
Ez abisu ta ez arau.
Nik gurasoei esango diet
norentzat da opari hau?

A. Egaña
Haur begirada duzu ta
normala da kezkatzea
ataria zikindu det
ez inola ezkatzea
aita ta amak esango'izute
omen dela eskratxea
baina sinistu zazu egitan da
legezkoa eskatzea.

A. Martin
Eskratxe hori ze ote den
ezin dut ulertu bela
hemen platano bat dago
ogia eta papela
eta usainez beteko duzu
sukaldea ta logela.
Ez al dizute aita-amek esan
birziklatu behar dela?

A. Egaña
Birziklapenan horrekin
utzia nauzu zorretan
egia da ezin utzi
ezertxo ere sobretan
zure aita-amak hitzetan zuri
ta nahiko beltzak obretan
noizbaiten irrist egin zutenak
platano azal horretan.

A. Martin
Aizu hitz egingo dizut
edukatu ta atsegin
zu portalez nahastu zara
juzka nezake desberdin
politikoak baitira haiek
goiko elitea, *enfin!*
Aita ta amak ez dute inoiz
zabortegian lan egin.

A. Egaña
Baina aita eta amak
sortua hainbeste min han
zabortegi bat onartu
baizuten nunbait aintzinan
nik ondo dakit ze portaletan
eta ze ate ixkinan
jatorra zera baina tamalez
zu familiz nahastu zinan.

A. Martin
Baina zalantza zalantzaz
ezin ninteke atertu
hori magia izan zen
malda bat egin zen lehertu
ta ondorioz zu egin zara
etxe atarian agertu.
Eskerrik asko bisitagatik
baina ez dut deus ulertu.

A. Egaña
Bueno magia zer dugun
nere iritzi umila
ez da lur asko jaustea
autobide baten bila
magia degu gaur deus ez eta
bihar berriz diru pila.
Hemen magia bakarra dugu
zure aita-amen kartila.

A. Martin
Baino kartila hori maiz
gorde dute sekretuan
juxtu koltxoian azpian
beira ez nintzen momentuan.
Banoa hemendik atea itxita
ta zu ere hala juan
ametsgaiztoa hartu behar dut
lehen utzi dudan lekuan.

A. Egaña
Neroni ere banoa
haurra ez egin negarrik
ez pentsa oraindik behintzat
ein dezunik ezer txarrik.
Muxu handi bat eman nahi dizut
ez dago esan beharrik
nik besteen haurrak maite baititut
ez neronenak bakarrik.

Bertsoaroa. *Orainmenean, bertsolaritzaren genealogia feministak*. Iruñea. Nafarroa. 2020/11/17. XDZ

A. Martin

Gaia: Hamaika dira kalera atera eta borrokari eusteko motiboak.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

A. Martin
Garai batean ikusten nuen
mundua aldrebes, trantzeko
dena hain gorri, dena hain more
dena erori antzeko
gogoa neukan iraultza uhinak
munduraino hedatzeko
injustiziak astia izan du
orainean trebatzeko
eta guk lanak dauzkagu ordea
bakar bat aukeratzeko. (bis)

Izan daiteke Zaldibarreko
sarraskiaren kaltea
maniki mehez, arropa txiroz
lepo eskaparatea.
Izan liteke lan istripu bat
edo prekarietatea
bakardadea edo isiltzen den
minaren kantitatea.
Edo besterik gabe izan leike
emakume izatea. (bis)

Hamaika arrazoi ateratzeko
kalera baina aldapan
daude eskailerak eta erortzen
gara edozein maldatan.
Orain kaleak eta manifak
nahiko bakarti ta bakan
baina benetan beteta sofak
eta ze sua sofatan!
Iraultza gehien egiten dira
mobileko pantailatan. (bis)

Autokritiko jartzeko badut
nik ere zio zerrenda
kontraesanak bainintzake nik
zuek beste nigan zenba
baina batzutan iraultza grinez
bete behar da agenda
gizarteari ere eginez
guretzat ohi den ofrenda.
Lehen pausu bat eman liteke
bihar kalera irtenda. (bis)

ONLINE

(2020-04-01)

Bertsolariak
E. Abasolo Abarkas, N. Elustondo eta E. Fernandez
Gai emailea
Erlantz Ibargurengoitia

Bilbo Hiria irratiak antolatuta, bere Potto programaren barruan bigarren saioa izan zen hau. Bilbo Hiria FMko 96:00n eta bilbohiria.eus atarian entzun ahal izan zen zuzenean.

Abarkas - N. Elustondo - E. Fernandez
Gaia: Nola daramazue konfinamendua?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

Abarkas
Jada bi aste pasatu dira
begiratuaz atzera
beste bi aste faltako diren
hori da nire galdera.
Zelan nabil ni? Ba orain lanera
eta ondoren etxera
ta plan askorik ez dut egiten
egunetik egunera.

N. Elustondo
Bere soldata irakaskuntzan
ateratzen baitu batek
lanean segi behar dela esan
baitu Kristina Uriartek
eguneroko langaiak ditut
ikasleak ta Internet
astea hauetan nik normalean
baino lan gehio egin det.

E. Fernandez
Denok etxean sartu gaituzte
birusa nahian uxatu
etxeko lanak, jan eta edan
kirola egin ta dutxatu
baina denboran luzako denik
inork ez dunez ukatu
esprina ongi hasi da baina
karrera ez da bukatu.

Abarkas
Goizean goizik pakete batzuk
partituta jendeari
gero etxera etorri eta
badaukagu lan ugari
etxea ere ez dugu izan
guk sekula horren garbi
eta saiatzen naiz kasu pixka't
eiten nire umeari.

N. Elustondo
"Bi aste soilik izango dira"
esan ziguten lehenago
eta ondoren luzatu beste
aste pare bat gehiago
nahiz ta etxean guk baditugun
hirurogei metro kuadro
balkoirik ere ez daukagu ta
oxigeno faltan nago.

E. Fernandez
Guk ere zintzo bete ditugu
eman dituzten ordenak
burua argi izan ezkero
azkar baitoaz orenak
pazientziaz joka behar da
baina hortik datoz problemak
pazientzia nola ez du galtzen
pazientziarik ez duenak.

Abarkas
Nik pazientzia txutea hartzen
dut gustora goizean goizik
gure herrian ere txakurrak
nola dabiltzen ortozik
alde ona du arratsaldetan
ez dugu gastatzen sosik
nola hasten den ez du inporta
nola amaitzen den baizik.

N. Elustondo
Lau paretetan enklaustratzeak
sortzen du nahiko apuru
eta lehenbailehen ateratzea
nahiz izan denon helburu
pazientzia nola mantendu
nahiz ta ez gauden seguru
bodega nahiko beteta dago
eta biziraungo dugu.

E. Fernandez
Gu ohiturazko pertsonak gara
ta portaeretan zurrun
beraz espero genuen dena
laister bihurtzea lurrun
baina Abarkas nik bukaera
ikusi dezaket urrun
orain buruak fin daude baina
ia nola bukatzen dugun.

Abarkas

Gaia: Konfinamendu garaian lanean zauden langilea zara. Nagusiari lan jarduna gelditzeko eskatu diozu, baina ezezkoa eman dizu. Bihar ere lanera joan beharko duzu.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

Abarkas
Noiz hasi ote zen dena?
Ez dut oroitzen eguna
gure buru gainetara
iritsi zela iluna?
Asko handitzen dijoa
positiboen bilduma
baina oraindik egin behar
dugu laneko jarduna
jefearengana joan naiz
eta esan diot "Jauna
zein da garrantzitsuago
bota zure erantzuna
irabazten den dirua
edo gure osasuna?" (bis)

"Bihar etorri lanera"
axolagabe esan dit
beraien zikoizkeriak
antza ez dauka mugarik
COVID-19 horrek
ez du galtzen denborarik
atzo bik ta gero hiruk
ta bihar ziur hamabik
orain ez bada gelditzen
jauna ez daukat dudarik
gero geratu beharko da
eta guztiok lan barik
jakin egizu ez dauka
honek atzera bueltarik. (bis)

Jende askok ikusi du
hurbiletik heriotza
askok urduritasunez
uzkurtua du bihotza
zuk lanean jarraitzeko
diozu, nun duzu lotsa?
Ahalik goraino bete nahi
duzu diruaren poltsa
jendearen haserrea
jakin ez duzu arrotza
bueltan etorriko zaizu
egiten dizut aitortza
denborak ipiniko du
bere lekuan bakotxa. (bis)

ONLINE
(2020-04-02)

Bertsolariak
I. Mantzizidor *Mantxi* - B. Lizaso – J. Gurrutxaga – J. Uranga eta E. Artetxe
Gai emailea
Ion Zaldua

Bakoitzak bere etxetik kantatuz, Urolako Komunikazio Taldeak antolatutako on-line bertso saioa.

B. Lizaso - *Mantxi*

Gaia: Beñat, San Martin egoitzara joan zara bertsotara. Egoiliar berria den *Mantxi* behin eta berriz ari zaizu esaten garai bateko bertsolariak bai zirela onak... Bertsotan hasi orduko erantzuten hasi zaizu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

B. Lizaso
Urteroko bixita
da gauza normala
aurten ere etorri
naiz iaz bezala
egin nahi nuen saio
ona, mundiala
erantzuten didazu
nik kantatu ahala.
Hau bai dela saio bat
esperimentala.

***Mantxi* (*)**
Posturan zera horrein
mutiko baldarra
nahiz ta igual errima
ez zen horren txarra
nahiz ta ez nun ezautu
bertsolai bakarra
ta zu zure ustetan
zeran hain azkarra
eredurik onena
zan Lizaso zaharra.

B. Lizaso
Horrek neretzako du
kriston presioa
hori da abizenak
duen prezioa
ez da nolanahikoa
bedeinkazioa
ondo egiteko det
obligazioa
hobea da hirugarren
generazioa.

Mantxi
Bertso eskoletan hasten
zerate hau lantzen
lehen Landetan taberna
egoki bat bazen.
Zuk daukazun itxuraz
hitz eitera goazen
nahiz biloba zerala
aritu kantatzen
Lizasoren tankeraik
ez dizut ba hartzen.

B. Lizaso
Horrek ezin nau utzi
ni hala're lasai
ez zera Lizasotar
bat ikusteko gai
ote zaude erantzun
azkarren baten zai?
Baina argibideak
garbi uztea nahi
mailan antzik ez daukat
mahaiaren bueltan bai.

Mantxi
Hanka sartzeko noski
banun arriskua
zu biloba zeranik
ezin sinistua
zure aitonak zeukan
bertsokera istua
ta zu izanagatik
bizkorra, listua
falta dezu txapela
ta *Montecristua.*

B. Lizaso
Baina itxialdian
ezer egin ezin
atera naiz kantatu
nahi bainun zurekin
bota dituzu mila
arrazoikei gordin
baina egon zaite pozik
ze behar dezu jakin
nork kantatu ote du bi
generaziokin?

(*) *Mantxik* ahotsa loditu eta hitzak ondo markatuz kantatzen du.

Bertsulari Gazteen Xapelgoa. Senpere.Lapurdi. 2020/7/11. XDZ

ONLINE

(2020-04-03)

Bertsolariak
O. Iguaran, S. Lizaso, A. Mendiluze, O. Bartra, I. Zubeldia eta J. Illarregi
Gai emailea
Unai Elizasu

Koronabirusaren eraginez, konfinamenduak iraun zuen bitartean sortzaileek online bertso saioak egin zituzten. Horietako ekimen bat Etxetik etxera izenez bataiatu zuten eta ostiralero 18:30ean bertso saioa egin eta zabaldu zuten internet bidez.

I. Zubeldia – J. Illarregi

Gaia: Iker, zure etxepean bizi da Joanes, herriko mutil orkestra. Lehen egunean instrumentu batekin atera zen eta oso polita izan zen; bigarrenean beste batekin eta ondo; egunero balkoian dago, eta dagoeneko nekatzen hasita zaude. Gaur bateriarekin atera da.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

J. Illarregi
Holaxe hasi nintzen
ni egun batean
ta jendea entzuten
bien bitartean
ta ez dut uste denik
zuentzat kaltean
hola jarraituko dut
doinuz atakean
nere bateri dena
bukatu artean. (bis)

I. Zubeldia
Emozionatu zaigu
gure mutikoa
katxarroa ere dauke
oso praktikoa
ezin dizut jarraitu
nik zure jokoa
kazuela, zartaia
eta lapikoa
nik'e baterie det
kategorikoa. (bis)

J. Illarregi
Onartu beharko zeren
auskalo bestela
ni listoa baino zu
ez zara ergela
konstante izatea
nere erregela
jakin behar zenuke
behar den bezela
zortzitako txaloak
neretzat direla. (bis)

I. Zubeldia
Nere buruan bada
makina bat kezka
galdetu nahi nizuke
ta erantzuna presta
txaloen meritua
ezin da ordezka
zuretzat zortzitako
txalo eta festa
baina nik hiruretan
ein nahi det siesta. (bis)

J. Illarregi
Beraz sofan etzanda
ta hanka luzea
erlaxatuz aurrea
ta berdin atzea
nere kulpaz zaila da
gaur konzentratzea
nahiz eta eman dudan
solfeo klasea
nere pasioa da
adarra jotzea. (bis)

I. Zubeldia
Gure musiko jauna
ez danez tontoa
igual bere lekuan
jarri beharko'a
arte munduan eman
nahi dezu saltoa
ura botako dizut
irakindakoa
horrek egingo dizu
laino efektoa. (bis)

O. Iguaran - O. Bartra

Gaia: Iguaran Seaskan egiten duzu lan. Eta zuk Bartra Elorrioko Txintxirri ikastolan. Urte osoan lanean aritu eta gero, orain erabaki duzue Herri Urrats eta Ibilaldia bertan behera uztea.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

O. Iguaran
Ekintzailea naizenez
irakaslearen senez
herrigintzari tiraka gabiltz
urtero kemenez
aurten bertan behera berez
beste mila gauzen legez
aurten urratsa geratu zaigu
baina bidea ez. (bis)

O. Bartra
Gure eta zure plazan
diruz hori ezin jasan
ta ezin gendun beraz segitu
nahi genuen martxan
geratzea beharrizan
jendarte denaren gisan
pentsatu nahi dut egindakoa
ez da alperrik izan. (bis)

O. Iguaran
Nola hori aurrez dakigun
bada nahiko etorkizun
ze iaz ere egun berean
euria egin zigun
aurten kezka bat da ilun
krisia bada edonun
etxeko diru ekarpenik'e
iritsiko zaigun. (bis)

O. Bartra
Jendea gure botere
eta etekina xede
baina ezin gara tamalez egon
nahi bezain *alegre*
krisian hainbeste jende
behar gorriaren mende
eta sobera eukiko al du
guretzako ere? (bis)

O. Iguaran
Estu dabil hainbat lagun
luzatzean hainbat egun
diru eskasia aurretik ere
zaigunez ezagun
hobe da lanean jardun
zabaltzen dela demagun
egoskorkeri ta egin nahia
kutsatu ditzagun. (bis)

O. Bartra
Irten izan gara sarri
nahiz ta egoera larri
ta ilusioa ere suertatu
al da kutsagarri?
Nahiz jendea ez etorri
esperantza bat igorri
gure leloak dioen gisan
Gogotsu hel horri (bis)

ONLINE

(2020-04-17)

Bertsolariak
J. Soto, S. Alkaiza, J. Sanjurjo, X. Terreros Terre, A. Untxalo eta X. Illarregi

Gai emailea
Reyes Ilintxeta

Euskalerria Irratiak eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatuta, konfinamenduko bertso saioak Nafarroako euskal irratietan.

J. Soto - S. Alkaiza - J. Sanjurjo - X. Terreros Terre - A. Untxalo - X. Illarregi

Gaia: Nola bizi duzue konfinamendua?

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

A. Untxalo
Lana, bertsoa, musika
margotzeko asti falta
erlojuari begira
haserre eta presaka
orain baineran bi orduz etzan
ta pipak janaz binaka
aprobetxatu beharra daukat
laster bukatuko da ta.

J. Sanjurjo
Ospitaleko gaixotan
langileen imajinak
iruditu zaizkit horren
gogorrak eta gordinak
baina udako pentsamenduak
ditugu geldiezinak
nire kezka da noiz ospatuko
ote diren Sanferminak.

J. Soto
Egun hauetan zalantzak
piztu zaizkit akorduan.
Zer? Noiz arte? Gero nola?
Ta larritzen naiz orduan
ziurtasunik ezak loturik
gauzkanean amarruan
bila ari naiz ia baten bat
aurkitzen dudan barruan.

S. Alkaiza
Balkoietan jaiotako
polizia gorpuztuak
sukaldetako apalak
kontsumismoak puztuak
gaizki bizi dut hori ta ondoko
bizi-lagunen juzkuak
gaude beldurrez beteak eta
askatasunez hustuak.

X. Illarregi
Nahiz ta frigorifikoa
ta tripak egon beteta
nahiz ta egunean eman
zortzirehun ta hogei buelta
nahiz ta egin behar ordenagailuz
karrerako azterketa
ezin kejatu txar-txarrean gu
ongi egon gaitezke ta.

X. Terreros
Goizez lanerako jantzi
artaldearen arropa
karrikan zakurrak libre
etxean haurrentzat soka
pizza bat Globon ta dena zaintzen
polizi militar tropa
eskerrak dena konponduko den
leiho ertzetik txaloka.

ONLINE

(2020-04-17)

Bertsolariak
U. Agirre, J. Uria, A. Labaka, S. Robles, J. Martin eta On. Enbeita
Gai emailea
Unai Elizasu

Etxetik etxera izeneko saioa. Streaming bidez 300 ingurura iritsi zen entzule kopurua.

J. Martin – U. Agirre

Gaia: Bikotea zarete eta zuen sexu unean musika izango zenutela lagun erabaki zenuten. Eta musikaren arabera izaten zen larru jotze hori. Gaur da lehen aldia musikarik gabe ari zaretela.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

J. Martin
Beti modu berean
genuen probatu
aspaldian ez dugu
asko aprobatu
gaurkoan abestirik
ez dizut grabatu
ritmorik nahi baduzu
zerorrek kantatu.

U. Agirre
Kanta eta irrintzi
eingo dut gustora
irits gintezke baina
ez dakigu nora
gogor eta xuabe
behera eta gora
ea moldatzen geran
gure erritmora.

J. Martin
Punka jarri ezkero
basati zeharo
heavyarekin ez da
irteten arraro
baina zuk maiz musika
estiloa nahiago
ta klasikoarekin
nazkatuta nago.

U. Agirre
Rockak igotzen dizu
zuri libidoa
ta klasikoarekin
nago ni igoa
baina Jon gure gauza
aurrera dijoa
bukatzen ari zaigu
repertorioa.

J. Martin
Ez dakit harremanan
hala dagokigun
errutinak ipini
ote gaitu ilun?
Motibaziorikan
bada beste inun
Spotifyn bihurtu
gaitezen premium.

U. Agirre
Berriz Internetera
jo didazu ti-ta
zuk heavya nahi dezu
nik berriz klasika
guztiontzat badago
pentsatzen hasita
bakoitzak jar deiogun
nahi degun musika.

J. Martin
Baina probatu dugu
hainbeste aukera
ta hala ere nago
aspertu antzera
ta kontutan har zazu
nonoiz'e etxera
SGAE etorriko da
ta rekaudatzera.

U. Agirre
"SGAE etorriko da"
ze ai zera esaten?
Kontu hauek ez dira
errez eramaten
ta nik esango diet
ea entzuten duten
kobertura txarrakin
ez gendula entzuten.

ONLINE

(2020-04-24)

Bertsolariak
E. Pagola, E. Lekue, A. Sarriegi, A. Mendiluze, A. Martin eta A. Igartzabal Potto
Gai emailea
Unai Elizasu

Etxetik etxera ekimeneko saioa.

A. Sarriegi – E. Lekue

Gaia: Horrenbeste urte Euskal Herritik kanpo bizi izan ostean, buruan duzue itzulera. Etxahun, zu, aspaldi itzuli zinen pentsamenduz,nahiz fisikoki ez. Zuk Aitor ez duzu horretan pentsatu ere egin nahi.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Hirurogeita beatzi urte*

E. Lekue
Derrigorrean alde egin gendun
behinola Euskal Herritik
ta itzultzeko gogo bizia
eduki dogu ordutik
oindino ez da eguna iritsi
Aitor laguna badakit
baina maleta egina daukat
oin dala bost bat urtetik.

A. Sarriegi
Ederki dakit gu biok ere
han daukagula burua
baino gaur arte joatea ez zan
oso gauza segurua
nik nahiago det nere begiez
ikustea ingurua
ez engainatu ez da existitzen
amestu dezun mundua.

E. Lekue
Hain zuzen ere ein gendulako
amestu gendunan alde
egun batetik bestera egin
behar izan gendun guk alde.
Arrazoi dozu lar amesten dot
hor ez nabil horren grabe
baina bueltatu nahi dot hangoa
amesgaiztoa bada be.

A. Sarriegi
Ez geralako besterik gabe
ahaleginean aritu
edozer gauza dala ere nahi
dezu harantza abitu
nik nahiago det dagoenari
bere horretan segitu
eta ez amets bat sinistu eta
amesgaiztoa aurkitu.

E. Lekue
Ilusioak bizi nau Aitor
eta bizi nau nabarmen
zuk ez dakizu leku honetan
ze lekuz kanpo nagoen
hain zuzen bere buru barruan
zalantza bat non dagoen!
Orain burua han dodala ta
hara iristean igual hemen.

A. Sarriegi
Igual hori da bene-benetan
zuk daukazun angustia
ta horregatik esperantza ere
iraganetik bustia.
Berdin zait neri han zer dagoen
irtengo da eguzkia
galtzeko ezer ez daukat eta
irabazteko guztia.

ONLINE

(2020-05-13)

Bertsolariak
B. Gaztelumendi eta U. Alberdi
Gai emailea
Iker Iriarte eta Josu Iztueta

Pandemiak bertso plaza isilarazita, Interneteko sarea piztu nahi izan zuen Bertsozale Elkarteak. Horretarako, *Plaza* eta *Bidaiak* ekimenak jarri zituen abian. Lanku Kultur Zerbitzuen bidez antolatuta zeuden saioei bide eman nahi izan zien Plaza ekimenak. Hitzartuta zeuden saioak online eskaintzeko aukera emanez antolatzaileei, eta Bidaiak ekimenak bi bertsolarirekin egindako esperimentazio gunea izan nahi zuen. Gai eta molde berritzaileak proposatu eta hauek bat-batean erantzungo zuten. Amasa – Villabonako Subijana etxean egin ziren,eta Bertsozale Elkarteko hedapen taldeak streaming bidez zabaldu zituen.

Hau Bidaiak ekimeneko bigarrena izan zen, eta *Munduari bira* izena jarri zioten. Bertan, Josu Iztuetak euskaldunok historian egindako bidaiez sarrera egiten zuen eta hortik abiatuta Iker Iriartek gaia jartzen zuen.

U. Alberdi

Gaia: Esaten dugunak adina garrantzi badu esaten ez dugunak. Hiru egoera emango dizkizut. Egoera horietan, despedida bat, agurtze bat, dago. Zu izango zara norbait agurtzen duen emakumea. Eta, zutik kantatuko duzu emakume horrek esaten duena egoera horretan, gero eseri eta esango lukeena baina ausartu ez dena kantatu beharko duzu.

1. agurtze egoera: Baserriko atarian daude emakumezkoa eta gizona. Emakumea ama da eta gizona bere semea. Semea Estatu Batuetara doa artzain.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Loreak udan ihintza bezala I*

U. Alberdi (zutik)
Adio Fermin jada ezingo
diat ba deitu Fermintxo
morral horretan daukak ogia
eta beste bi kapritxo.
Zaindu ezak ondo gure ohitura
gure balore ta mintzo
egin zak beti lana gogotik
eta ibil hadi zintzo.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Herri txikien negu gordina

U. Alberdi (eserita)
Muxu batekin, malko batekin
itxi dut haren morrala
jada hazi da ta iruditzen zait
ia atzo jaio zala.
Badakit joan in behar dula
mundua dela zabala
eta halere iruditzen zait
betirako joan dala. (bis)

2. agurtze egoera: Emakumezkoa etxeko atean dago seme-alabekin. Eta gizonezkoa atearen beste aldean. Emakumezkoa emaztea da eta doana senarra. Senarra Australiara doa kainaberak moztera. Emaztea herrian geratzen da familiarekin.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Loreak udan ihintza bezala*

U. Alberdi (zutik)
Atari aurrean azken agurrak
jarri gaitu parez pare
Maria, Antton, aitari muxu
emaiozue xuabe.
Malko txiki bat masail batean
aurpegia dohakabe
benetan faltan botako zaitut
zer egingo dut zu gabe?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Herri txikien negu gordina

U. Alberdi (eserita)
Muxu eman diot ezpainetan ta
gero agurtu emeki
nere barruan burbuila batzuk
dauzkadala bazeneki!
Buelta eman dut ta irrifarre bat
disimulatu ederki
hemen ate bat zarta itxi da
eta leiho bat ireki. (bis)

3. agurtze egoera: Portuan ageri dira emakumea eta gizonezkoa. Gizonezkoa arrantzalea da eta Ternuara bakailaotara eramango duen barkura igotzen ari da. Emakumea bere alaba txikia da.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Loreak udan ihintza bezala*

U. Alberdi (zutik)
Aitatxo zenbat egun dauzkazu
hemendik hango tokira?
Zatozenean zer ikusten da
berriz portura begira?
Nirekin asko oroitze'al zara
ba al duzu nire desira?
Hiru galdera egin dizkiot
baina jadanik joan dira.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Herri txikien negu gordina*

U. Alberdi (eserita)
Ateko bandan itsasontzi bat
Ternuarantza hartuta
eta portuan alabatxo bat
itaun denak trabatuta
beti alperrik galdetzen diot
ta saiatzen naiz muxuka
gure etxean erantzun denak
amak ematen ditu ta. (bis)

B. Gaztelumendi

Gaia: (Artzain figuraz hitz egiten du Josu Iztuetak. Batez ere kanpora artzain joandako jendeaz) Bakardadea batzuetan norberak aukeratzen du baina besteetan ez. Batzuetan jendez inguratuta egonda ere bakarrik sentitzen da bat. Besteetan bakarrik egon arren, babestuak sentitzen gara.

Neurria: Hamaseiko berdina, zortzi puntuz eta zortzi silabaz
Doinua: *Larogeita hamar urte*

B. Gaztelumendi

Gipuzkoako final bat
elkarrizketa ta omen
bertsolarientzat hori
momentu gorena omen
baina barruko eduki
edota kanpoko formen
artean zenbat gatazka
zalantza eta eromen! (bis)
Kalean jendeak sarri
edozer gauza zioen
ta halako euforia bat
sentitzen nuen ondoren
ustez halaxe nenbilen
ni sekulako ondoen
baina ez nintzen ohartzen
zeinen bakarrik nengoen. (bis)

Ez garelako bakarrik
gure izen ta abizen
gure titular ponpoxo
gure curriculum gizen
nahiz ta pentsatu barruan
ere ez gerala kabitzen
goazen lekuan beti
ondo gerala aritzen (bis)
inguratzen ninduena
ere ez nuen sentitzen
emozioak nituen
hodeietan esekitzen
hizketan eta kantuan
antsiaz nuen segitzen
barruan isiltasuna
baino ez zitzaidan gelditzen. (bis)

Mundua izan daiteke
arrotza bezain zabala
begiratu diezaguten
zenbat txiste, zenbat bala
ohartzen nintzen argia
joaten ari zitzaidala
ez nintzela hain bikaina
hain ona, hain originala. (bis)
Pasatu zen txapelketa
ta pasatu zen finala
koronabirusa heldu zen
denbora tarte makala
eta konturatu nintzen
ni ateak itxi ahala
barrutik norbait leihoak
zabaltzen ari zaidala. (bis)

U. Alberdi – B. Gaztelumendi

Gaia: Aire berria behar du munduak. Nola beteko zenukete aire berriz mundu berri hori?

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Iragan egun batez*

U. Alberdi
Beti presaka gabiltz
jakin zeren bila
eskuetan txanponak
patrikan kartila
aldatu beharko da
geure iskanbila
esaldia ez dadin
gerta biribila
hemen datza mundu bat
bere haurrek hila.

B. Gaztelumendi
Inguruan duguna
zail da ikustea
kanpokoari hartu
ohi zaio lustrea
komeni da juzkuak
aurrez biluztea
baldintza da nahi bada
mundua puztea
ondokoentzat arnas
pixka bat uztea.

U. Alberdi
Mugimenduak beti
hainbeste zorion!
Baina globo urdinari
ke beltza zerion
denok dakigu horrek
ze kalte egin dion
ta proba dezakegu
egingo dio on?
Ez da hain zaila pixkat
geldirikan egon.

B. Gaztelumendi
Gelditzeak sortzen du
nunbait nahiko neke
gu gure oporraldi
eta gure epe
hotel haunditan hartu
nahi degu aterpe
ez dago zertan mapa
bat txintxetaz bete
elkarrengana ere
bidaia daiteke.

U. Alberdi
Liluragarri zaigu
zer den ezezagun
joan nahi izaten dugu
garesti ta urrun
lagunei kontatu
mila foto txukun
baina hemen badaude
zenbati txoko kuttun
inguruko bideak
ibili ditzagun.

B. Gaztelumendi
Baina urrun joateko
nolako antsia
zorionak beti du
pisu erantsia
zorion bat kontsumoz
ta erritmoz jantzia
besteei erakusteak
dauka garrantzia
norberak neur dezala
bere distantzia.

U. Alberdi
Ba bai zure ideia
egiten dut nire
sarri aipatzen dira
hainbat eskubide
baina eskuinak nahi du
jardun adiskide
eta gabiltzan kontuz
hemen bidez bide
pertsonak lotuta ta
merkantziak libre.

B. Gaztelumendi
Ta gu ere batzutan
merkantzia gara
baina bidaiatzeko
mila modu bada
batzuk Nairorbitarran
Josuren gisara
bestek beren iraultza
eta asanblada
guk eskuak patrikan
plazatik plazara.

U. Alberdi
Konfiguratu gaitu
hainbat etxe zatik
ez genuen usteko
hainbeste gizakik
kalera atera gaitu
gaur zuen aitzakik
ta gaur zeinen pozik
ta ez dakit zergatik.
Mila esker leihoak
zabaltzeagatik.

B. Gaztelumendi
Dena ez da merkatua
dena ez da azoka
dena ez da lepoan
lotutako soka
hala segiko degu
bertsoka bertsoka
ahal degun bezela
pausoka pausoka
mundua eraikitzen
auzoka auzoka.

U. Alberdi
Beraz beste aldean
egon bazerate
ta hartu baduzue
bidai hontan parte
adiskide artean
kantu ta txolarte
bi metro dira baina
ez gaude aparte
eskerrik asko berriz
besarkatu arte.

B. Gaztelumendi
Birtuala izan arren
gure besarkada
nere eskerrak ere
guztiontzat hara!
Bi ordu ingurura
iritsita jada
guk nahi degun lekura
iritsiko gara
ta pixkat urrunago
lagunekin bada.

ONLINE

(2020-05-15)

Bertsolariak
S. Lizaso, N. Elustondo, On. Enbeita eta A. Egaña
Gai emailea
Agin Laburu

Plaza ekimena. San Isidro egunez Astigarragan egiten den bertso saioa Villabonan grabatua.

S. Lizaso

Gaia: Astigarraga erdigunean hasi da festa. Zamalbide auzoan ere izaten da oraintxe festa. Eta ez dut ulertzen. Zergatik kostatzen zaigu hainbeste gauzak bateratzea? Zergatik daude Astigarragan bi San Isidro egun? Zergatik bi Aberri Egun?... Zerk bereizten gaitu? Zerk elkartzen?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke*

S. Lizaso
Ukaezina gauzak bikoizten
egiten den eginahala
uste genduen hori eginez
haundiagoak ginala
zer arraiotan sartzen diogu
elkartasunai puñala?
Iruditzen zait ohar gaitezen
garaia ere badala
gauzak bi zati egin ezkero
erdia bihurtzen dala.

Adibideen bila hasita
asko ez dira faltako
aitzakiak'e aurki daitezke
hamaika nola-halako
"Hik egiten dek, ta nik ere bai"
aspaldi dago modako
ta motibo bat izan liteke
nire ustez hortarako:
guk geuk nahi deguna egiten degu
gerekoiak geralako.

ONLINE

(2020-05-22)

Bertsolariak
On. Enbeita, O. Iguaran eta A. Martin
Gai emailea
Begoñe Olabarria

Orozkoko Udalak eta Erandioko Euskaraldia Batzordeak antolatutako saioa, *Ez da kasualitatea* formatuan bertsolariak eta musikariak batera, Villabonatik eskainia.

On. Enbeita

Ariketa: Oinak eman ahala bertsoa osatu behar izan zuen.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

On. Enbeita

Gai bakarrak betetzen du
egun aktualitatea
asmatua den edo ez
horixe da debatea
birus ikusezin batek
hartu digu agintea
zer den ez dakigu baina
ederra dauka ospea!
Txina, Estatu Batuak
boterearen trukea
bakuna ez da izango
itxura baten merkea.
Gizarte honek non dauka
aguantea, limitea?
Momentuz ardien gisa
portatzen dabil jentea.

Noiz aterako gara gu
berriz bertsotan plazara?
Entzulerik gabe gaude
ohikoaren kontrara
non dira zuen txaloak
negarra edo algara?
Etxean igarriko da?
Zeozer bai beharbada.
Eutsiko al dugu denok
hau asko luzatzen bada?
Edota emozionalki
guztiok itoko gara?
Inor be ez ukitzea
oso gauza tristea da
gustora hartuko nuke
edonoren besarkada.

Ta orain medikua da
gizartearen txapelduna
osasuna zaindu leiken
Jaungoiko guztiz ahalduna?
Baina nork ematen dio
gaixoari maitasuna
ospitaletik kanpora
gelditzen bada laguna?
Jadanik sobera daude
dirua, harrotasuna
gauza sinplen esperoan
pasatzen dugu eguna
guztiok gara maitasun
zatiren baten zorduna
ta eguzkiak ekarriko
al du zoriontasuna!

ONLINE

(2020-06-10)

Bertsolariak
A. Elortegi - M. Arzallus, S. Alkaiza, O. Barroso eta P. Abarrategi.
Gai emailea
Amaia Agirre

Esperimentazio gune gisa, Bidaiak ekimenaren barruan Hezkuntza Arautuko irakasleei begira ikasleek bertso saioa egin zuten Villabonako Subijana etxean. Modu bizian, jolasekin tartekatuz aritu ziren kantuan, bertan publikorik gabe, baina 2.050 sarrera izan ziren interneten.

A. Elortegi - M. Arzallus – S. Alkaiza - O. Barroso - P. Abarrategi.

Gaia: Bertsolaritzan txapeldunaren figura da ziurrenik esanguratsuena. Baina txapelak era askotakoak izan daitezke, eta askotan azpian daramana nolakoa den ere adierazten dute. Beraz, gaurko agurretan nolakoak zareten esan beharko diguzue: horretarako banan-banan etorri eta txapel bat aukeratuko duzue lehendabizi: jantzi buruan, eta hasi kantuan! (Bakoitzak txapel mota desberdina hartzen du kanturako. Odeik igerilekuko txanoa, Saioak txirrindulari kaskoa, Anderrek toreatzaile montera, Peruk poliziarena eta Maddalenek sorginarena.)

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

O. Barroso
Hau jantzi eta nor naizen
ez leike errex kalkula
baina aurten aurkitu dut
bizirauteko formula
txanoa jantzi, piszinara joan
ta ez naiz irtengo sekula
nonbait entzun dut kloroak berak
birusa akatzen dula.

S. Alkaiza
Txirrindua gainera igo
beharra dugu tarteka
errotondara iritsiz
nabil buelta eta buelta
irabazlea ez naiz ta hala're
jarraitzea daukat meta
bertsolaritza eta bizitza
da fondoko lasterketa.

A. Elortegi
Zezenketaren munduak
kritika du merezita
eta hau ridikuloa
hona gorantz ikusita
kuarentena hontan etxean denok
izan dugu kriston pinta
toreroaren itxurarekin
beti pijama jantzita.

P. Abarrategi
Ni berriz uniformedun
hori utzi nahi dut *klaro*
kalean zehar gu bakarrik
sentituz horren arraro
zelatarian paperarekin
pixka't nekatuta nago
jarri ditugu sekula baino
multa askozaz gehiago.

M. Arzallus
Ni konjunto etorri naiz
ez al da sorginkeria?
Azken finean sorgin bat
delako bertsolaria
diferentzi bat badago baina
eta gainera haundia:
makilik gabe eta hitzekin
egiten dugu magia.

M. Arzallus

Gaia: Giharretako distrofia edo gaixotasun bat dela medio, mugimendu arazoak dituen ume bat zara Maddalen. Goizetan ikastetxera joaten zeran baina arratsaldero fisioterapia sesioak jasotzea ezinbestekoa duzu eta ikastetxean ere laguntza izaten duzu. Koronabirusak eragindako egoerak zure bizitza erabat aldatzeaz gain, zure gorputzari sekulako atzerapausoa eragin dio. Gizartea, mundua... horretaz ohartarazi nahi duzu bertsoen bidez

Gai-jartzaileak oinak ematen joan ahala (aurreko puntua kantatzen ari den bitartean) osatu du bertsoa,

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

M. Arzallus

Eskaileratan mailarik maila
banatzen da gizartea
beti berdinoi ixten digute
mutur aurrean atea
nere lagunek solik nahi zuten
parketara joatea
baina neretzat bigarren mailan
bakarrik dago parkea.
Denek erruki pixka bat dute
hori sentituz, pakea!
Bigarren mailan ipintzen dute
nere motrizitatea
nahiago nuke bestela balitz
nere errealitatea
baina besteren eskutan dago
nere ongi izatea.

Nik behar ditut mila masaje
eta mila ariketa
ta kaltegarri bilakatu zait
birusaren aldaketa
galdu baititut nere indarrak
ta nola ez heziketa
ta horregatik piztu nahi nuke
inguruetan alerta
nere esanak entzun ondoren
egizue gogoeta
ea behingoan irekitzen den
osasunaren karpeta
laguntza pixka't emaidazue
jar idazue arreta
zuen eskua luzatuz gero
asko egiten dut eta.

Nere indarrak, nere dohaiak
nahi ditut aldarrikatu
nahiz ta giharrak ahul dauzkadan
hori ezin da ukatu.
Okerrena da nere kasuan
gu ez garela bi katu
beraz denontzat irtenbide bat
behar genuke bilatu
fisio denak ta irakasleak
behar dira inplikatu
egia esan ezin den hori
ere nik ez dut eskatu
behar dudana nahi dudana
mesedez errespetatu
hurrengo baten gauza berdina
ez dadin errepikatu.

ONLINE

(2020-06-10)

Bertsolariak
H. Arana, O. Arana, U. Arregi eta A. Tatiegi
Gai emailea
Maria Oses

Bidaiak ekimenaren barruan, bertso trama aurkeztu zuen Maria Osesek. Lau pisukide ziren bertsolariak. Oihana Arana, Ilargi, gazteena, feminista eta borrokalaria. Aitor Tatiegi, Julen, Ilargirekin ondo konpontzen den iritzi gutxidun pasota. Urko Arregi, Iraultza, klaseko ikastuna, azkarra, formatua, iritziaren jabe eta eskubideen defendatzaile. Eta Haizea Arana, Andrea, etiketa gabea, ez feminista, ez borrokalari... Paper horietatik egin zuten korapilatzen joan zen saio osoa.

H. Arana - O. Arana - U. Arregi - A. Tatiegi

Gaia: Andrea, (Haizea) panorama xelebrea topatu zenuen pisuan. Zure gela, egongela eta sukaldea erakutsi zizuten, baina ez gainerakoen gelak. Imajinatzen hasi zinen orduan nolakoa izango ote zen gela bakoitza. Zer zeukaten paretan itsatsita, nola ote zegoen ohea...

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Iparragirre abila dela*

H. Arana
Afal ordua heldu zen eta
nik egin nien kritika
aspaldi neukan pisukideak
ezagutzeko irrika
Ilargik Frida Kahlo
dauka eta auskalo
zer daukan hor itsatsita
oso argi dago hau datorrela
ilargitik ikasita.

O. Arana
Bai Frida Kahlon poster bat daukat
horixe al da arraro?
Nire logelaz eta apalez
ni benetan ondo nago
kalendarioa horrela
apuntatzeko regla
ta zertarako gehiago?
Ta irakurri behar zenituzkeen
liburuz beteta dago. (bis)

H. Arana
Julen ezautzen ere joan naiz
berez xuabe-xuabe
eta *sinsangre* itxura dauka
baina ez dabil hain grabe
posterrik ez opari
hau dabil oso nagi
du ohe bat parez pare
hobeto esanda dauka koltxoi bat
izararik jarri gabe. (bis)

A. Tatiegi
Behin garbitzera bota nituen
ta labadora ez jarri
orduz geroztik koltxoia ta ni
ondo igurtziz elkarri
ez liburu, ez poster
ez zabiltz horren oker
ondo diozu igarri
badaezpada arropa ez den
ezer ez nuen ekarri. (bis)

H. Arana
Ta zer esango gure Iraultzak
ziur daukan inguruak
azken finean begano hauek
ez dira hain seguruak
jatorra da Iraultza
karteraz argal antza
halaxe diotso buruak
fotokopiatu egiten ditu
Ilargiren liburuak. (bis)

U. Arregi
Noski nik ere ikasi nahi dut
berak dakien apurra
eta liburu pila bat dauzkat
bat ere ez da laburra
ondoren nire gela
geratzen da horrela
aizkora eta egurra
eta pareta guztian Silveiran
bukaerako agurra. (bis)

O. Arana - U. Arregi

Gaia: Egongelan zaude telebista aurrean. Iraultzak (Urkok) esan du umore saio berri bat estreinatu dutela ETB1en eta euskaraz izanda babestu behar zenuketela. Ilargik Salvame (Telecinco telebista kateko saioa). ikustea proposatzen du. ETB hilda dagoela, alferrik dela saiatzea...

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Azienda bat dago*

U. Arregi
Nahiz Euskal Telebista
ez den ibiltzen latz
hemen hauxe ipini
behar dugu beraz
zuk ikusi nahi duzu
dena gazteleraz
baina nik ulertzen dut
bakarrik euskeraz.

O. Arana
Zure buru jandako
ta buru hutsean
ez, ikusiko dugu
denbora luzean
kontraesana zilegi
delako funtsean
Pantojaren alaba
Poli de *Luxe*an

U. Arregi
Ta Salvame horretan
ere zenbat truko
baina neretzat ezer
ez dago gustuko
zugatik bada hori
ikusi ta punto!
Baina hola Euskal Herrria
ez da salbatuko.

O. Arana
ETBko euskara
ja dago zendua
inpernupea baita
daukaten zerua
ni naiz deabrutxoa
ta ni aingerua
ikusi behar da behar
ez den eredua.

U. Arregi
Beraz gero ikusi
Facebook eta *Insta*
bilera utzi eta
piztu telebista
nik ikusi nahi nuke
ETBko lista
Aitziber Garmendian
superfana naiz ta.

O. Arana
Bai Aitziber ona da
ezin egin uko
baina Jon Plazaola
nik ez dut gustuko
telebista ikusteak
ez du lagunduko.
Gero Instagramean
like eman ta punto.

U. Arregi
Ni aspaldian nago
Instagrametik at
eta hola egongo naiz
oso argi daukat
euskeraz bada nahiko
ta gaiera zenbat!
Erlon edo egongo da
bertso saioren bat.

O. Arana
Edo Hamaika tb
Telebarrenetik
askatu dezakegu
ETBn aurretik
gauero Telecinco
sartzen dut zainetik
Wazemank ta Goenkale
kendu zirenetik.

O. Arana – H. Arana

Gaia: Asko maite dute elkar, baina beti eztabaidan daude Ilargi eta Andrea, azkena telebistako iragarki bati begira. Pipi Galtzaluzek 70 urte bete dituela eta, Ilargi oso gustura dago bere lehen erreferentea izan baitzen. Andreari txorakeria, barregarria, iruditzen zaio horrela politizatzea umeentzako programa bat.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Zer da gaur Donostian*

O. Arana
Telebista pizteko
sakatu degu On
lehen aldiz Andreak
egin dit jaramon
zuk egin kasu honi
egingo dizu on
baina ez konparatu
eta lasai egon
ez dira antzekoak
Pipi ta Doraemon. (bis)

H. Arana
Katu urdin bat beraz
nik ezin zuzendu
ta etxetik zaldi bat
ezingo da kendu
Pipi horren borroka
ez omen da zendu
baina feminismoan
ze merezimendu!
Besoak mugitu ta
hegan egiten du. (bis)

O. Arana
Bizitzan zabiltz zoro
haizez zure antsiz
nahiz ta nik oso goxo
eiten dizudan hitz
hau ez da Judith Batler
ez Angela Davis
aldatu zaitez buruz
alda zaitez kabiz
hau ikusiko dugu
hogei mila aldiz. (bis)

H. Arana
Pipirekin ipini
nahi duzu topera
ta izen raro batzuk
esan ta aurrera!
Baina Pipi ederra
da nire galdera
ze iñauterietan
beraren trajera
joan nintzen ta ligatu
ein nuen gainera. (bis)

O. Arana
Ta norbaiten ohean
zinen ondo etzan
disfraz horren atzetik
zenbat esames han!
Arreta jarri zazu
diotsudan mezan
aitu ta tontakeri
askorik ez esan.
Pipiak jandakoa
Pipik bete dezan. (bis)

H. Arana
Pipiri atera nahian
hainbeste etekin
feminismoak bete
horrenbeste erpin
hemengo pankarta bat
ta bularreko pin
ni logelara noa
akabo zurekin!
Dulceidak bideo bat du
bere neskarekin. (bis)

ANDOAIN

(2020-06-13)

Bertsolariak
A. Egaña, I. Beloki, M. Amuriza, A. Agirre, M. Lujanbio eta A. Mendiluze
Gai emailea
Unai Ormaetxea

Ondarreta eskola publikoko patioan eguerdian Andoaingo Punttuka Bertso Eskolaren bertako udalarekin batera San Juan bezperako ohiko saioa egoera berrira ekarrita.

A. Egaña - M. Amuriza

Gaia: Mendira elkarrekin joan zareten bi lagun. Andoni askotan joaten da mendira eta Miren gutxitan. Mirenek denbora hartzen du bazterrak ikusi, argazkiak atera... Andoni desesperatzen hasi da.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Igaran egun batez*

A. Egaña
Ni beti aurreraka
noa ttirri-ttarra
Hara horko moxala
ta hango lizarra
begiratu ze berde
daukagun belarra!"
Nik gaztea dirudit
ta zuk berriz zaharra.

M. Amuriza
Arnasa hartu eta
izerdia xuka
zu berriz zigarroai
zupa eta zupa
gelditu naiz ta nabil
kamerai musuka.
Alde hortik argia
kentzen didazu ta!

A. Egaña
Hara ze esan didan
hain lagun kuttunak
berekin pasa leizke
gau eta egunak
objetibo argiak
nere itzalez junak
argirik ez du galtzen
lehendik'e ez dunak.

M. Amuriza
Mendia bizi dugu
gu biok desberdin
zuk arin joatea
duzunez atsegin
joan tontorreraino
gailurra ager dedin
ta goitik behera niri
argazki bat egin.

A. Egaña
Ni gorantz joango naiz
triliri-tralara
baina aizu mendira
etorriak gara
zure argazkirako
pantano bat hara!
Ai ez zuk egindako
hanka zuloa da.

M. Amuriza
Hanka zulo bat dago
lokatzez hustua
zuk berriz orguiloa
hazia, puztua
hain arin joateko
hau nire juzkua:
norekin egin duzu
Andoni apustua?

A. Egaña
Neure buruarekin
alajaungoikua!
Badago arau on bat
arau mendikua
gaur apurtuko degu
ta bada nahikua
lauetan egitean
hamaiketakua.

M. Amuriza
Bokadiloa duzu
motxila horretan
ta nik presarik bape
ez gaurko honetan
zeure buruarekin
apustu ta obretan
ia beti irabazle
ta beti zorretan.

SENPERE

(2020-06-13)

Bertsolariak
O. Barroso, A. Servier, M. Sarasua eta R. Christy
Gai emailea
Aritz Bidegain

Larraldean, publikoarekin eta egoerak eskatzen zuen neurriak betez, Bertsularien Lagunak Elkarteak antolatu zuen bertso jaialdia.

O. Barroso

Gaia: Aste honetan 40 urte bete dira Naparra (euskal errefuxiatua) desagertu zela.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Duela hogei urte*

O. Barroso

Gure egonezinak noiz
hartzen du bakantza?
Lasa eta Zabala
nolako arantza!
Beste galdera ere
izan zen Jon Antza
Naparra desagertu
ta zenbat zalantza
gaur egun desagertu
zaigu esperantza. (bis)

Izan tortura, zauri
edo hilobia
gure historiak du
liburu lodia
orain alferrik dira
mila teoria
gure morala dago
ia eroria
galdera ikur bat baita
gure historia. (bis)

Demokrazia aipatzen
dute nola hala
ia errealitate
balitza bezala
guk ordea badugu
iragan zabala
hezurrak, haragia
mamia, azala.
Ordaindu behar duenak
ordaindu dezala. (bis)

A. Servier

Gaia: Egoera larria da. Lehergailua zartatuko da. Hari gorria mozten baduzu, horrek zu hilko zaitu, baina mila pertsona salbatuko dituzu. Hari urdinarekin kontrakoa gertatuko da.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mando baten gainean I*

A. Servier

Konzentratu behar naiz
zaudete isilik
inoiz espero gabe
hain momentu zailik…
Lehergailua hemen
ta bi hari soilik
zuen bizitza hari
batetik zintzilik.

Badut nere jakintza
nere bisioa
arriskua beti dut
noski bizioa
zorrozki beteko dut
ene misioa
ikus dezazuen zer den
sakrifizioa.

Bukaera hau zuen
bizitzen luzapen
jada ez ninduzuen
aspaldi jasaten
amak ere ttikitan
hau zidan erraten
aingeru aurpegia
ikusten zidaten.

Zuen patua ene
kezka printzipala
zuek salbatu, ni hil
momentu zitala.
Gorria moztuko dut
nola edo hala
nik bederen badakit
zerura noala.

Plaza ekimena. Villabonako bertso-saioa- Villabona. Gipuzkoa / Euskal Herria. 2020/6/5. XDZ

Inaxi Etxaberen hiletan bertsoak. Zarautz. Gipuzkoa. 2020/7/13. XDZ

ASTEASU

(2020-06-29)

Bertsolariak
A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Martin eta H. Mujika
Gai emailea
Amaia Agirre

Herriko jaiak zirela eta urtero plazan egiten den saioa herriko frontoian 19:00etan egin zuten. COVID-19aren neurriak betez 200 lagun bertaratu ziren.

H. Mujika – A. Arzallus - M. Lujanbio

Gaia: Dena jakin behar izaten duen izeba marmartia, *kotilla,* zara Maialen. Haritz oraintxe parrandan hasi berria den familiako gaztetxoa. Eta aitona sinpatikoa Amets. Sanpedrotako urteko bazkaria da, eta Haritz neskaren bati gerritik helduta, belarria berotuz… ibili dela jakin dute etxean. Baina, ez dakite nahi beste. Galdezka hasi dira bazkarian.

Neurria: Lauko txikia
Doinua: *Hona bildots eztia*

M. Lujanbio
Ibili omen zera
gaueko arrantzan?
H. Mujika
Soilik ibili nintzen
norbaitekin dantzan.

A. Arzallus
Lehen dantza egitea
ja bazen nahikoa
H. Mujika
baina aitona aspaldi
joan zen Jainkoa.

M. Lujanbio
Diozun norbait hori
ze etxetakoa?
H. Mujika
Hori esaten badizut
ez al da nahikoa?

A. Arzallus
Zer da sinpatikoa
edo sinpatika?
H. Mujika
Aitona guk daukagu
erabat jarrita.

M. Lujanbio
Bueno, bueno sustorik
ez zaidazu eman
H. Mujika
igual hasiko gera
postrerako teman.

A. Arzallus
Nolatan lortu dezu
txima zahar hoiekin?
H. Mujika
Egun, ederra zer den
ezin leike jakin.

M. Lujanbio
Bizarra ere noiztik
zuk moztu gabea?
H. Mujika
Konfinamenduan naiz
hori egin gabea.

A. Arzallus
Oaindik pelukeriak
al daude itxita?
H. Mujika
Zuk ez dezu egin behar
harako bixita.

M. Lujanbio
Badezu meritua
ligatzea hola
H. Mujika
bera neska zaharra da
ta ez dakit nola.

A. Arzallus
Bueno txoritxo horrek
nola du izena?
H. Mujika
Igual esango dizut
bere abizena.

M. Lujanbio
Nik jakin det bai dala
Karmenen iloba
H. Mujika
bere izeba bere
lagun izango da.

A. Arzallus
Gutxinez izango du
apetitu ona
H. Mujika
harek ere jaten du
aurrean dagona.

M. Lujanbio
Ta zer egiten dezute
hola juntatzean?
H. Mujika
Esku bat poltsikuan
bestea atzean.

A. Arzallus
Kontuz izebarekin
dena kontatzen du
H. Mujika
hau etorri aurretik
hobeto geuden gu.

M. Lujanbio
Baino etzateraino
edo etzan gabe?
H. Mujika
Gaur egun egiteko
modu asko daude.

A. Arzallus
Hori dena aittonai
ondo esplikatu
H. Mujika
zerbait esan ezkero
ez zaitea nahastu.

M. Lujanbio
Ez zineten ba aiko
bazterren batian?
H. Mujika
Ez, ez aritu ginan
etxeko atian.

A. Arzallus
Gaur eramango zaitut
nere eskutikan
H. Mujika
hortarako zu gazte
zaude oraindikan.

M. Lujanbio
Joxinaxiok esan dit
ikusi zinula
H. Mujika
esan berak inbidi
haunditxua dula.

A. Arzallus
Aurten festarik ez da
zuk a ze suertea!
H. Mujika
Orain eustea degu
erronka fuertea.

M. Lujanbio
Bueno hobe dezu jan
ta egon isilik
H. Mujika
apetitua moztu
didazu jadanik.

A. Arzallus
Nahikoa esan dezu ta
hartu zazu paga
H. Mujika
bihar gehio esango
dizut beharbada.

A. Arzallus

Gaia: Apiril erdian Berrian Andonik honela idatzi du: "Gile gara gu ere, kulturgile. Baina ez gaituzte esentzialtzat jotzen. Pandemia honek begi-bistan ipini du kontraesana: denek kulturgileen lanetik jotzen dute itxialdia goxatzeko. Eta, aldi berean, txakurraren ipurdia gara, bai lanera itzul gaitezen aurreikuspenetan eta bai laguntza-poltsen lehentasunak ipintzeko garaian ere. Guk entretenimendu hutsetik haragoko zerbait bagarela sinesten dugu, herri baten bizkarrezurra eraikitzeko garaian kultura ezinbestekoa dela. Nahi dugulako gara sortzaile eta kulturgile. "
Zu ere, Amets, kulturgilea zara. Nola bizi izan duzu azken bolada, kulturgintza ikuspegitik eta soldata aldetik?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

A. Arzallus

Nunbait kantatzen duen herri bat
ez omen da inoiz hiltzen
esaldi hori plaka zaharretan
dutenez soilik han biltzen
bi hilabete edo hirutan
ahalegindu naiz isiltzen
ez bertsorik ta ez plazarik ta
neure baitara hurbiltzen
ta aldi berean ikasten joan naiz
gutxiagokin bizitzen.

Diru sarrerak ere apenas
hala zelako derrigor
ta ez nezaiokeen *sailburuari*
mezu eskaerarik igor
aitortuko dut hiru hilabetez
patrika izan dut idor
baina begira ingurutara
eskaleak han ta ni hor
kejatzea ez zait asko gustatzen
ta gainera ez naiz inor.

Baina horiek dira neuregan
bukatzen diren problemak
hori baino ere harago doaz
herri ta kultur sistemak
eta nik neure egiten ditut
Andonik dituen lemak
bertsoak herri egin gaitzake
luzatuz gero antenak
eta ez soilik asfalto, auto
eraikuntzak eta trenak.

EREÑOTZU

(2020-07-02)

Bertsolariak
A. Arzallus, M. Lujanbio, E. Pagola eta U. Iturriaga
Gai emailea
Aritz Zerain

Ezohiko lekuan eta ezohiko muntaiaz, urteroko bertso jaialdia Ereñotzun. Festak ezin izan zirenez egin, uztailean astero kultur ekimen bat antolatu zuten. Hau izan zen lehenengoa. Neurriak eta distantziak hartuta 150 bertsozale bildu ziren pilotalekuan.

E. Pagola - U. Iturriaga

Gaia: Oporretarako etxeen elkar trukea egitea ohikoa da orain, eta zuek aurten Euskal Herritik ez zaretela aterako eta trukatzea erabaki duzue. Eli Durangora eta Unai Fagollagara (Ereñotzu) joango zarete oporretara. Gaur elkartu zarete xehetasunez hitz egiteko.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Praixku Galtzazarreta A*

U. Iturriaga
Tratua egiteko
ordua da noski
jatorrak gara eta
hau ez da garesti
xehetasun txiki bat:
beharko duzu busti
etxea uzten dizut
ume eta guzti.

E. Pagola
Bi ume soilik dira
eta ni lagun *guai*
lasai beste aldera
ere ez dezu nahi
nahiz eta hortik pizti
juan zeran Unai
etxea uzten dizut
azienda ere bai.

U. Iturriaga
Hori horrela zenik
ez nekien jakin
eta orain al zatoz
horrelakoekin?
Ni autonomoa naiz
erdi beltza *enfin!*
Ez dut arazorik nahi
aziendarekin.

E. Pagola
Beraz aziendarekin
aurrekoz atzeko
bale ez zaitut jartzen
horretan trantzeko
baina bertan badegu
zutzat lana lepo
makurtu beharko dezu
arto jorratzeko.

U. Iturriaga
Hori gauza polita
ni banoa, korri!
Horretarako nahi dut
zurera etorri
berdin dit nahiz ta eskuak
euki gorri-gorri
Arta-jorra experience
deitzen zaio horri.

E. Pagola
Baratzako lurretan
atxurra luzatu
bertan izerdi eta
eltxoak uxatu
behar zera bi astez
lurrera iltzatu
ezetz berriz landa hau
erromantizatu.

U. Iturriaga
Erroma ez dago modan
lagun Eli aizu!
Eta lana badakar
egiten zait pisu
Wi-Fi ta guzti uzten dut
balkoi eta pisu
baina igual hori zer dan
zuk ondo ez dakizu.

E. Pagola
Lasai moldatuko naiz
Wi-Fi barrenean
ahalegina egin da
nere kemenean
zuk hartu egunkaria
larri zaudenean
biñeta bat joango da
zure omenean.

ZALDIBAR

(2020-07-05)

Bertsolariak
M. Amuriza, I. Elortza, E. Lagoma eta J. Maia
Gai emailea
Maite Berriozabal

Zaldibarko Udaleko euskara sailak antolatuta, arratsaldeko 18.00etan.

M. Amuriza - I. Elortza - E. Lagoma - J. Maia

Gaia: Hemen beheran pankarta bat dago Zaldibarko zabortegiari buruzkoa. Bihar bost hilabete zabortegia goitik behera etorri zela.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

E. Lagoma
Alberto ta Joakinen izenak
iltzatuta eguzkian
oroitzen ditugu goiz goizetan
ta oroitu arrastian
"Zaldibar laster argitu bedi"
idatzi dugu zapian
batzuk eroso mugitzen dira
laino ilunen azpian.

I. Elortza
Danok aldatu beharko dogu
aldatu behar dogunez
baina badira hemen batzuek
bardin parte, bardin juez
Joakin ta Alberto lurpera joan
ziren orduko egunez
errudunek be izenak daukiez
eta danok dakixuez.

M. Amuriza
Hauteskundeak ate joka ta
kanpainetara begitu
Zaldibarkoa aipatu barik
inor ez da errenditu
nahiz herritarrek protestan segi
eta mugak egokitu
oin arduradun politikoak
nork birziklatuko ditu?

J. Maia
Euskal Herria bihurtu dute
gezur haundien lurralde
hauteskundeak berriz guztion
nahasketaren sukalde
zaborra ere pilatzen doa
justizia egin gabe
ze lur azpitan ez dakit baina
gure bihotzetan daude.

Triki-bertso kalejira ibiltaria. Antzuola. Gipuzkoa. 2020/5/30. XDZ

J. Maia

Gaia: Bertso asko eskatu dizkizuete konfinamenduan. Orain beste eskaera bat jaso duzu. Bere bikotea eta bere maitaleari buruz hiru bertso eskatu dizkizu. Bat bere betiko bikoteari iradokiz haustura, bigarrena maitaleari aukera berriak iradokiz eta hirugarrena, aurreko aukerak kale eginez gero, bietako egoerak konpon ditzakeena.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

J. Maia
Zer moduz zaude maitea
ni oso-oso gustora
konfinamendu honetan
nere barreneko lora
bakardadean hazi da
eta nago txora-txora
nota haundiz pasatzen det
itxialdiaren froga
zuk segi zure etxean
eta ez zaite aztora
ni bakarrik ondo nago
azkar joaten zait denbora
agian itxialdi hau
betirako izango da. (bis)

Epa, bueno, ze muz, kaixo...
oso denbora luzean
jardun naiz irudikatzen
poesia bat haizean
bakarrik ez nago ondo
itxialdiko leizean
ta altxor bat topatu dut
zu zaitudan konplizean
ez naiz lasai geratuko
gauza bat esan ezean
nola hortxe bizi zaren
aldameneko etxean
haruntza begira nago
balkoira ateratzean. (bis)

Nola nagoen ez dakit
ze gorputz eta ze modu
eguna batzutan baita
infernu, bestetan zeru
buruaren bi aldetan
deabru eta aingeru
hola gaudenak burua
ere galdu dezakegu.
Bata zein besteak, biak
zarete nere eredu
nere udaberri ta uda
nere udazken, nere negu
zuek idatzi neri ta
gero ikusiko degu. (bis)

ADUNA

(2020-07-15)

Bertsolariak
U. Mendizabal eta E. Pagola

Aburuza sagardotegian bertso afaria. *Sagardoak elkartzen gaitu* ekimenaren barruan, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Musika Bulegoak eta Bertsozale Elkarteak lankidetzan bultzatako ekimena.

U. Mendizabal - E. Pagola

Gaia: Sagardozale batzuentzat tolaretik ateratzen den lehen muztioa omen da onena. Ia berez etortzen dena. Beste batzuen ustez, azken zanpatukoa, ederki kostatako muztiotik ateratzen dena omen da sagardorik onena. Eta bertsotan? Erraz datorrena edo kostata datorrena, zein da hobea?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Oihan beltzean zoinen eder den*

U. Mendizabal
Sagardua ta bertso kontua
konpara liteke errez
batzutan gozo ateratzen da
ta bestetan berriz trakets
batzu-batzutan nahigabe ere
hortxe irteten da berez
bestetan berriz gogor zapaldu
eta tantorik ere ez. (bis)

E. Pagola
Batzutan doa nahigabe eta
gero ez da ateratzen
bestela ere sagar onik han
majo kostatzen da sartzen
metafora bat aurkitu nahian
zerbait zukutzera goazen!
Herdoildutako tolare baten
zail da ezer ateratzen. (bis)

U. Mendizabal
Herdoildutako tolare zaharra
baino berria nahiago
sagarrak bildu eta garbitu
egin behar da lehenago
gero tolare ondotik dator
muztio eta sagardo
bertsotan ere ezer ez dago
atzen lanik ez badago. (bis)

E. Pagola
Etxean rimak pixka bat landu
ta esaldiak ikutu
lanik ein ez dun bertsolaririk
inoiz ez da ezagutu
tolareakin hortxe gabiltza
estutu eta estutu
baina gutxitan ateratzen da
nahi genukeen aina zuku. (bis)

U. Mendizabal
Zuku hortatik egin liteke
gozotik hamaika trago
baina guk aldiz kupel barruan
egondakoa nahiago
bertsotan berriz ezberdintasun
txiki bat bada harago:
bertso kontuan egin berria
baino hoberik ez dago. (bis)

E. Pagola
Bertsotan behintzat hala gabiltza
hiru eskas, hamaika on
regulartasun pixka batekin
kosta azaltzea inon
azaltzen degu tolareotan
atzetikan ze lan dagon
dastatzailean lana izaten da
ze txapel ipintzen zaion. (bis)

U. Mendizabal
Kalitatea izenda leike
puntan ipintzen dan prendan
gu aurreko lan danak eginda
etorri gera zerrendan
Aitor'e lanen aritu zaigu
nola hoi hala izaten dan
beraz Aitorrek estutu zala
ta ia zer irteten dan. (bis)

ONLINE

(2020-07-22)

Bertsolariak
A. Agirre eta E. Pagola

Villabonan grabatu zen libreko saioa. Errenteriako jaietan, Madalenetan, egiten den ohiko saioa. Grabatu eta hurrengo egunean eman zen streaming bidez.

A. Agirre - E. Pagola

Gaia: GAI LIBREAN

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

A. Agirre
Baina astindu aurretik
Eli goi eta behe
egitarauan bada
zerbait nobedade
nahiz gazteak ez egin
gaupasaren jabe
festak ez dira festa
dianarik gabe. (bis)

E. Pagola
Festak nola egin festa
badakizu zuk'e
guk alea jartzeko
eskatu digute
dianarekin kezka
azaldu nahi nuke
hoiek streaming nola
egin behar dute? (bis)

A. Agirre
Estrimista bezela
ez zaitea mintza
eguardira arte ez da
hasiko bizitza
jarri nahiean dabiltz
aukera anitza
dianak ta ez dianak
egiten dabiltza. (bis)

E. Pagola
Sarea astinduta
ta kaleak geldi
zentzurik ez daukala
iruitzen zait neri
festen harira zenbat
burugabekeri!
Giroa kendu eta
latosook segi. (bis)

A. Agirre
Gu bakarrik gaudela
ez da antzematen
nahi gabe asmatzen degu
parrandara joaten
santua nola gurtu
nahiz jardun edaten
gaupaseroik ez dabil
madalenak jaten. (bis)

E. Pagola
Nunbait madalen janez
ibili direnak
egoerakin pozik
ez daudenez denak
nahiz eta berez festak
izan Madalenak
aurtengo hauek izan
dira makalenak. (bis)

GASTEIZ

(2020-08-28)

Bertsolariak
M. Agirre, A. Arrizubieta, B. Garaio eta X. Igoa
Gai emailea
Aintzane Irazusta

Arabako Bertsozale Elkarteak Zabalgana gizarte etxe ingurura eraman zuen bertsoa jaialdi honen bidez.

M. Agirre – A. Arrizubieta

Gaia: Kultur jarduera guztiak jendez gainezka zeudela egin dut amets. Baina esnatu egin naiz. Manexek ezkor begiratzen dio kultur arloari zer ekarriko dion pandemiak. Aroak pentsatzen du onura ere ekarriko diola.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

M. Agirre
Igual edade kontua dugu
bueno behintzat ez da moda
Aroa uste dut gizarte hau ja
ez dihoala inora
zer doa behera? Animoa ta
segurtasun eza gora
ta reakzionatzen hasi orduko
krisia etorriko da.

A. Arrizubieta
Krisia ere etorriko da
nor ez da horren testigu?
Orain hilean saio bat dugu
ta lehen astean hiru
baina nahiz ez den inbertituko
kulturan hainbeste diru
igual jendeak kontzientzia hartu
dezan balioko digu.

M. Agirre
Nik ere entzun dut krisia dela
aldaketaren parada
ta igual zerbait berri asmatzen
gu hasi beharko gara
lehen gainbehera zihoanai jartzen
irudimenaren karga
baina hori dena iteko Aroa
indarra eduki behar da.

A. Arrizubieta
Indarra euki behar dugula
denez gure erabaki
zuk ez itzazu aurrera joango
diren aukerak ebaki
zerbait egingo dugu ta biok
nola, norantza, nork daki?
Pesimismoa uste dut dela
alferkerien aitzaki.

M. Agirre
Ta aitzaikien iturburua
beldurra izango da, *klaro!*
Gogoratzen dut lehen kontzertutan
gaua nuela igaro
jendea ondo-ondoan jarri
ta izerditan oparo
lehen molestatu egiten zidan
ta orain desiatzen nago.

A. Arrizubieta
Ba zuk antola ditzakezu ere
gauzak horretan baitatza
eta beharko dugu behingoan
dagoen jendea altxa
kontzientzia hartu ta antolatu
aukera bat hau da antza
eta gorrotoz izanda ere
egin dezagun iraultza.

B. Garaio – X. Igoa

Gaia: Xabi aita eta Beñat semea. Pandemia aro honetan aita egoitzan dago eta Beñat bisitan joaten zaio. Sekula ez dio aitak maitasun adierazpenik egin. Orain kristal atzetik egiten dio bisita eta gaur desberdina izanda. Aitak esan dio. "Ez dut bakarrik hil nahi; nire azken egunak zurekin konpartitu nahi ditut".

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

B. Garaio
Gaizki hasten diren istorioek
amaiera hola dute
emozioak adieraztea
ez zendun inoiz bertute
etxera etorri nahi duzula
gustora hiltzean truke
elkarrizketaren bat o beste
izan beharko genuke.

X. Igoa
Beldurrek eraman naute sarri
nire ahoa ixtera
ta orain Beñat zeinen argia
dudan gaurkoan hizkera
bai argi diot: joan nahi nuke
nik hil aurretik etxera
argi esanda zenbat sufritu
dudan kontuak atera.

B. Garaio
Asko sufritu duzula eta
ez al zara zu errudun?
Gauzak beste modu batean ere
egitea zuk demagun
maite zaitut, faltan botatzen ta
hoiek ez daude hain urrun
oso errexak dira esateko
ta zer kostatzen zitzaizun?

X. Igoa
Gizonok nola hazi gaituzten
guziak enbor beretik
beldurra izan dut batetik ta
lotsa ondoren bestetik
ateratzeko holako hitzak
Beñat nire ahopetik
ta gauzak ondo egin nahi ditut
dena bukatu aurretik.

B. Garaio
Etortzen bazara orain Xabi
nire etxeko artera
baduzu gauzak askoz hobeto
egiteko ere aukera
esaten duzu "Agian ez zait
behar bezainbeste atera".
Niri ere berdin pasatzen zait ta
maitasuna dut sobera.

X. Igoa
Dena kolpetik ez da irtengo
poliki behar da bete
ez naiz bigun bihurtuko orain
arte izandakoa fuerte
baina izanda gure parean
metakrilato bat tente
gizonik hotzenentzako ere
izotz bihurtu liteke.

Arabako Bertso Kuadrila Artekoa. Aramaio. Araba, 2020/2/15. XDZ

ONDARROA

(2020-08-29)

Bertsolariak
N. Ibarzabal, M. Amuriza eta U. Alberdi.
Gai emailea
Amaia Agirre

Ondarruko bertso eskolak eta Ondarruko Udalak prestatu eta Zaldupe ikastolan egindako bertso-saio musikatua. Arratsaldeko zazpietan hasi zen jaialdia ehun lagun entzule zirela. Musikariak: Gari Otamendi eta Araitz Bizkai.

N. Ibarzabal

Gaia: 90 urteko emakumea zara eta itsasoa da zure konpainia bakarra.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Nire garaian egindakoa
nahiko oihal, nahiko sare
urtetan sendo sartua nago
eta osasunez xuabe
ta itsasoa beti hain zabal
mugarik gabe goi ta behe
goiz ta iluntzez leiho ertzean
hortxe zauzkat parez pare
ta nik kresala neure azalean
zabaldua aldez alde
ni zahartuz eta aldatuz noa
ta zu berdin-berdin zaude.

Eta gauetan sarri entzuten dut
zure orroaren hotsa
eta neguan haitz izkinetan
masailen parera hotza
Ondarru eta zure historia
ez delako izan motza
garai batean bete zenigun
bai poltsikoa bai poltsa
ta marinelak itotakoan
herritarren min zorrotza
ze itsasoak bi gauzak ditu:
bizitza ta heriotza.

Eta sarritan kantatzen dizut
nik leiho aldamenean
ta erantzuna ere entzuten dut
nire bihotz barrenean
nolako poza hartu ohi dudan
zu harrotzen zarenean
eta malkoak irteten zaizkit
bare-bare zaudenean.
Nire historia amaituko da
laster zuzen-zuzenean
eta olatu bihurtu nahi dut
hauts bihurtzen naizenean.

N. Ibarzabal - M. Amuriza

Gaia: Ekai ondarroar transexualari buruzko dokumentalak zabaldu zuen Zinegoak jaialdia aurtengo otsailean. Bere buruaz beste egin zuen Ekai Lersundi nerabeari buruzko *"Mi pequeño gran Samurai"* dokumentala estreinatu zen bertan. Ekai, besteak beste, tratamendu hormonalaren zain zegoen eta ezin gehiago itxaron, 16 urterekin bere buruaz beste egitea erabaki zuen. Pentsatzen dut Miren eta Nerea gogoan izango duzuela otsailaren 15 hura.

Neurria: Zortziko berdina, lau puntuz eta zortzi silabaz
Doinua: *Gure herrian ligatzea*

M. Amuriza
Barren-barrenean denok
hartu genuen tiroa
ikusi genuen nola
belzten joan zen giroa
eta pentsatu nola bihurtu
litekeen lehen motiboa
gatazka partikular bat
borroka kolektiboa.

N. Ibarzabal
Borroka baten aztarna
zuelako erakutsi
egun hori orotituta
barrenari zelan eutsi?
Gizarteak, medikuntzak
ene ze ulermen gutxi
berak bera izan nahi zuen
eta ez zioten utzi.

M. Amuriza
Nahiz eta bakoitzak bere
bizitzarekin jarraitu
borrokak ez dira egun
batetik bestera amaitu
nahiz eta ahal dugun neurrian
guk inor ere ez epaitu
gizarteak kartzelatxo bat
izaten segitzen baitu.

N. Ibarzabal
Ta nola denok batera
kartzela horretan gauden
batzuk askoz larriago
batzuk han, besteak hemen
Ekaik erakutsi zuen
problematika hain garden
ta horrela pentsatu ohi dut:
ze normatiboak garen!

M. Amuriza
Nahiz eta askori etorri
igual animoa gainbehera
beste askok ere egingo
zuten ahalegin bera
eta kontuan hartu dezagun
banako haien aukera
zenbatek esango zuten
"Segi dezadan aurrera"

N. Ibarzabal
Moio izan zen beste bat
oso ezaguna jada
ta horrelako kasuekin
mutu geratzen bagara
ezin da aurrera egin
zeozer egin behar da
Samuraia Ekai gendun
borroka guztiona da.

M. Amuriza
Borroka hitza mahaiaren
gainean dago funtsean
eta ezin dugu utzi
geratu dadin hutsean
herri aske bat aldarrikatuz
aritu gara luzean
baina askatasuna hasten
da norbere gorputzean.

N. Ibarzabal
Ta askatasun txiki hau
onartu dezagun behintzat
geuretzako nahi duguna
esperoaz besteentzat
Ekai sinbolo bat baita
jada ondarrutarrentzat
eredu izan dadila
atzetik datozenentzat.

BERRIOZAR

(2020-09-04)

Bertsolariak
A. Arzallus, S. Robles, J. Soto eta M. Amuriza
Gai emailea
Maialen Belarra

Berriozarko Euskal Herria plazan elkartu ziren laurogei bat lagun udalak antolatutako jaialdian.

M. Amuriza - S. Robles

Gaia: Sei urteko bi haur zarete. Gaur hasi duzue ikasturtea. Zuen musukoarekin, distantziak gordez, eskuak garbituta... Klasea eman duzue eta orain eskolako patioan zaudete bertan bereizteko dauden marrei begira.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

M. Amuriza
Iaz baloia eta pilotak
genitunak hankartean
aurten ez dugu baimenik zeren
jolasa omen da kaltean
geure musuko eta pantaila
marra gorri hau tartean
astronauta bi ematen dugu
espaziontzi batean.

S. Robles
Ba bai ni ere etorri nintzen
patiora baloian bila
irakasleak ezetz esan du
ez da iazko marabila
nik maskarilan loreak dauzkat
eta zuk kohete pila
hau nahiago dut ta aldatuko
al didazu maskarilla?

M. Amuriza
Konforme niri hau aldatzea
ez zait batere inporta
asmatu beharko dugu zer ein
ez soka ta ez pilota
ezin elkarri eskurik eman
ezin besarkadak bota
zapata puntak ukituz gero
ez gara kutsatuko ta.

S. Robles
Ba bai guztiek esan digute
birus bat dagola hortik
halere Miren egia esan
ez dut ikusi inundik
zuk gurutzatu ezazu marra
edota egingo dut nik
zeren halere ez da zigorrik
hau baino okerragorik.

M. Amuriza
Ados neuk pasa behar dut marra
dut emozio itzela
hurbildu eta zure altzoan
eser naiteke horrela
ta irakaslea etortzen bada
haserre eginez bezela
esango dugu birusak jota
zorabiatu naizela.

S. Robles
Bai bada hortxe topatu duzu
Miren aitzaiki itzela
hala bai baina, hortxe txirrina
entzun berri dut horrela
zutitu zaitez, goazen klasera
beharrezko den bezela
galdetuz gero esango dugu
ezer gertatu ez dela.

M. Amuriza
Ados klasera joan behar dugu
txirrin ziztrina tarteko
aita ta ama ikusi nitun
atzo elkarren ganeko
musu eman ta zirri egiten
ia-ia ni lokartzeko
Gura al duzu nigaz ezkondu
ikutu ahal izateko?

S. Robles
Hasiera baten birusa zena
dena beldur ta ikara
lagun artean batuta ez da
horrenbesterako jada
zuk bapatean ideia itzela
izan duzun hori hara!
Arazorik ez klaseko denak
ezkontzen baldin bagara.

A. Arzallus

Gaia: Euskal Hezkuntza Sistemak, euskarak eta euskaldunok beste kolpe bat jaso dugu gaur. Mendigorriko gurasoek haurren ikasturtea D ereduan hasteko eskaera egin zuten eta Nafarroako Auzitegi Gorenak ezezkoa eman du.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

A. Arzallus

Lehenago ere hedabidetan
egin da mila sarraski
Osasungintzan, mila lekutan
euskara beti lurrazpi
telebistan'e ez da gelditzen
ez kirol ta ez marrazki
ta Mendigorrin euskara gorri
ta Gares berriz garesti
orain hezkuntzan kolpeka dabiltz
bestea ez bazen aski. (bis)

Gaurko notizi izan liteke
baina ez da nobedade
ze alfabeto motzekoentzat
guztia da A eta B
ta egin dira gure esparru
salbu bakan hoien jabe
eta hezkuntzan haur batzuk utzi
euskal aukerarik gabe
zorigaitzean Iparraldean
hortara ohituak gaude. (bis)

Ni nazkatu naiz erantz ditzagun
maskarillak ta maskara
edo kantuak dion bezala
bagoaz zerri askara
nork uste zuen epaile batzuk
salbatzerikan euskara?
Baimenaren zai, legearen zai
alperrik biziko gara
itzul gaitezen ikastola zen
haserako arimara. (bis)

LIZARTZA

(2020-09-05)

Bertsolariak
A. Arzallus, M. Lujanbio, O. Iguaran eta J. Soto
Gai emailea
Amaia Agirre

Ohiko lekuetatik aparte, aurtengoan Elizako arkupean, zimitorioan, egin da *Eman kulturari arnasa* izenpean antolatutako bertso saioa. 130 lagun inguru batu ziren.

J. Soto – M. Lujanbio

Gaia: Maialen amona eta Julio biloba zarete. Lizartzan udaleko zinegotzia ere bazara Julio eta gaur amonaren etxera joan zara larunbatero bezala bazkaltzera. "Kaixo, amona! Zer dago bazkaltzeko?". Eta amonak: "Bazkaltzeko? Galdetu egiten duk gainera!". Muturrak saltsan. Zeini okurritu zaio mezaren ordu berean jartzea bertso saioa? Ez al dakik Ama Birjina Sagrariokoaren bederatzi hurrena dela eta ermitan meza dagoela ordu berean?"

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mando baten gainean I*

J. Soto
Birusak ekarri digu
okerra galanta
baino amona ez da
izan gure falta
apezak erabaki zuen
ordua ta data
aforoak gainezka
egingo zula ta.

M. Lujanbio
Mezetara joateko
nik banun asmoa
ta saioa jartzea
ez zen ba sanoa
bertso hoiek aitzera
Julio ez noa.
Nola jarri dezute
meza paganoa?

J. Soto
Bertsolariak daude
maliziz beterik
bertsozalez ezin da
aipatu besterik.
Beraz mezako orduak
ez dauka kalterik
elizan ez da komeni
holako jenderik.

M. Lujanbio
Nere iloba baina
lotsik ez daukazu!
Jende gehiegi zala
ze narrats, ze faltsu
ba nik apaiza nahio
dotore ta ahaltsu
kantatu hobeto ta
mugitu igualtsu.

J. Soto
Hau pasatu ez zela
zen berrogei urte
ermitan meza dute
ta ai ze suerte!
Bertsoak izango du
eliza arkupe
fedea gora doala
poztu behar zenduke.

M. Lujanbio
Bai nola beteko da
elizape hura
jende dana nahastuta
ganauan modura
igual batzuk eztula
eta kalentura
lehen'e gure herria
hola hondatu da.

J. Soto
Bertsoaren tokia
gaur zimitorio
hala're kristautasunak
gaur zer ondorio!
Neska bat katolika
denez Lujanbio
Ama Birjinai zerbait
kantatuko dio.

M. Lujanbio
Dena ez det sinisten
aditzen detena
nik Hitzetik Hortzera
ikusi det pena
boza bastante txukun
ta badauka sena
baina neska motz hori
bera da txarrena.

J. Soto

Gaia: Atzoko albistea da Julio. Nafarroako Auzitegi Nagusiak ez du onartu Mendigorriko haurrak aurten D ereduan has daitezen. D eredua jartzearen alde auzibidea hasi zuten uztailean gurasoek, eta kautelazko neurri gisa eskatu zuten ikasturte honetan haurrek D ereduan hasteko aukera izan zezatela. Baina auzitegiak ez du eskaera onartu. Gurasoen nahi eta borondatearen aurka, Mendigorriko A ereduan edo Garesko D ereduan hasi beharko dute haurrek ikasturtea.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Bentara noa bentatik nator I*

J. Soto

ETB3 ta haur-eskola
lehenago egin zen bando
ta orain berriz D eredua
debeku horko ta hango
Naparroako euskal txoriai
moztu zaio hegal frango
eta berririk baldin badu're
askorik ez du izango.

Disney Channel erderaz dugu han
Doraemon euskeraz hemen
ta haur eskoletan han erdera da
ta erdera genuen lehen
ta orain berriz D eredua
lehenago're hortan geunden
ongi dakite katebegirik
garrantzitsuena zein den.

Gipuzkoatik begiratuta
bizi da erdi patxaraz
ta Iparralde ta Naparroan
etsitzen dugu bolaraz
baina bidean segi beharko da
borroka eta dardaraz
bestela nekez egingo dute
gure umeek euskaraz.

ATARRABIA

(2020-09-09)

Bertsolariak
I. Majuelo, A. Labaka, O. Enbeita eta U. Alberdi
Gai emailea
Amaia Agirre

Karrikaluze Euskara Elkartearen eskutik, Atarrabiako plazan *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua. Musikariak, Araitz Bizkai eta Gari Otamendi. Ehun lagun bildu ziren.

A. Labaka - U. Alberdi

Gaia: Zu, Uxue, Lesbos uhartean Moria errefuxiatuen kanpalekuan bizi den neska bat zaitugu eta zu, Ane, zure borondatez laguntzera joan den mediku gaztea. Hiru mila pertsonarentzako lekua duen lurrean hamahiru mila errefuxiatu bizi dira eta ezin da inor kanpamendutik atera. Ez daukate osasun zerbitzurik, garbiketa arazo larriak... Ane, atzo Uxue gaztea etorri zitzaizun antsietateak jota bere onetik aterata ezin duela gehiago esanez. Gaur gauean sutea piztu da.

Neurria: Lauko ertaina
Doinua*: Lur nintzen eta lurtuz noa*

U. Alberdi
Ez etxe, komun bakarra
ta dutxa bat ze datu
bi aukera soilik dugu
hil edota zoratu. (bis)

A. Labaka
Zer ote da gogo ona
edota formakuntza?
Laguntzera etorri eta
nik behar dut laguntza. (bis)

U. Alberdi
Ez dakit zer sentitzen den
laguntzaile larruan
baina irla bihurtu naiz
irla baten barruan. (bis)

A. Labaka
Irlari kendu nahi diot
hainbeste bakardade
parean jarrita ere
ez gaude parez pare. (bis)

U. Alberdi
Nola eraitsiko dugu
gure arteko pareta
jada zabor humanoan
pare jarrita gaude ta. (bis)

A. Labaka
Molestatzen dunarekin
naiz ni egon haserre
juxtu hori egiten da
baztertu eta erre. (bis)

U. Alberdi
Orain kanpoan gabiltza
lehen geunden estu-estu
errautsetatik sortzea
ez dago denon esku. (bis)

A. Labaka
Fenixak izango gara
elkarri lagunduta
har zazu besarkada bat
maskarilla kenduta. (bis)

U. Alberdi
Nahiz ta estimatzen dudan
besarkada ta hatsa
hau da juxtu gaur Europak
sortzen duen kiratsa. (bis)

On. Enbeita – I. Majuelo

Gaia: Onintza, duela 60 urte baserrira ezkondu zinen. Bizitza osoan zure senarraren gurasoak ez bazen, zure senarraren osaba, zure senar defuntua, gero zuen seme-alabak, zaintzen aritu izan zara. Gainera, baratza landu eta ganadua gobernatzen. Gaur zure seme-alabek zaintzarako eta konpainiarako ondoan jarri dizuten neska gazteari halaxe esan diozu: "Irati, badakizu zer? Nire etxekoek uste dutena baino askoz hobeto nago, baina nazkatu naiz beste denak zaintzen eta trukean muturrak ikusten. Nahiago ohean irratia entzuten besteen purrustadak aguantatzen baino. Zuk ez esan inori, baina gaur bazkaltzera kanpora joango gara. Ireki armarioa eta aspaldi jantzi ez dudan soineko urdina hurbilduko didazu mesedez?

Neurria: Zortziko berdina, lau puntuz eta zortzi silabaz
Doinua: *Gure herrian ligatzea*

On. Enbeita
Detaile bakar bat ez ta
niretzako bat ta bera
beti behar dun jendea
etxe hontan gora-behera.
Ni honaino iritsi naiz
neska, dena *a la mierda*!
lagunduko al didazu
bizitza gozatzera?

I. Majuelo
Zure azken urteetan
itzuli zara argira
eta bizitza itzuli
nahi zenuke erdira
dena horren txar ta horren gaizki
ez zazula begira
berandu baldin bada ere
zutaz gogoratu dira.

A. Labaka
Nik behintzat hala egingo det
ni aitortzear nago
nere eskutan dagon dena
ta ahal bada gehiago. (bis)

U. Alberdi
Nik babes hartu dut juxtu
gaur zure besarkadan
baina beste hogeita hamar
dauzkazu zain iladan. (bis)

A. Labaka
Beste hogeita hamar ilaran
eta nola sokorri?
Agurtu behar zaitut baina
behar badezu etorri. (bis)

On. Enbeita
Behinola alargundu nintzen
eta gloria hauxe da
ta orain seme-alabak
datozkit nire gainera
pankartak egiten dabiltz
"Bizitzak erdigunera"
eta ama kondenatu
nahi lukete sukaldera.

I. Majuelo
Bizitza landatu duzu
eta jaso duzu herra
nire bizitza izan da
orain artean ankerra
beraz guk osa dezakegu
orain bikote ederra
ikas dezagun gure kasa
zer ote dugun plazerra.

On. Enbeita
Gurera etorri zara
zure herritik ihesi
ta begira gu ere ez gara
hain moderno, hain berezi
niri ipurdia garbitzen
ez zintuzket gura hezi
nik ez dut hori nahi eta
zuk ez duzu hori merezi.

I. Majuelo
Beraz gu hontan ados ta
egin beharko dizut kasu
bi emakume heldu gara
ta ez bi atso hain txatxu
soineko urdin hori aizu
ongi geratzen zaizu.
Zure soineko gorria
niri utziko al didazu?

On. Enbeita
Herentzian zuretzako
pozik utziko nuke nik
biok tranpak egitea
nik ez nuke nahi besterik.
Hemen ez da alabarik
ez da agertzen semerik
niri korrientea jarraitu
ta ez euki inoiz umerik.

I. Majuelo
Lasai nire bizitza hau
ez da ez zure berbera
ez naiz sekula atera
eta baratza lantzera
baina gozatu nahiko nuke
zuk nahi duzun antzera
bizkarra makurtzeari utzi
eta goazen jatetxera.

AMEZKETA

(2020-09-19)

Bertsolariak
J. Uria, A. Arzallus, M. Lujanbio, H. Mujika eta X. Illarregi
Gai emailea
Imanol Artola Felix

Azkarate eta Bedaio artean dagoen Zarate lepoan egitekoa zen bertso saioa Azken Muga izeneko ekitaldien barnean, baino eguraldi txarragatik Amezketara ekarri zuten, Altuna anaiak pilotalekura.

M. Lujanbio - X. Illarregi

Gaia: Maialen, eskulturagilea haiz. Eskultura berezi batzuk egin ditun mendian, natura erdian. Xabat abeltzainaren abereak ibiltzen direneko inguruetan jarri ditun eskulturak. Kontua dun, Xabaten abereek hazka egiteko erabili dituztela hire eskulturak eta bat baino gehiago erorita eta apurtuta agertu direla.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mando baten gainean I*

M. Lujanbio
Sarraski haundigorik
nik ez det ikusi
suntsitzen hasi eta
ene nola suntsi!
Takto haundirik ez dute
hoiek erakutsi
zure aberek ze kriterio
artistiko gutxi.

X. Illarregi
Pinturak egin ditu
lehenik markoan
gero eskultura bat
mendian, kanpoan
denak erori dira
Maialen gaurkoan
ez zeunden hain seguru
egiterakoan.

M. Lujanbio
Abildade faltarik
ez nuen ageri
azken detaileraino
ondo gera bedi!
Behiek bota dituzte
ene ze miseri
ta gainera behizaina
gainean eseri.

X. Illarregi
Nahiz jarri dituzun
hasieran finko
ni ere haserre naiz
ta gainera tinko.
Kaltetua ni bainaiz
hau hemen egin, to!
Lehen betizu ziren
eta orain pinto.

M. Lujanbio
Pinto eta betizu
abere motela
ez dute ondo segi
euren karrusela
zuk ez dezu jakingo
hoiek ez bezela
nere enborrek miloiak
balio dutela.

X. Illarregi
Bat behiak zikindu du
ta bestea urak
horrelakoxe gauzak
ditulako udak
hau filosofia bat da
ta ahaztu dudak.
Bere selekzioa
egin du naturak.

M. Lujanbio
Selekzionatu ditu
haundi eta ttiki
batzuk lurrera bota
poliki-poliki
"betizua bai artea
adar eta titi"
esango nuke baino
ni ez naiz Gorriti.

X. Illarregi
Eta hori esanda
jarri zara horra
neretzako zurea
bai zen hitz gogorra
esaten nuen bai nik
zurea ze altxorra
betidanik izan da
arte bat hauskorra.

M. Lujanbio
Hauskorra pentsa zazu
gauza ona dela
horrek historiaren
karga du itzela
betizuok akabauko
dira dena dela
ta enborrak segiko du
menhirrak bezela.

X. Illarregi
Salgai jarri ditu ta
hurbildu zaizkigu
hara egurrezkoak
bat, bi eta hiru
erosi behar dizut
honek merezi du
txabola egiteko
balioko digu.

LAZKAO

(2020-09-25)

Bertsolariak
I. Zubeldia, I. Urdangarin, M. Lujanbio eta O. Iguaran
Gai emailea
Aizpea Garmendia

Gerriko Kultur Elkarteak, Lazkao Txiki Musika Eskolak eta Lazkaoko Udalak antolatu zuten saio berezi hau. Lazkao Txiki gogoan egiten duten ekimenen artean musika eta bertsoa uztartu zituzten. Eneritz Jauregi Agirresarobek zuzendutako Lazkaoko banda aritu zen bertsolariekin batera.

M. Lujanbio – O. Iguaran

Gaia: Hiru hitzetan hauxe duzue gaia: ahoa, begiak eta belarriak

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

M. Lujanbio
Pandemia du izena
galarazi digu sena
eta funtzioz aldatu zaigu
gure zentzumena
ezinegona ta pena
orain ikara da dena
eta begiek esaten dute
esan ezin dena. (bis)

O. Iguaran
Ta betaurreko tristetan
lurrun pila bat bistetan
tik bat duenak berriz problema
latza aldiz bertan
bekaitz beztuen pistetan
edota begi klisketan
inoizko ozenen ari zaizkigu
begiak hizketan. (bis)

M. Lujanbio
Ze diskurtso da zilegi
entenditzea zailegi
geure bizitza bihurtu zaigu
geure amildegi
komunikabideak segi
kontatzen mila miseri
ezer garbirik aditzekotan
zarata gehiegi. (bis)

O. Iguaran
Gezurra bada nagusi
ezin da garbi ikusi
ta belarriek musukoaz gain
hainbeste igurtzi
lehen betaurrekoak utzi
belarritakoz ez gutxi
utzi diegun karga guztia
ezin dute eutsi.

M. Lujanbio
Mila agindu azaldu
ez ulertuta igual du
ez umeentzat, ez zaharrentzat
ezer ez da malgu
milioika musuko saldu
ta bolumenak apaldu
baina ahoak tapatu arren
ahotsik ez galdu. (bis)

O. Iguaran
Ta musukoaren traba
lehen agindu bat zen hara
ohartzen nago pizti bezatu
hutsak egin gara
ozena balitz algara
musuko tela zer da ba?
Arriskutsuen daukagun mozal
sinbolikoa da. (bis)

I. Zubeldia – I. Urdangarin

Gaia: Lazkao Txikik ongietorria eman digu gaur, eta zuek orain duzue berarekin hitz egiteko unea.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

I. Urdangarin
Aupa Lazkao Txiki
zer moduz lehenbizi
beheko berri ematen
beharko naiz hasi
zu joan zinenetik
askoren desgrazi
Lazkaok jarraitu du
hazi eta hazi
herrian ezezagun
egin dira kasi.

I. Zubeldia
Andregairik ez zizun
bilatu Birjinak
zuk hala ere nahigo
zenitun sorginak
geroztik egin ditu
kukuak zirinak
ta oraindik kalean
dabiltza sardinak
zuri "Alto!" esaten
zizuten berdinak.

I. Urdangarin
Herririk herri zenbat
bazkari eta mahai
zenbat dantzaldi libre
agarratu ta jai
garai haiek gogoan
dabilzkigu guk ai!
Eta zuen borrokak
gure ahuan darrai
euskera libre dago
bertsoa ere bai.

I. Zubeldia
Nola lortu zenuen
horrenbeste ospe?
Hainbeste bertso eder
ta txiste ilustre
inork ahaztu zaitunik
ez zazula uste
umeek marrazkiak
ikusi dituzte
ta monjek ere faltan
botatzen zaituzte.

I. Urdangarin
Konbentutikan metro
gutxira neurtuta
plaza bat dago zure
izena hartuta
ordu txiki batzutan
bertara sartuta
sarri kantatu dizut
lepotik hartuta
zu ere bertan zaude
harri bihurtuta.

I. Zubeldia
Zenbat arrazoi gozo
ote dezu eman?
Denak entzun ditugu
gainera primeran
agurtuko zaitugu
saio bukaeran
eta ezin dizugu
segi zazu hegan
Florentino ta Patxi'i*
eskuminek eman.

**Florentino Goiburu eta Patxi Iraola*

ZIZURKIL

(2020-10-02)

Bertsolariak
O. Iguaran, H. Mujika, A. Arzallus, A. M. Peñagarikano eta M. Lujanbio
Gai emailea
Amaia Agirre

KILOMETROAK 2020aren harira antolatutako jaialdia herriko frontoian

O. Iguaran - H. Mujika - A. Arzallus - A. M. Peñagarikano - M. Lujanbio

Gaia: Joaquin Salvador Quino hil berria da. Mafalda pertsonaiaren sortzailea. Eta hari horri tiraka jakin nahiko nuke zuek umetan zein ipuinetako pertsonaia, zer komikitako pertsonaia edo zein marrazki bizidunetako pertsonaia zenuten gogoko. Umetan zein zen zuen idolo txiki hori edo miresten zenuten pertsonaia hori.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

O. Iguaran
Ai Pippi Langstrump a ze artista
ta bere mototsen soka
astoa zaldi, zaldia asto
margotuz nahiko pinporta
autoritate guztien aurka
ta ez zitzaion inporta
bere mototsen pare nahi nuen
grabitatearen kontra.

H. Mujika
Nahiz eta Pippi ta Spiderman
gogoan izan oraindik
gure garaiko Piolin ere
desagertu den jadanik.
Nere arreta berpizten zuten
arrautza baten bi zatik.
Nik Kalimero miresten nuen
ta ez galdetu zergatik.

A. Arzallus
Haurra nintzela baloiarekin
egina zenbait borroka
Oliver eta Benji baziren
ta eurekin nahi nuen joka.
Baina egun baten ustekabean
aurrean Mafalda toka
ta hortik aurrera saiatu nintzen
munduari ostikoka.

A. M. Peñagarikano
Hainbeste urte igaro dira
ni ia ahaztuta nengon
izanez ere horrelakorik
orduan ez zen edonon.
Gaurko gazteak ezaunak ditu
Songoku eta Pokemon
gure garaian maiteenak ziran
Mortadelo ta Filemon.

M. Lujanbio
Erdi neskato ta erdi robot
Arale esango genduke
ordu ta ordu ematen gendun
zima more haien truke
Heidi're bazan baina ni ez nintzen
Heidiren tristura *bukle*.
Berriz, Mafalda izatearren
zopa ere jango nuke!

A. M. Peñagarikano – H. Mujika

Gaia: Peña, behin entzun nizun baduzula bertsoari denbora gehiago ez eskaini izanaren pena. Bertsotatik bizitzeko apustua serio egin ez izanaren arantza. Gaur elkarrekin bazkaltzen ari zinetela, Haritzek esan dizu: "Nik egin behar dut bada apustua, baina baditut nere kezkak eta zalantzak. Argituko al zenizkidake?"

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

H. Mujika
Erdi bidean gelditu al zen
Anjel zure jarioa?
Hautu hau hartuz egin dezake
honen erremedioa
plazara joan ta bertan kantatu
ta ondoren adioa.
Baldintza onak badauzka baina
nomina prekarioa. (bis)

A. M. Peñagarikano
Asko pozten naiz, nahi izan dezu
neri galdera egitea
ahal dan moduan aholkatu nahi det
nik nere lagun maitea.
Noski bertsotan ez dezu izango
patrika bete-betea
ez pentsa horren xamurra danik
bertsolari izatea. (bis)

H. Mujika
Nahiz ta gazterik ederki hasi
oholtzatan eta plazatan
etapa berri batean asko
ikusten ditut atakan
saioa hemen ta beste bat han
ostiral, larunbat, jaitan...
Baina hori soilik egoten al da
bertsolariaren baitan?

A. M. Peñagarikano
Konturatzen naiz nahi zenukeela
zuk bertsoetatik bizi
jadanik askok esan dizute
"Bertsolari ona haiz hi".
Baina apustua apustu da ta
nahi dizut adierazi
askotan galdu egiten dala
ta gutxitan irabazi. (bis)

H. Mujika
Baino ez nuke nahi ematea
entzuleak kalabaza
urte luzean ibili nahi det
saioz saio, plazaz plaza
gero atzetik gazteak datoz
ta haiek agian pasa
eta orduan txipa aldatzen
ez da izango erraza. (bis)

A. M. Peñagarikano
Ohitura txarrak hartu daitezke
kontuz ibili laguna
eta pentsatu ez dala hutsa
beti bertsozko jarduna
ondo badakit zu nola zeran
oso mutil zentzuduna
ze esatea nahiko zenuke?
Egin zazu ahal dezuna! (bis)

H. Mujika
Lehen bi onenak ibili dira
plazaz plaza saioz saio
baino Covid-a etorri da ta
orduan denari aio.
Nahiz jakin zein den nere bidea
eta nik zer dudan nahio
horri denbora ematekotan
zeri kendu behar zaio? (bis)

A. M. Peñagarikano
Bertsolariak gaur egun ere
oso onak asko daude
eta denbora nola igaro
zu orain galdezka zaude
horra Egaña nola egin zan
hainbeste txapelen jabe
eta egunak pasatzen zitun
umeak ikusi gabe. (bis)

ZUMAIA

(2020-10-09)

Bertsolariak
J. Maia, I. Elortza, S. Lizaso, M. Lujanbio, A. Egaña eta N. Elustondo
Gai emailea
Unai Manterola

Zumaiako Bertso Eskolak urtero antolatzen duen jaialdi arrakastatsua aurten lekuz aldatu beharrean aurkitu da espazio gehiago izate aldera. Zumaiena aretora eraman, eta berrehun bat lagun inguratu ziren bertara. Eguna ere ez zen ohikoa. San Telmo jaietan izaten da beti eta oraingoan apiriletik udazkenera aldatu behar izan zuten.

I. Elortza - S. Lizaso

Gaia: Autobusa matxuratu eta gurutzatuta geratu da geltokitik oso gertu. Igor txoferra da eta Sebastian bidaiaria. Jende guztia atera da autobusetik, baina Sebastian bertan dago geldi.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Aranora joan ziranI*

S. Lizaso
Zelebrea ez al da
txoferran kemena?
Maniobran egin du
akats nabarmena
iritsi aurretik "Jetxi!"
agintzen duena
bidaia osoa da
ordaindu detena.

I. Elortza
Hementxe gelditu naiz
kurba bat hartuta
lehen pixka bat edan dut
igual neure kulpa.
Geltokiraino nonbait
duzu ordainduta
ba eroan beharko zaitut
lepoan hartuta.

S. Lizaso
Proposamen hori noski
zure kalterako
amets hori ez zaizu
ondo aterako
begiratuta zaude
argal eta plako
hemen geldituko gera
puxka baterako.

I. Elortza
Plako nagoela ta
ez zaude seguru
geltokira heltzea
hoixe da helburu
hemendik ehun bat metro
izango ditugu
baina igual errekan
amaituko dugu.

S. Lizaso
Erreka behar luke
zuretzat kastigu
autobusa dagolako
hormakin katigu
ehun metro falta dira
neu ere testigu
aterkirik ez dut eta
euria ari du.

I. Elortza
Lehenago ez nintzela
indartsu ta polit
orain euria ari dela
ta ez zaudela onik
zure erretolika
entzun dut osorik
zuk ez duzu etxera
joateko gogorik.

LARRABETZU

(2020-10-16)

Bertsolariak
E. Lekue, M. Lujanbio, M. Amuriza eta U. Iturriaga
Gai emailea
Malen Amenabar

Eskolako aterpera inguratu ziren 150 lagun, bosna euro ordainduta, Kultur Bilguneak antolatutako jaialdia entzutera. Hotz egiten zuen, baina bertsolariek berotu zuten saioa.

U. Iturriaga - M. Lujanbio

Gaia: Bi bertsolari zarete, baina baita bi idazle ere. Liburu bana ateratzeko eskatu dizuete. Liburu bereziak. Maialenek Unairi buruzko liburua atera beharko du, eta Unaik Maialenena. Maialen bi aldiz txapeldun, pentsalaria, aitzindaria... Unai idolo bat, Zazpi eskale... Sekretuak dituzte biek, eta elkar miresten duzuen adinako inbidia diozue elkarri.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

U. Iturriaga
Enkargu bat izan da
enkargu galanta
nuunundik etara
biher da soldata
gure bi txapelduna
artista aparta
ni baino gehiau igual
dabil hau dala ta.
Haizea badeuko bai
baina masa falta. (bis)

M. Lujanbio
Unai Iturriaga
tipo autonomoa
thriller batena dauka
nobelak tonoa
"Mundua harantz badoa
ni bestera noa"
mono askoren artean
bertsoen monoa
ilea urdindu arte
lehenengo tomoa. (bis)

U. Iturriaga
Grazia itten dauela
uste beharbada
ba bere bizitzara
gatozen ba jada
dana da inkognita bat
lartxu beharbada
orriotan sartukot
Unai Iturriaga
bestela kontaketa
oso mantsoa da. (bis)

M. Lujanbio
Besteak klasikoak
bera rockanrolla
besteak arrazoia
bera deskontrola
gaztetxetako neskak
baba dariola
mutil makarra denak
"ese Unai mola"
Sex-symbola izan zen
ez galdetu nola. (bis)

U. Iturriaga
Ai gure Lujanbio
artista mortala
deukon gaitasuna ez
da gauza normala
pentsalaria eta
da *femme fatal*(e)a
apur bat iriskaitza
antinaturala
hortik komentatzen da
bihotza daukala. (bis)

M. Lujanbio
Zazpi Eskale-rekin
estadioak hara
betetzen zituena
barre ta algara
bera antisistema
halakorik bada
ta ezpata kamustu
zuenean hara!
Gara-ra sartu zuten
zaharren gauzetara. (bis)

U. Iturriaga
Maialenek sekula
ez eban egin lan
ederto bizi izan zan
nik ez dakit zelan.
Iturriagari buruz
be idatzi eban
Iturriagai be kezka
sortzerainoko eran.
Segi, segi kontatzen
zelan amaitzen dan. (bis)

M. Lujanbio
Guraso bihurtu zen
akaberan froga
utzi zituen juerga
festa eta droga
gero gauza kabalez
bete zun denbora
baina ez da pasatu
Iturriaga-moda
zentzua joatean
bera itzuliko da. (bis)

Eskolatik plazara. Bilbo. Bizkaia. 2020/2/25. XDZ

MUNGIA

(2020-10-24)

Bertsolariak
M. Amenabar, A. Illaro, N. Ibarzabal, A. Bizkarra, E. Lekue eta I. Ajuriagojeaskoa
Gai emailea
Idoia Anzorandia

Egoerak hala behartuta, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa atzeratzeko erabakia hartu zuen Bizkaiko Bertsozale Elkarteak. Erabakia hartu zuten unean azaldu zuten bezalaxe, guztion osasuna bermatuz bestelako saio mota asko egin daitezkeela sinetsita, *Kopla barik* bertso zirkuitua antolatu zuten. Hau lehen ekitaldia izan zen, Olalde Aretoan eta bertso saio musikatuaren formatuan. Musikariak: Eneko Sierra eta Isak Arruti aritu ziren.

E. Lekue – N. Ibarzabal

Gaia: Inbidia sanoa diozu elkarri. Baina zertan?.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ez hormigoizko lur zatituak*

N. Ibarzabal
A ze ahotsa, a ze klasea
Etxahun Lekue daukazuna
zure arrazoi, zure erantzun
bete hoien gaitasuna
zure ideia ta betozkoa
hobe egiten zaituna
ta batez ere hartuko nuke
zure regulartasuna. (bis)

E. Lekue
Hainbeste lora entzun ostean
ai ene zenbat sentipen!
Baina atzetik datorrenari
nik miresmenik ezin ken
hain desberdinak garela biok
halantxe deutsot irizten
ni beti antzera nabilela
eta zu beti barrizten. (bis)

N. Ibarzabal
Baina gehiegi barrizte hori
sarri izaten da traba
zu beti zuzen pauso onean
ni galduta hona, hara
zure ideien argitasuna
ilea zein begirada
eta gehiau ezin zitekeen ta
larrabetzuarra zara. (bis)

E. Lekue
Holangorik ez neban espero
harritu egin nozu ai!
Izan be zuk denok harritzeko
gaitasuna dozu alai
azken horreri helduko deutset
hori ez baita aldagai
larrabetzuar izan nahi badozu
pisuak badagoz salgai. (bis)

N. Ibarzabal
Nik poltsikoa hutsik daukat ta
horrekin bide motzean
agian hortan ere ondo zoaz
berriz pausu zorrotzean
sarri amestu dut Etxahun daukazun
brilloan ta ahotsean
poemaren bat utzi nahi nizun
noizbaiten mesanotxean. (bis)

E. Lekue
Nire poemak aldiz ez dira
bate politak izaten
hemendik kendu ta hortik kendu
ai ze falta ete jaken!
Sentimentuzko gauza ederrak
entzun deutsudaz hainbaten
ta niri kostaten jat jendeai
gauza politak esaten. (bis)

N. Ibarzabal
Baina ikasten zabiltza Etxahun
beste hainbeste bezela
orain elkarri halako lora
merke botatzen gaudela
egiaren bat esan daiteke
hau gezur bat da bestela
beraz gustora hartuko nuke
bitrinan duzun txapela. (bis)

E. Lekue
Ba hurrengoa zeuk irabazi
pozik geratu zaitezan
Nerea hori gauza txiki bat da
hori posible ete zan?
Alkarreri hain gauza politak
zelan deutseguzan esan
alkarri kontra deukoguzenak
saio osteko zerbezan. (bis)

ZALDIBIA

(2020-11-06)

Bertsolariak
A. Arzallus, J. Maia, A. Zuazubiskar eta M. A. Txoperena
Gai emailea
Alaitz Sarasola

Azken hiru alditan *Zapi janztea* bertso afari formatuan eta lehiaketa moduan egin izan dute. Irabazlea, zapiduna, izendatu dute urtero. Baina oraingoan, egoerak hala behartuta, jaialdia egin dute herriko pilotalekuan. Urriaren 23an jarri zuten lehenengo data, baina hori ere aldatu egin behar izan zen pandemiaren ondorioz.

A. Zuazubiskar - M. A. Txoperena

Gaia: Zuen herriko betiko taberna jabez aldatu da. Dena aldatu da bertan. Orain joaten zarete eta dena erdaraz dago, zerbitzariak, kartelak, musika...

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz*

A. Zuazubiskar
Zenbat denbora barra ertzean
atzera eta aurrera!
zenbat zerbeza, zenbat kubata
zenbat parranda tankera!
Baina tabernak aldatzen dira
eta jabetik jabera
leku berean dago lokala
baina ez da leku bera.

M. A. Txoperena
Leheno pareta hartu ohi zuten
hemen hainbeste aldarrik
taberna xume ta euskalduna
baina ez zuen deus txarrik
buruan daukat galdera bat ta
ez dago esan beharrik:
hona etortzen segi behar al da
ohituragatik bakarrik?

A. Zuazubiskar
Ohitura berez badugu eta
berak nabarituko du
nola igaro ohi diren hemen
mila egun, mila ordu
baina Maddi Ane ohiturak berak
badauzka hainbeste modu
zeozer igual alda lezake
guk esaten badiogu.

M. A. Txoperena
Baina hain espainol dugun taberna
ez da erreza aldatzen
erderaz ari da kantuan ta
gazteleraz zerbitzatzen
lehen gustora genbiltzan baina
ia ez ginen ohartzen
kendu ondotik hasi baikara
geneukana baloratzen.

A. Zuazubiskar
Lehengo kartelak faltan baitauzka
gaurko pareta marroiak
diferenteak dira musika
zerbezen behe eta goiak
baina nabarmen aldatu dira
herrian ere sasoiak
urardotuta ez al dabiltza
bezeroon arrazoiak?

M. A. Txoperena
Baina bezerok izan behar gara
igual tabernaren jabe
lehen ezetz erran dizut bai baina
orain igual bai hala're
zerbitzariai zerbait erran ta
egingo dut horren alde
bestela laster geldituko da
bate bezerorik gabe.

A. Zuazubiskar
Beraz berriro joango gara
osteguna heldu ahala
betiko gisan kuadrilla dena
euskaraz beti bezala
eta eskaini zerbait nahi badu
lasai eskatu dezala
ulertu dezan aldatu nahi ta
gu hemen prestu gauzkala.

M. A. Txoperena
Hau aldatzeko prest gaude eta
hortarako aurrean zut
ikusten dut bai horretarako
dituzu ideia batzuk
baina ni ez naiz ausartzen eta
igual erran zaiozu zuk
ta ezezkoa ematen badu
ordun kritikatuko dut.

BERGARA

(2020-11-07)

Bertsolariak
J. Uria, B. Gaztelumendi eta A. Sarriegi
Gai emailea
Unai Aranzabal

Jardun Euskara Elkartearen eta Bergarako Bertso Eskolaren artean oraingoan ere antolatu zuten bertso jaialdia Kartzela Zaharrean.

B. Gaztelumendi – A. Sarriegi

Gaia: Beñat eta Aitor gazte-gaztetako lagun minak zarete eta mugimendu askotan elkarrekin militante ibiliak. AHTren aurka, gaztetxeko lanetan, errauskailuaren aurka... Duela urte batzuk banandu zineten eta ez duzue elkarren berririk izan. Beñat banatzailea da, Amazonekoa. Gaur joan zara zerbait eramatera bata besteari atxikitako etxe horietako handi eta eder batera. Tinbrea jo eta Aitor atera da.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua*: Antton eta Maria I*

B. Gaztelumendi
Txalet bateraino det
banaketan segi
arbusto pixka bat da
sarreran ageri
Securitas Direct-en
hiruzpalau begi
lau dalmata korrika
ta Audi bat geldi
barkatu zu al zera
Aitor Sarriegi? (bis)

A. Sarriegi
Hala naiz ta hala nintzen
lagun ginenean
ze-nolako sorpresa
heldu zeranean!
Bizitzak bide asko
dauzka aidanean
baina biok gabiltza
antzeko planean
multinazional baten
ni ere lanean. (bis)

B. Gaztelumendi
Dilema beti baita
izan edo ez izan
iraultzaileak ginen
gu lehengo bizitzan
zu orain multinazional
on baten gerizan
ta ni berriz hementxe
banatzaile gisan
ez dizut galdetuko
zer moduz zabiltzan. (bis)

A. Sarriegi
Pozik, ondo mantentzen
det neure taldea
eta zoriontsua
da gure aldea
zu ere hara ta hona
zapalduz kalea
zure ametsa bete
dezun seinalea
zu beti izan zera
bidaia zalea. (bis)

B. Gaztelumendi
Bidaia zale gisa
ohi nintzen agertu
baina azkenean nintzen
horretan aspertu
aurrekontua azkar
baitzitzaidan lehertu
orain bidaiatzen det
gertu, oso gertu
baina zure bidaia hau
ezin det ulertu. (bis)

A. Sarriegi
Hogei urtekin noski
guk ez genuen nahi
mundua aldatzeko
ekin eta jarrai
baina gero aurrean
jartzen denean zai
badakizu zuk gauzak
nola ohi diren ai!
Pertsona aldatzen da
ametsak ere bai. (bis)

B. Gaztelumendi
Eta beraz amesten
zenuna hauxe da
ba ni pozik nago zu
horrela bazera
lanetik irtetean
gero gaztetxera
asanbladara noa
zortziak aldera
nahi badezu etorri
trago bat hartzera.

A. Sarriegi
Okupatuta nago
denboran salduta
nere negozioak
ezin mantenduta
asko pozten naiz Beñat
nahiz ta hemen buka
a! Irteterakoan
barandari helduta
kontuz txakurrarekin
kozka egiten du ta.

J. Uria

Gaia: LEHEN PUNTUA EMANDA

Doinua: *Hona bildots eztia*

A. Sarriegi
Errez egingo dezu
lehendabizikoa
J. Uria
honek beregan ez du
sobran meritoa.

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

B. Gaztelumendi
Eta azkenaldian
zer moduz bizitza?
J. Uria
Azken boladan denok
antzera gabiltza
dena aspergarria
eta dena grisa.

Doinua: *Haizeak bidali du*

A. Sarriegi
Matematikak dena
azal ahal lezake?
J. Uria
Azaldu ahalko balu
guretzako kalte
ulertzeko nahiz izan
nahiko borondate
guztia ulertzeko
bada mila kate.

Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

B. Gaztelumendi
Zenbakien artetik
hitzaren mundura.
J. Uria
Ni batetik bestera
hain nabil gustura
denak horren desberdin
izan behar al du ba?
Zerbait ulertu eta
deskubritu gura
berdin matematika
zein hitzen kultura.

Doinua: *Aresoarren bandera*

A. Sarriegi
Ta Berrian jo eta su
J. Uria
zuk ere irakurri nauzu
behintzat batzutan batzuek egin
badidate kasu
ez da izango enbarazu
hortxe nabil pausuz pausu
eta galdetu zerbait ulertzen
ez baldin baduzu.

Doinua*: ETAren su-etenetik*

B. Gaztelumendi
Eta zer ikusten dezu
Euskal Herrira begira?
J. Uria
Nora begiratu behar dut
ertzera edo erdira?
Guztia mugatua da
hori argi dago tira
baina garbi utzi digu
herri honen perspektiba
Iparraldean gauza bat
nafarrek bestera jira
eta guk Erkidegoan
horrenbeste tirabira...
Seinale ona neurri denak
denontzat berak balira.

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

A. Sarriegi
Munduak ere badauka
bere nagusi berria
J. Uria
Estatu Batuetan zer
gauza ikaragarria
berria diozu baina
ez al da harrigarria?
Ia laurogei bat urte
nola hartu horri neurria
behintzat Trump kanporatuta
gugan badugu irria
baina ezberdina al da
Joe Bidenen aldarria?
Ezberdina estiloa
antzerakoa gerria
ez dezagula ahaztu
berbera dela herria.

Doinua: *Betroiarena A*

B. Gaztelumendi
Munduko nagusi zu
izango bazina?
J. Uria
Mundua litzateke
hain ezberdina!
Baina horretarako
batek behar du grina
hutsala ez delako
horren ahalegina
ondokoen mina
nahi eta ezina
gauzei muzina
ta besteei ezina
hobe horretan inoiz
sartu ez bagina. (bis)

J. Uria – A. Sarriegi

Gaia: Zenbakiekin ondo moldatzen zarete biok. Matematikaria eta ingeniaria zarete.
Krisian dago gure sistema, egiturazko krisi sakonean. Jonek, matematikariak, algoritmo bat asmatu du krisitik ateratzeko, baina Aitorri behin eta berriz errorea ematen dio, 404 errorea.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

J. Uria
Beti laurehun ta laua
ote da zehazki?
Denbora pasa al duzu
programatzen aski?
Beti pasatzen dena
pasatu da noski
ideia ondo dago
kodigoa gaizki. (bis)

A. Sarriegi
Beraz atakatik nik
beharko det irten
honekin ja badauzkat
zenbait irudipen
algoritmo honekin
zu zabiltza kirten
makinek ez baitute
inoiz huts egiten. (bis)

J. Uria
Laurehun ta laua nondik
behar zaizu atara?
Eliza zati zortzi
egin behar da hara
ta hezkuntza bider bi
esan nizun jada
ze kristo programatzen
ari ote zara? (bis)

A. Sarriegi
Ta gainera zeu jarri
senetik irtenda
zure gaixotasuna
ez liteke senda
hezkuntzako laguntzak
zero dira benga!
Eta zero bider bi
zero gelditzen da. (bis)

J. Uria
Hori izan liteke
azaltzeko era
baina ezin gaitezke
gu horretan gera
bukle batean daude
kontua hoixe da
gure sistema eta
algoritmoa bera.(bis)

A. Sarriegi
Zenbakiak jarrita
hezkuntzan, elizan
gero tokatzen denak
ongi erabil ditzan
honekin saiatzeko
buruketa gisan
pretentzioso samarra
ez al zera izan? (bis)

J. Uria
Pretentziosoak gara
ez da gure kulpa
baina hemen gure barne
ta kanpo burruka
gure agintariek
hau ta hura hautatuta
esango dute dela
guk aholkatuta. (bis)

A. Sarriegi
Aurreko arazoak
badauka atzea
alperrik izango da
hontan saiatzea
eta algoritmoa
sisteman sartzea
onena da sistema
reseteatzea. (bis)

ETXARRI-ARANATZ

(2020-11-08)

Bertsolariak
E. Lazkoz, J. Soto, M. Lujanbio, A. Egaña, N. Elustondo
Gai emailea
Fernando Anbustegi

Etxarri Aranazko Udalak Kultur Etxean antolatutako jaialdia. COVID-19aren ondorioz ezarritako neurrien ondoren, %30eko aforo mugatua eta neurri bereziak hartuta (mikrofono bana, eskuak garbitzeko gela sarreran, distantzia publikoan…) burutu zen.

E. Lazkoz - J. Soto - M. Lujanbio - A. Egaña - N. Elustondo

Gaia: Zu, Andoni, Iñigo Urkullu izanen zara eta besteok zure aholkulariak. Egunero batzen zarete eta hauek aholkuak, iradokizunak, ematen dizkizute. Ea gaur zerekin datozen eta zer erantzuten duzun.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

M. Lujanbio
Zuk beti bezelaxe
diskurtsoai ekin
zure begi zulo ta
seriedadeekin
monotonoari eutsi
ze bestela ezin
kixkiloso dabiltza
euskara gauzekin
txapatxoa jar zazu
nahiz erderaz egin (bis)

A. Egaña
Euskeraldia dator
hau da panorama!
Nere hizkuntz ohiturek
sorturik alarma
aholkulari horrek
eskutik narama
txapatxoa jartzeko
esan dit ai ama!
Lehendik badet nahikoa
txaposoan fama. (bis)

N. Elustondo
Zuk "A" esaten dezu
eta denei berdin
aspaldian federik
ez dute zurekin
baina fina zarela
badakigu jakin
ta denei baiezkoa
egin buruakin
eta ondoren zuk nahi
dezun hura egin. (bis)

A. Egaña
Eman didana ez da
aholku txepela
bere aurrean kendu
nahi nuke txapela
denei "Bai" esatea
garrantzitsu dela
batera hitz eman ta
jokatu bestela.
Beraz jarraituko det
gaur arte bezela. (bis)

E. Lazkoz
Zu zara artzaia ta
herria artalde
aspaldi egin zinen
boterean jabe
hurrena duzunean
prentsa parez pare
lasai agertu zaitez
musukorik gabe
ez da nabarituko
berdin-berdin zaude. (bis)

A. Egaña
Jaiotzez nafarra da
xelebrea hau're
Lakuan hartu nuen
ia parez pare
bere aholku hoiek
ja soberan daude
beti azalduko naiz
musukoan jabe
ta zu geratu zera
nominarik gabe. (bis).

J. Soto
Casadok ekartzen du
Cervantes horrela
eta nabarmena da
gora doazela
hurrengo diskurtsoan
han goian zaudela
kanta zazu bertso bat
onenek bezela
ziur naiz Egañak bat
eingo lizukeela. (bis)

A. Egaña
Beraz Casadoi zera
hori ikasia
ez zen ideia txarra
ez zaude nahasia
Egañaren bertso bat
txisposo, bizia
aho zabalik uzteko
publiko guzia
baina neri falta zait
kantuan graziaaaa. (*)

(*) Azken puntua graziarik gabe, ahots apalez eta ia doinurik gabe, kantatu zuen

DONOSTIA

(2020-11-28)

Bertsolariak
M. Lujanbio eta A. Laburu

Euskaraldiaren harira egun horietan Donostiako auzoetan antolatutako saio bat Martutenen izan zen. Eguzki ederrarekin bi bertsolari librean. Beste urteetan bazkaria egiten da auzo horretan eta horren ordezko bilakatu zen hau.

M. Lujanbio - A. Laburu

Gaia: Gai librean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Oilarra kukurruka*

A. Laburu
Horrelakoek dute
gurekin paotxa
ematen badiegu
daukagun ahotsa
ETBrekin hala
daukat nik bakoitza:
batak pena ematen dit
eta biak lotsa.

M. Lujanbio
Ze nahaspila duten
eta ze nahaski!
Lehentasuna bian
dago seguraski
euskaldunok bide hortan
hain gaizki guazti
bat ta ona egitea
ez litzake aski.?

A. Laburu
Nork erantzuten ditu
gaur gure galderak?
ETBren gainean
a ze gorabeherak!
Nahiz gureak sortzeko
eduki aukerak
ditu Telecincoren
referente berak.

M. Lujanbio
Irizpideak ditu
okerrak, kaxkarrak.
Baldin goizegi erortzen
badira sagarrak
joaten dira bidali
berezi ta abarrak
eta erderaz jarri
astiarratarrak.

A. Laburu
Gu behin atera ginan
baino "Alto! Alto!"
Erdi obligazioz
egin gendun salto
nahiz kulturak isuri
gugan hainbat malko
lehentasun gehiago
genituelako.

M. Lujanbio
Donosti ta Astiarra
ai dira igualtzen
tartean Martutene
auzo bat ez al zen?
Telebista kontutan
dabilena galtzen
uholderik ez bada
inor ez da azaltzen.

A. Laburu
Hemen lehen uholdiak
ziran bizimodu
gaur ia teilatutik
beidatzen diogu
gauza batzuk okertu
bestiak konpondu
martxa hontan Txominek
irentsi behar du.

M. Lujanbio
Udaletxea mintzo
da diskurtso finez
erreka zaindu behar
degula jakinez
dena hondatzen baita
uran eraginez
ta hara! Zaindu dute
etxeak eginez.

A. Laburu
Askok Martuteneri
ez dio gustorik
baino ez det egingo
kontrako juzkorik
askok ez du egiten
orain lasai lorik.
Hemen atera al da
Metroko zulorik?

M. Lujanbio
Metroko obrarekin
ai badago lana
Kontxa zoragarrian
a ze panorama!
Astiarra, Martutenera
iristen da dana
zulon bat izango da
AHTana.

A. Laburu
AHTak ere
ze-nolako mina
zulo bat baino gehio
dauka eragina
Donostia halaxe
baitago jakina
porlanan erreinua
hondarrez egina.

M. Lujanbio
Baino Astiarra da
horren adibide
ze porlan korapilo
dauden adiskide:
autopista, bariante
eta errepide
Europa osoan ez da
hemen aina bide!

A. Laburu
Ermitara igota
odolak irekin
bista betetzen baita
errepideekin
umetan egia esan
Aginek ez zekin
eskalextriak daude
kurba gutxiokin.

M. Lujanbio
Marko inkonparablea
hor dago ta hara!
Garbi-garbi behar du
bere begirada
nahi ez dituen denak
konturatu gara
baztertzen dituela
periferiara.

ORIO
(2020-12-06)

Bertsolariak
A. Egaña, J. Uria, A. Peritz *Euzkitze*, A. Sarriegi eta M.Lujanbio
Gai emailea
Unai Manterola

Eguerdian,12:30ean, egin zen Errikotxia Bertsozaleen Kultur Elkarteak, Orioko Udalarekin batera, antolatutako jaialdia Kiroldegian. Protokolo eta neurri guztiak hartuz, aurrez gonbidapena hartuta zuten 300 lagun inguratu ziren bertara.

A. Peritz *Euzkitze*

Gaia. Sahararen aldeko lanean ikusi zaitugu azken urteetan. Ez dator albiste onik hegoaldetik.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

A. Peritz

Gerra piztu da eta badator
ja antzeman degu bapo
ta itxuraz triste gaude dagona
oso tristea dalako
nahiz antzematen dan ez dagola
esperantzarik biharko
orain artean guk ere ez degu
asko egin haientzako
geranak geran neurrian geure
ardura aitortu beharko
orain ikusten baditugu da
lehen beitu ez genielako.

Gure herriak edo haienak
denak dauka bere kulpa
Espainak ere horren aurrean
min haundia sortu du ta
ta orain nahiz ta kezkatzen geran
haruntza begiratuta
urtero libre sentitzen ginan
bi kilo arroz lortuta
Euskal Herria ere halaxe
dabil konduktaz kondukta
libre nahi degu, bai baino beste
asko badaude lotuta.

Itxura asko egiten baita
maiz botatzen dan hitzekin
guri begira ari naiz baino
agintariekin berdin
orain gerrara atera dira
jai dago Marokorekin
referendum bat eskatzen da ta
hori ere lortu ezin
gure indarra bidal dezagun
zerbait ondo irten dedin.
Eutsi Sahara segi borrokan
ta ahal dezutena egin.

DURANGO
(2020-12-30)

Bertsolariak
G. Pagonabarraga, A. Arzallus,, A. Egaña, A. Bizkarra, On. Enbeita eta M.Lujanbio
Gai emailea
Unai Iturriaga

Urteko azken saioa bezala ezagutu izan den jaialdiak oraingoan bi emanaldi izan zituen. Lehenengotik bigarrenera, entzuleaz gain (bakoitzean 130 lagun) gai jartzailea aldatu zen. Bigarrenean Ainhoa Urien izan zen aurkezlea eta eskualdeko bertsolariak aldatu ziren. Pagonabarraga eta Bizkarraren ordez Abarkasek eta Txaber Altubek kantatu zuten. Plateruena ixteak, hau azken saioa izateak, markatu zituen bi jaialdiak.

M. Lujanbio

Gaia: Bihar egingo da Plateruenean azken ekitaldia. Bermuta izango da eta kitto! Itxi egingo da. Agurtzeko hiru bertso bota behar dituzu, bakoitza sentimendu batetik. Zeuk aukeratu nondik kantatu.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

M.Lujanbio

Lastima ez al da, pena ez al da
ez izatea segira?
Irudi zaharrak etortzen zaizkit
plaza hontara begira:
zerbeza arteko hainbesteko kontu
gauez ezin erretira
musika arteko dantza egunak
artista haundien mira
kantu ozenak ta kontu isilak
belarritik belarrira...
Hau itxi eta huts honentzako
geratuko ote dira?

Ez da damua, baina erremin
puntu bat badauka behintzat
bi milagarren urte bueltan
nolatan eta norentzat?
Nobentatatik zetozen gure
kulturgintzaren ametsak
Kafe Antzoki proiektu haundi
etxe haundi baten ertzak
euskalgintzaren bizibeharrak
eta laguntzarik ezak
harri haundiak jarri genitun
gure asmo haundientzat.

Poza ere bai ta zergatik ez
gainera poz bat itzela
nik hemen beti sentitu izan dut
zerbaiten parte nintzela
euskalgintzaren, bertsogintzaren
abaro goxo, epela
edo azokako egunetan su
nahiz kanpoan izan jela
hainbeste lagun, hainbeste gogo
datozela, doazela
nik sinesten dut erein den hori
berriro sortuko dela.

A. Bizkarra – A. Arzallus

Gaia: Ametsek ez du bikoterik eta txakur bat erosi du, Aitor Bizkarra. Ametsi zaila egiten zaio txakurra gobernatzea; beste jende guztiarekin maitekiro portatzen da, ordea.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

A. Arzallus
Hitz egiteko hartu dut
nahikoa ausardi
ematen diot nahiko
kroketa ta haragi
neri dena mutur ta
bestei parrealdi.
Nigatikan ez balitz
hil zinan aspaldi. (bis)

A. Bizkarra
Ba bai hilda nengoke
hori da egia
baina bizitzea ez al
da ba zilegia?
Zugaz jatortasuna
hain da gehiegia!
Beti jartzen didazu
txakur aurpegia. (bis)

A. Arzallus
Nigana hurbiltzeak
honi dena hozki
besten fereka denak
ederki datozki.
Okerra izenetik
hasiko zen noski
igual ez zenun nahiko
nik jartzerik Trosky. (bis)

A. Bizkarra
Izenakin pozik ez
zakur lerdetsua
Trosky ez zen ni bezain
irriparretsua.
Kanbioa egin dezagun
badauka zentzua:
niretzat okela ta
jan zazu pentsua. (bis)

A. Arzallus
Konfinamendu hortan
hor ibili nintzen
geroztik hemen nabil
ni sofak garbitzen
tolestutako arropa
zimurtuak biltzen.
Milesker behintzat ez naiz
bakarrik sentitzen. (bis)

A. Bizkarra
Zerbait ona irtengo da
gu bion artetik
bakardaderik ez da
gaur nire partetik.
Baina berriz papelak
aldatu batetik
aterako al zaitut
kalera katetik? (bis)

A. Arzallus
Ez dakit ba egingo
dugun guk txangoa
nigana beti herren
dakarzu zangoa
besterengana askoz
ta harroagoa
bihar jarriko dizut
kate motzagoa. (bis)

A. Bizkarra
Nik kate motzagorik
ezin dut ospatu
ez dut eduki gura
etxe hau ostatu
joan gaitezen kalera
ez zaitez tristatu
Bezinoen eskuak
nahi ditut mizkatu. (bis)

A. Arzallus
Garbi azalduko dizut
luze-laburrean:
ez zara modelo bat
zeure apurrean
Karlino itsusi hori
baba muturrean
laster jarriko zaitut
ispilu aurrean. (bis)

A. Bizkarra
Beraz zuk egiatik
ez nauzu babesten
ta zatarra naizela
zabiltza abesten
zure edertasunik
be ez da berpizten
txakur zaharra naiz eta
ez dizut sinisten. (bis)

SARIKETAK

AZPEITIA

(2020-07-17)

Bertsolariak
J. Gurrutxaga, M. Arregi, A. Zuazubiskar, X. Illarregi, O. Etxeberria eta A. Galarza Muxi
Gai emailea
Imanol Artola Felix

X. Erniarraitz txapelketa. Finala

Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta, Azpeitiko Gaztetxean egin zen finala.

M. Arregi - A. Zuazubiskar

Gaia: Herri bereko zinegotziak zarete eta COVID-19a dela eta festak antolatu edo ez eztabaidan ari zarete. Maiderrek ezer ez antolatzekoaren alde dago. Ez dela garaia. Anek ahalik eta gauza gehien antolatu nahi ditu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Egun lanerat abiatu zait*

M. Arregi
Herriko festak badatoz eta
burua daukagu laino
erabakia hartu behar da
helduta uztaileraino
maskarillekin eta gelekin
kontua hain zaila da ño!
Nik nahiago dut ezer ez egin
erdipurdiz egin baino.

A. Zuazubiskar
Baina egin bai egin daiteke
ta momentua heldu da
nahiz kaleetan jarduna mozten
saiatu Nekane Murga
egutegian mila gauzekin
bete dezakegu uda
bateragarri izan daitezen
bizitza eta ardura.

M. Arregi
Bizitza eta ardura hemen
batera nola egon ba?
Nahiz ta pentsatzen pasatu dugun
zuk eta biok denbora
telebistetan ere gezurrek
egiten dutenez gora
foko berri bat zabaltzen bada
gure kulpa izango da.

A. Zuazubiskar
Ta gero zenbat ardura eske
ta zenbat erru berreste
Gaur Egunen ta Teleberrian
ikusten dira hainbeste!
Baina herria sumatzen baitut
zerbait egiteko eske
txukun ta neurriz egin dezagun
eredu izan gaitezke.

M. Arregi
Beraz herria jarri nahi duzu
orain eredu gisako
baina kontua ez da erraza
gaurko hontan neretzako.
Zenbat ekintza dibertigarri
ekintza anabasako!
Urtebetean atzeratzean
ez da deus ere pasako.

A. Zuazubiskar
Baina kalean ikusten bada
hainbat jende maskaradun
atzeratzen ta gaur ez egiten
Maider zertarako jardun?
Hauteskundeak iaz zirela
ez ote duzu ezagun?
Haiek gugana jarri zutena
haiengan sinets dezagun.

X. Illarregi - J. Gurrutxaga

Gaia: Bikotea zarete. Zuen 18 urteko alabak aspaldi duen konplexu bat gainditzeko asmoz, sudurra konpontzeko operazio estetiko bat egingo duela esan dizue. Xabatek babesa eman nahi dio eta Jon horren aurka dago.

Neurria: Zortziko handia
